

Erkidegotik kanpoko immigrazioak Euskal Autonomia Erkidegoan eragiten duen inpaktu ekonomikoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES

ERKIDEGOTIK KANPOKO IMMIGRAZIOAK EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN ERAGITEN DUEN INPAKTU EKONOMIKOA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAJETAKO SAILA**

Gizarte Gaietako Sailburuordetza
Inmigrazio Zuzendaritza

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES**

Viceconsejería de Asuntos Sociales
Dirección de Inmigración

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2008

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke: <http://www.euskadi.net/ejgvbiblioteca>

Bakeaz erakundeko talde batek egin du azterlan hau **Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritzarentzat**. Hona hemen talde horretako kideen zerrenda:

- **Joaquín Arriola Palomares**, Euskal Herriko Unibertsitateko Ekonomia Aplikatuko Departamentuko irakaslea eta Bakeaz erakundeko ikerlaria. Azterlanaren zuzentze zientifikoaz eta azterlana idazteaz arduratu da.
- **Carlos Gómez Gil**, Alacanteko Unibertsitateko Analisi Ekonomiko Aplikatuko Departamentuko irakaslea eta Bakeaz erakundeko lankidetzaren eta inmigrazio-politiken arloaren arduraduna. Ondorioak eta proposamenak lantzen parte hartu du.
- **Xabier Andrés Uriarte**, ekonomialari eta politologoa, eta Bakeaz erakundeko taldeko teknikaria. Landa-lana egin du.

Argitaraldia:	1.a, 2008ko martxoan
Alekopurua:	500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposaketa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 (48007 Bilbao)
Inprimaketa:	Grafo, S.A. Avd. Cervantes, 51 (48970 Basauri)
ISBN:	978-84-457-2691-4
Lege Gordailua:	BI - 1.224-08



Aurkezpena

Euskadiko populazioaren %5 da gutxi gorabehera. Kontinente guztietakoak dira, 100 herrialdetan baino gehiagotan dute jaioterria. Herri eta hirietako kaleetan gurekin daude, lanean ere bai, eskolan, aisialdi-eremuetan. Gure kultura bizi dute eta gurekin partekatzen dute berea. Euskadin bizi eta lan egiten duten atzerritarrez ari gara; gehienak gazteak dira; 100.000 gizon-emakume dira eta, besteak beste, gure herriak azken hamarkadetan jasan dituen zahartze-dinamika eta atzerakada demografikoa bihurtu dituzte.

Pertsona horietako gehienak 18 urtetik 65 urtera bitartekoak dira, alegia, gehienbat populazio langileak osatzen duen kolektiboa da. Izan ere, lan bila etorri dira, edo beren lan-etorkizuna edo familiarena hobetu nahirik. Eta beren lanarekin, Gizarte Segurantzari ematen dizkioten kotizazioekin eta zergak ordainduz laguntzen dute, bertakook bezala, ekonomia eta ongizatea bultzatzen gizarte honetan.

Gauzak horrela izanda ere, gizartean sortu eta batzuetan nagusitu dira iritzi ezkorrak atzerritar etorkinei buruz, eta iritzi horiek elikatu egiten dituzte zenbait jarrera xenofobaren argudioak. Horrela, eta halakorik esateko behar besteko frogaz ez duten arren, jende askok esaten du bertakook etorkinen erruagatik ditugula zailtasun handiak lan duina eskuratzeko, eta gainera, uste dute etorkinengatik jaitsi dela soldaten maila orokorra. Badira, bestalde, atzerritarrei egozten dietenak zerbitzu publikoetan gertatzen den gelditzearen errua. Eta badira, zerbitzu horiek andeatzearen errua egozten dietenak. Laguntza publikoen kontura bizi direla diotenak ere ez dira gutxi.

Hala ere, etorkinak gure ekonomian sartzeak duen eraginari buruzko ikerketa zehatz batek gezurtatu egiten ditu uste horiek. Azterlan zorrotz bat egin da atzerritarrek lan-merkatuan sartzearen ondorioak aztertzen ditu; azterlan horrek zenbakiak eta ageriko gertaerak jakinarazten ditu, eta hor esaten da iritzi eta adierazpen horiek gezurrezkoak direla.

Euskadiko lan-merkatuaren azken urteotako ezaugarri nagusia hau izan da: eskulan berria etengabe sartu beharra. Bi izan dira horren arrazoi nagusiak: batetik, 80ko hamarkadan gertatutako jaiotza-tasaren beherakadaren

ondorioz, gaur egun langile gutxiago sartu dira lan-merkatuan, lan-merkatua jubilazioagatik utzi dutenak baino, eta bestalde, gure ekonomiaren oraintsuko dinamika hedatzailea ere gertatu da horren ondorioz, eta bertakoekin asetu ezin diren enplegu-eskaintzak areagotu egin dira, neurri handi batean etorkinekin bete direnak.

Atzerritarrak eskuratzen ari diren lan horiek eskulana erruz behar duten ekoizpen eta jarduera sektoreetakoak dira, lan neketsuak egitekoak, arrisku-tsua, kualifikazio gutxiak, eta orohar gaizki ordaindutakoak izaten dira. Eta lan horiek eskuharki bertakoek arbuiazen dituzte, esaterako etxeko lanen arlokoak edo mendetasun-egoeran bizi diren pertsonak zaintzekoak. Lan horiek nagusiki emakume etorkinek egiten dituzte.

Ondorio modura esan dezakegu langile etorkinak ez direla sartu euskal lan-merkatuan bertakoekin norgehiagoka eginez, elkarren osagarri izanda baizik.

Bestalde, azterlan horri esker esan dezakegu ezen, beren gaztetasunari eta lan-jarduera altuari esker, etorkinak, zergak ordainduz eta Gizarte Segurantzako kotizazioen bidez, nabarmen laguntzen ari direla zerbitzu publikoen gastuak ordaintzen, eta zerbitzu horiek bertakook nahiz atzerritarrek erabiltzen ditugu. Alegia, etorkinek beren kopuruaren arabera erabiltzen dituzte zerbitzu publikoak, baina, portzentejean, bertakook baino gehiago laguntzen dute zerbitzu horiek finantzatzeko.

Ohar pare bat besterik ez dira izan, eta herri-administrazioek eta gizarte-erakundeek horren berri jakinarazi nahi die Euskadiko herritarrei zeren eta herritar horiek ez baitira beti jakitun izaten. Ezbairik gabe, ikerlan horrek argudio sendoak ematen ditu bide horretan aurrera egiteko, argibideak ematen baititu etorkinek euskal gizartean duten eraginari buruz. Izan ere, sensibilizazio-tresna baliagarri hori Joaquín Arriola, Xabier Andrés eta Carlos Gómezek egin dute. Hirurok hezkuntza-mundutik datoz, eta eskerrak eman behar dizkiegu lan hau egiteagatik.

Javier MADRAZO LAVÍN

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Eusko Jaurlaritza

Aurkibidea

1. Hitzaurrea.	13
1.1. Azterlanaren nondik norakoa	13
1.2. Migrazioak eta egiturazko metatze-ereduaren aldaketa	14
1.3. Erkidegotik kanpoko immigrazioaren ezaugarri ekonomikoak, esku- ragarri dauden azterlanen arabera.	19
1.3.1. Nazioarteko migrazioei buruzko azterlan ekonomikoak	19
1.3.2. Espainiako nazioarteko migrazioei buruzko azterketa.	21
2. Euskadiko immigrazioa interpretatzeko eredu bat (1995-2006).	27
2.1. Immigrazioa egiturazko aldaketaren adierazpen gisa	27
2.2. Immigrazioa aldaketa demografiko nagusi gisa	30
2.2.1. Immigrazioa eta demografia Euskadin.	31
2.3. Immigrazioa lan-merkatuaren egiturazko aldaketa gisa	37
2.4. Immigrazio masiboa Espainiako metatze-ereduaren oinarritzko osa- gai gisa	41
2.4.1. Espainiak Europako lanaren banaketan duen zeregina	42
2.4.2. EAeren berezitasuna Europako metatze-ereduan	46
2.4.3. Lisboako Estrategia eta Erkidegoko enplegu-politika.	53
2.5. Aldaketak lanerako indarraren kudeaketan	57
2.6. Lanerako indar etorkinaren produkzio-integrazioa	59
2.6.1. Langileen arteko lehia indartzea	60
2.6.2. Langile etorkinen sektore-banaketa	63
2.6.3. Emakume langile etorkinen zeregin espezifikoa	67
2.6.4. Giza kapital metatua biztanleria etorkinean	72
2.7. Enpleguarekin zerikusia duten gizarte-problematika garrantzitsuenak	76

3. Etorkinek Euskadiko jarduera ekonomikoan duten inpaktua (produktzioa, kontsumoa eta fiskalitatea)	79
3.1 Etorkinak balio erantsiaren osaeran	79
3.2. Immigrazioa eta klase-arrazakeria	80
3.3. Euskal gastu publikoa eta immigrazioa	82
3.3.1. Hezkuntza	83
3.3.2. Gastu sanitarioa	91
3.3.3. Gizarte-zerbitzuak	96
3.3.4. Etxebizitza	107
3.3.5. Etorkinentzako arreta	109
3.4. Langileen zerga-arloko diru-sarrerak	109
3.5. EAEko gastu publiko sozialaren zerga-balantzea: 2006ko laburpena . .	111
4. Ondorioak eta proposamenak	117
4.1. Ondorioak	117
4.2. Proposamenak	120
5. Erreferentziak	133
6. Estatistika-eranskina	139

Taulen aurkibidea

1. taula. Aldakuntza biztanlerian, 2000-2006	32
2. taula. EAE: biztanleria osoaren eta atzerritar biztanleriaren banaketa lurralde historikoen arabera, 2006 (%)	34
3. taula. Atzerritarren banaketa jatorrizko herrialde motaren arabera, 2000-2006.	35
4. taula. Atzerritarrei emandako lan-baimenak, lurraldeen, sexuen eta aldien arabera, 1995-2005.	39
5. taula. 16-64 urteko biztanleriaren jarduera- eta enplegu-tasa nazionalitateen arabera, 2006 (%)	39
6. taula. 16-64 urteko gizonen jarduera- eta enplegu-tasa nazionalitateen arabera, 2006 (%)	40
7. taula. 16-64 urteko emakumeen jarduera- eta enplegu-tasa nazionalitateen arabera, 2006 (%)	40
8. taula. Espainiako industriaren balio erantsi gordina adarren arabera, 1985-2005 (%)	44
9. taula. Lanpostuen aldakuntza sektoreen arabera, 1995-2004 (%)	45
10. taula. EAEk Espainiako ekonomian duen pisua sektoreen arabera, 2000-2005 (%)	47
11. taula. Soldata-kostuaren eta etekinen arteko erlazioa Espainian eta Euskadin, 1993-2005	49
12. taula. Landunak, guztira eta industrian, 1977-2006 (milakotan)	50
13. taula. Landunen tasari buruzko datuak Europar Batasunean eta Espainian, 1999-2005 (milakotan)	55
14. taula. Landunak EAEn, sexuaren eta nazionalitatearen arabera, 1999-2006	58
15. taula. EAEko landun berriak sexuaren eta nazionalitatearen arabera, 1999tik aurrera	59
16. taula. Produkzioaren (BPG) eta soldaten igoera-indizea (2000 = 100) EAEn, 2004	61
17. taula. EAEko atzerritarren eta nazionalen ehunekoa lanaren arabera, 2006.	64

18. taula. EAEn lan egiten duten atzeritarren banaketa, adarren eta lanbide-kategorien arabera, 2006 (%)	68
19. taula. 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren prestakuntza-mailak, jatorriaren arabera, 2006	74
20. taula. Euskal hezkuntza-sistemaren hezkuntza-maila guztietan 2006-2007 ikasturtean izandako matrikulazioen kopurua, nazionalitatearen eta ikas-tetxearen titulartasunaren arabera	85
21. taula. EAEko ikastetxeetan matrikulaturiko ikasle bakoitzeko gastu publikoa (eurotan), titulartasunaren arabera, 2006	87
22. taula. EAEko ikastetxeen gastu publikoa (eurotan), titulartasunaren arabera, 2006	87
23. taula. Euskal hezkuntza-sistemako hezkuntza-maila eta titulartasun bakoitzean egindako guztizko gastu publikoa (eurotan), 2006	89
24. taula. Euskal hezkuntza-sistemako hezkuntza-maila eta titulartasun bakoitzean ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa (eurotan), 2006	89
25. taula. Euskal hezkuntza-sistemako hezkuntza-maila eta titulartasun bakoitzean egindako guztizko gastu publikoa (eurotan), nazionalitatearen arabera, 2006	90
26. taula. Euskal hezkuntza-sistemaren guztizko gastu publikoa (eurotan), nazionalitatearen arabera, 2006	90
27. taula. Batez besteko per capita gastuaren indizeak, adin-tarteen arabera	93
28. taula. EAEko biztanleria natiboa eta bertako biztanleria, adin-tarteen arabera, 2006ko urtarilaren 1a	94
29. taula. EAEko gastu sanitario publikoa (eurotan), adin-tarteen eta nazionalitatearen arabera aurreikusia, 2006	95
30. taula. EAEko adinduei bideratutako gizarte-zerbitzuen taldeko gastu publikoa (eurotan), 2004	99
31. taula. EAEko gaixo, ezindu eta minusbaliatuei bideratutako gizarte-zerbitzuen taldeko gastu publikoa (eurotan), 2004	99
32. taula. EAEko familia, haur eta gazteei bideratutako gizarte-zerbitzuen taldeko gastu publikoa (eurotan), 2004	101
33. taula. Pobreziaren eta bazterkeriaren arloko laguntza eta prestazioen taldeko gastu publikoa (eurotan) EAEn, 2004	102
34. taula. EAEko oinarritzko gizarte-zerbitzuetan egindako gastu publikoa (eurotan), 2004	104
35. taula. EAEko gizarte-zerbitzuetan egindako gastu publikoa (eurotan), 2004	104
36. taula. EAEko gastu publiko soziala (eurotan), gastu hori biztanleriaren nazionalitateari atxikitzearen arabera, 2006	112
37. taula. EAEko atzeritarrei eta natiboei atxikitako gastu publiko soziala, 2006	113

Grafikoaren aurkibidea

1. grafikoa. Espainian Gizarte Segurantzari afiliatutako landunen kopuruaren bilakaera, 1980-2006 (milakotan)	27
2. grafikoa. Espainian eta Euskadin Gizarte Segurantzari afiliatutako landunen kopuruaren aldakuntza-tasa, 1983-2006 (%)	28
3. grafikoa. EAEn sortutako enplegu berriak eta enplegu horietan aritzen diren langileen nazionalitatea, 2000-2006	29
4. grafikoa. Espainia: biztanleriaren banaketa jatorriaren arabera, 2000-2006 . .	30
5. grafikoa. Espainia: biztanleriaren pisu erlatiboa jatorriaren arabera, 2000-2006 (%)	31
6. grafikoa. EAE: biztanleriaren banaketa jatorriaren arabera, 2000-2006 . .	32
7. grafikoa. Euskal biztanleriak Espainiako biztanlerian duen pisu erlatiboa, nazionalitatearen arabera, 2000-2006 (%)	33
8. grafikoa. EAE: biztanleriaren pisu erlatiboa jatorriaren arabera, 2000-2006 (%)	34
9. grafikoa. Espainia: atzerriko egoiliarren banaketa jatorrizko eskualdeen arabera, 2006	36
10. grafikoa. EAE: atzerriko egoiliarren banaketa jatorrizko eskualdeen arabera, 2006	36
11. grafikoa. Turista kopurua, Espainian eta Euskadin, 1995-2004.	45
12. grafikoa. Eraikuntzaren sektoreak Espainiako eta Euskadiko BPGan duen pisua, 1985-2005 (1980ko oinarria, 1995eko oinarria eta 2000ko onarria; %)	46
13. grafikoa. EAEk Espainiako industriaren negozio-zifran duen pisua, 1993 eta 2005 (%)	48
14. grafikoa. Landunak, guztira eta industrian. Hiruhilekoen balioak, 1976ko IV. -2007ko I. (milakotan)	50
15. grafikoa. Esportazio industrialek EAEko eskaintza industrialean duten pisua, 1995-2004 (%)	51
16. grafikoa. Emakume eta gizonen enplegu-tasak, EB-15en eta Estatu Batuetan, 1995-2006 (%)	54
17. grafikoa. EAEko atzeritarren eta nazionalen banaketa kualifikazioaren arabera (% bertikala)	65

18. grafikoa. EAEko atzerritar lanerako indarraren banaketa jarduera-adarren arabera, 2006	65
19. grafikoa. Etxebizitza-eraikuntza EAEn, 1987-2006	66
20. grafikoa. Jarduera-tasa eta emakume langileen kopurua EAEn (milakotan) .	69
21. grafikoa. EAEko atzerritar lanerako indarraren banaketa, sexuen eta jarduera-adarren arabera, 2006 (%)	71
22. grafikoa. 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren prestakuntza, Biztanleria Aktiboaren Inkestaren batez bestekoa, 2006 (% bertikala).	73
23. grafikoa. EAEko 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren banaketa ehunekotan, kualifikazio-mailen eta jatorriaren arabera, 2006 (%)	75
24. grafikoa. Hezkuntza-gastuaren eta ikasleen banaketa nazionalitatearen arabera (%)	91
25. grafikoa. EAEko biztanleriaren banaketa, adin-tarteen arabera, 2006 (%)	94
26. grafikoa. EAEko gastu sanitario publiko bideratuaren proportzio aurreikusiak, nazionalitatearen arabera, 2006 (%)	95
27. grafikoa. EAEko gastu sanitario aurreikusia (eurotan), 2006.	96
28. grafikoa. Gizarte-laguntza nagusien jasotzaileen kopurua eta atzerritar jasotzaileen kopurua, 2003-2005	103
29. grafikoa. Atzerritarrek euskal gizarte-zerbitzuetan duten parte-hartzea (%) .	105
30. grafikoa. Euskal gizarte-zerbitzuetako gastuaren banaketa, nazionalitatearen arabera (eurotan).	106
31. grafikoa. Gizarte-zerbitzuetan atzerritarrei eta natiboei esleituriko gastu publikoaren ehunekoa, 2004	106
32. grafikoa. EAEko gastu publikoa (milioi eurotan eta %-tan), biztanleriaren nazionalitatearen arabera, 2006.	112
33. grafikoa. EAEko gastu publiko soziala eta zerga-ekarpena biztanle bakoitzeko, nazionalitatearen arabera, 2006 (eurotan)	114

1

Hitzaurrea

1.1. Azterlanaren nondik norakoa

Indarreko metatze-ereduan (hau da, produkzioaren, banaketaren eta kontsumoaren ereduan) gertatutako aldaketetatik abiatuta Erkidegotik kanpoko etorkinek Euskal Autonomia Erkidegoan duten presentzia interpretatzea da azterlan honen **helburu nagusia**, baita immigrazioak Espainiako hazkunde-ereduan oro har eta Euskadikoan bereziki duen funtzionaltasuna erakustea ere. Helburu nagusi hori ez ezik, azterlanak honako **helburu espezifiko** hauek ditu:

- Datu enpirikoak eskura, etorkinei dagokienez iritzi publikoan ageri diren **pertzepzio eta balio-judizio** jakin batzuei aurre egitea. Zehazkiago:
 - Etorkinak lan-merkatuan bertako biztanleriarekin lehiatzen diren edo biztanleria horren osagarri diren ezartzea.
 - Etorkinek gastu publiko sozialean (gizarte-zerbitzuetan, hezkuntzan eta osasunean) eragiten duten inpaktuaren ekarpen garbia aztertzea, zenbat baliabide publiko kontsumitzen dituzten eta baliabide horiek finantzatzeko zer ekarpen egiten duten kalkulatz.
- Etorkinen laneskuari dagokionez etorkizunean izango den premia-
ren aurreikuspen kuantitatiboa egitea, identifikatutako joeren **epe ertainerako proiektzioa** eginez.

Deskribatutako helburuak lortzeko, azterlan ekonomiko bat egin da, honako helburu hauekin:

- Erkidegotik kanpoko etorkinen **inpaktu makroekonomikoa** kuantifikatzea, etorkinek errenta sortu eta banatzeko eremuetan, produk-

zio-prozesuan eta agregazio-eskarian duten inplikazio ekonomiko nagusien bitartez.

- **Egitura demografikoaren** (jaiotzak, adinen osaera eta abar) eraldatzeak ebaluatzea, baita eraldatze horiek lan-faktorearen erreproduzioari begira zer dakarten ere.
- Etorkinek Euskal Autonomia Erkidegoko **barne-produktu gordinari** (BPG) egiten dioten ekarpena kalkulatzeko. Gainera, errenta hori etorkinen artean nola banatzen den erregistratu da, hartara etorkinen aurrezteko eta kontsumitzeko ahalmenak lortzeko.
- Biztanleria langile etorkinak Euskal Autonomia Erkidegoko **lan-merkatuan** nola eragiten duten balioestea, honako alderdi hauei arreta berezia eskainiz: etorkinak zer jardueratan aritzen diren eta enpleguko zer merkatu espezifiko estaltzen dituzten, soldaten egitura, jarduera- eta enplegu-tasa, aldibaterakotasuna, kualifikazioak eta bertako biztanleria langilearekiko lehia.
- Euskal Autonomia Erkidegoko etorkinek sortutako **zerga-balantza** kalkulatzeko, zergadun gisa errentaren, BEZaren eta Gizarte Segurantzaren zergen bitartez diru-kutxa publikoetan sartutako diru kopurutik hezkuntzaren, sanitatearen, asistentziaren eta gizarteratzearen politika publiko jakin batzuen onuradun diren heinean eragindako gastuak kenduz.

1.2. Migrazioak eta egiturazko metatze-ereduaren aldaketa

Lanak, gizarte-aberastasunaren iturburua den aldetik, funtsezko egin-kizuna betetzen du hazkunde- eta garapen-prozesu ekonomikoetan. Aldaketa ekonomiko handiak lanaren sektoretik sektorerako —nekazari-tzatik industriara, industrietatik zerbitzuetara— mugimenduen bitartez nabarmentzen dira, eta, horrekin batera, langileak ere mugitzen dira normalean, jarduera berrietan eskuragarri dauden lanpostuetan aritzeko lekualdatu behar izaten baitute ezinbestean, jarduera horiek urrun egon ohi baitira langeskuak behera egindako jarduerak egiten ziren tokietatik. Horren haritik, langileek sektoretik sektorera eta eskualdetik eskualdera lekualdatzeko duten ahalmena funtsezkoa da produkzio-sistemaren eraginkortasuna hobetzeko.

Hondamendi naturaletatik edo gerretatik eratorritako biztanleria-mugimendu masiboak alde batera utzita, migrazio-fenomeno masiboak hazkunde ekonomiko bizkorrekin eta egiturazko aldaketekin zerikusia duten prozesuen ondorio dira.

Gaur egun 180 milioi pertsona inguru beren jatorrizko herrialdeetatik kanpo bizi dira, hau da, munduko biztanleriaren % 3 inguru bere herrialdeetatik kanpora joan da bizitzera. Arrazoiak askotarikoak dira, baina lekualdatzeen gehiengo zabala lanarekin zerikusia duten arrazoen ondorio da. Eta gauza bera gertatzen da herrialdeen *barruan* gertatzen diren lekualdatzeekin. Horiek metatzearen dinamikatik —biztanleriaren mugikortasun espaziala arautzen duen printzipiotik— eratoritzen dira. Produkzio-egituren mundualizazio- edo globalizazio-prozesua gorabehera, lanaren egituratze espazialak, funtsean, nazionala izaten jarraitzen du, eta, ondorioz, dinamika demografikoak herrialdeen barne-ereduei erantzuten die bereziki. Hala, 114 milioi txinatar nekazaritza nagusi den mendebaldetik eta erdialdetik industrializazio-prozesu azeleratuan murgilduta dagoen ekialdera mugitu izana (Aguirre, 2007) gaur egungo biztanleria-mugimendu handiena da, eta horrek kulturen eta gizartean eragin dituen inplikazioak ez dira nazioarteko biztanleria-mugimenduek eragiten dituztenak baino txikiagoak.

Aurrekoa gorabehera, biztanleriaren nazioarteko dinamikari dagokionez ere metatze-prozesua da erregulatzailer nagusia. Biztanleriaren mugimendu espazialek zerikusi handia izan dute betidanik giza gizarteak osatzeko prozesuetan, hain zuzen ere orain 10.000 mila urte Iraultza Neolitikoa gertatu zenez geroztik. Alabaina, nazioarteko migrazioaren kontzeptu espezifikoak estatu-nazioen sorrerari eta kapitalismoaren garapenari lotzen zaie zuzenean, baita kapitalismoaren lanerako indarraren goranzko premiei eta lan-merkatua antolatzeke sistema espezifikoari ere.

XIX. mendetik XX. mendera bitarteko trantsizioan, Europako eta Asiako hainbat langilek Amerikarako, eta Amerikarako eta Afrikarako bidea hartu zuten, eta migrazio handi horrek 60 milioi pertsona baino gehiagoren nazioarteko lekualdatzea ekarri zuen berekin. Bestetik, Indiako eta txinako 50 milioi pertsona inguruk Asiako hego-ekialderantz eta ekialdeko Afrikarantz jo zuten (Lindert eta Williamson, 2001). Bata eta bestea lanerako indarraren mugimendu masibo horien lehen adibidea dira, eta, XVII. eta XVIII. mendeetako lekualdatze masiboan ez bezala, langile libreen borondatezko eraba-

ki baten ondorio dira, harrera-lurraldeen deiari jarraituz jatorrizko lurraldeetatik irten baitira, soldatapeko lanerako indar gisa jarduteko gehienbat. Lehen mundu-gerraren aurreko urteetan, lanerako indarraren nazioarteko mugimenduen eraginez hiru milioi pertsona lekualdatu ziren urtean. Nolanahi ere, 1820ko hamarkadatik esklabo-trafikoa soldatapeko lanerako indarrarekin ordeztu zen nazioarteko mugimendu gehienetan, baita Asiako eta Amerikako sail handietan egin beharreko lanari dagokionez ere (O'Rourke eta Williamson, 2000).

Gaur egungo munduan, nazioarteko migrazioek eragiten dituzten indar nagusiak 3 arlotan (*garapenean*, *demografian* eta *demokrazian*) gertatzen diren aldeetatik eratortzen dira; arlo horietan aldeek gora egiten duten bitartean migrazioek ere goranzko joerari eutsiko diote. Enplegua da migrazio-fenomenoaren azpian dauden egiturazko elementu garrantzitsuenetako bat, eta funtsezkoa da herrialdeen artean gertatzen diren lekualdatzeetan. Gure herrialdeetara iristen diren etorkin gehienak lan bat aurkitzeko irrikaz etortzen dira, horri esker haientzat eta haien familientzat funtsezko diru-sarrerak lortuko dituztelakoan, lanak jaioterrian geratu diren ahaideei dirua modu erregularrean igortzeko aukera ere ematen diela aintzat hartuta.

Migrazioak nazioartekoak badira, badago beste faktore bat migrazio horiei ezaugarri bereziak esleitzen dizkiena: egiturazko alde handiak ageri ohi dira etorkinen jatorrizko herrialdeen garapen-mailen eta lanerako indar berria hartzen duten herrialdeen garapen-mailen artean. Faktore horrek gizarte-harreman berriak sorrarazten ditu, hala nola inpaktu kulturalak harrera-herrialdeetan eta aldaketak jatorrizko herrialdeetako etxeko ekonomien erreprodukzio-baldintzetan; baita inpaktu ekonomikoak ere, jatorrizko herrialdeetan. Azken aldaketa horiek honako hauen ondorio dira, bereziki: batetik, giza baliabideak galdu dira, haietan tokiko kapital sozialaren zati bat inbertitu ondoren (adituen ihesa), eta, bestetik, langile etorkinek bidalitako diru-kopuruek tokiko ekonomian eragiten dute.¹


¹ Azterlan berri batek (Özden eta Schiff, 2007) Hegotik Iparrerako migrazioen eta diru-bidalketen ondorioak aztertzen ditu. Besteak beste, etorkinen jatorrizko herrialde, eskualde edo familietan honako inpaktu hauek eragiten dituztela ematen du aditzera: pobrezia murriztea, eskolatzeta-maila eta hezkuntza-lorpenak handitzea, osasuna hobetzea, inbertsioa handitzea eta emankortasun-tasak txikitzea eta abar.

Batzuetan, nazioarteko etorkinen presentziak eragindako aldaketa kulturalen garrantzia handiesten da. Herritarrak migratzera bultzatzen dituzten faktoreak —nola jaioterritik kanporatzen dituztenak (*push* faktoreak) hala helmugaren erakargarritasunarekin zerikusia dutenak (*pull* faktoreak)— aztertuz gero, honako ondorio hau ateratzen da: globalizazioak, besteak beste, kapitalismoak bizi-itxaropenak eta portaera-ereduak izugarri homogeneizatu dituela adierazten du (ikus 1. irudia). Hala, munduko biztanleriak konparazio-eredu batzuk ezartzen ditu herrialde nagusietako langileen baldintzetan oinarrituta, eta eredu horiek bizi-eredu bihurtzen dira. Lanaren eta produkzioaren prozesuaren, aisiaren eta kontsumoaren prozesuaren eta segurtasun-sareen inguruan egituratzen da bizi-eredu hori, eta mundu osoan harreman kapitalisten eraginpean dagoen lanerako indarrak hura du jomugan. Soldatapeko lana orokortzea kultura homogeneizatzeko faktore nagusia da, lana —eta lanaren modalitateak, edukiak eta ingurumen-baldintzak— baita jarduera garrantzizkoena gizartearen kultura eraikitzeke prozesuan.

Beraz, munduko biztanleria gehienak, funtsean, ezaugarri kultural berberak ditu, urbanizazio-prozesu batetik igaro denak bereziki. Kulturen arteko alde nabariak honako bi arlo hauetan gertatu dira: batetik, ohitura jakin batzuetan (elikadura, ordutegiak, gustu musikalak eta abar), eta, bestetik, sinismen sendoeekin (erlijiozkoak, sineskeriak eta abar) zerikusia duten egituraz gaindiko portaera kulturaletan.

1. irudia

Migrazioan eragiten duten faktoreak



Iturria: <http://en.wikipedia.org/wiki/International_migrations>

Hori dela-eta, jarrera xenofoboak produkziogunetik kanpoko bizikidetzan ageri dira, lanetik kanpoko denboran, babeserako eta nork bere burua eta taldea berresteko mekanismo gisa, produkzio-harreman kapitalistek izugarri desegituratutako taldeetan, hau da, langile-klasean bereziki.

Kapitala produzitzeko prozesuaren barnean, aldiz, etorkinen lanekuaren eskaintza lan-merkatuaren segmentazioa indartzeko mekanismo gisa erabiliko da, kapitalaren aldeko soberakinaren birbanaketa errazteko. Kontua ez da langile etorkinei uko egitea, produkziogunean botereguneak emateari uko egitea baizik. Etorkinek lan-munduan jasaten duten diskriminazioa emakumeek jasaten dutenaren antzekoa da: emakumeak eta etorkinak botere-koadroaren hierarkian zenbat eta gorago egon, orduan eta traba gehiago jartzen zaizkio haien lan-promozioari. Arrazoia aurrez aipatutako berbera da: bi talde horiek lanean lehia eta segmentazioa handitzeko baliatu nahi dira. Eta bi kasuek erantzun berbera eskatzen dute: eraginpeko taldearen sustapen espezifikora bideratutako erabaki politikoak ezarri behar dira.

Etorkinak beren hiri eta udalerrietan nola laneratzen diren, okupazio-piramidean duten tokia eta lan-merkatuan betetzen duten eginkizuna, eta horrek guztiak harrera-gizartean eragiten dituen ondorioak; faktore horiek guztiek harreman sozioekonomikoen eredu izugarri garrantzitsua osatzen dute gure gizartean. Lan bat edukitzeak, eta lan- eta/edo lanbide-jarduera bat garatzeak, halaber, bakoitzak bizi den eta elkarreragiten duen gizartean benetan parte hartzea ahalbidetzen du, baita horren parte sentitzea, eta, ondorioz, hartan integratzea ere; hortaz, gizarte-eginkizun nabaria betetzen du.

Txosten honetan Euskadiko lanerako indar etorkinaren erabilerari buruzko ezaugarri espezifikoak aztertzen dira, langile horiei zuzendutako makropolitikak eta mikropolitikak zehaztea ahalbidetuko duen esparru bat ezarri ahal izateko. Orobat, zerbitzu publikoen prestazioari lotutako zerga-balantzak aztertzen dira, langile etorkinek, gainerako langileek bezala, konsumitzen dituzten zerbitzuak finantzatzen dituztela erakusteko;² areago

² Sei herrialde garatuentzat (Alemania, Australia, Kanada, Estatu Batuak, Erresuma Batua eta Suedia) eginiko azterlan batean, Anwar Shaikh-ek (2003) honako hau frogatu du: herrialde guztietan —Erresuma Batuan izan ezik, berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran eta hirurogeiko hamarkadaren hasieran— langileen zergak eta kotizazioak dira zerbitzu publikoak finantzatzen dituztenak, eta, hori ez ezik, kapitalaren eraginkortasuna hobetzera bideratutako gastu publikoaren zati bat ere finantzatzen dute.

oraindik, zerbitzu horien finantziazioari ekarpen garbi positiboa egiten diotela nabarmentzeko.

1.3. Erkidegotik kanpoko immigrazioaren ezaugarri ekonomikoak, eskuragarri dauden azterlanen arabera

Erkidegotik kanpoko immigrazioari dagokionez, lehenik eta behin nabarmentzekoa da bereziki lanerako indarrari lotzen zaiola, azken hamarkadan Erkidegotik kanpoko etorkin gehienek arrazoi ekonomikoak direla medio hartu baitute Espainiarako bidea. Funts ekonomikoa izanagatik ere, migrazio-fenomenoak zenbait diziplina zientifikoren azterketa eskatzen du. Demografiak biztanleria-mugimenduak erregistratzen ditu; soziologiak etorkinei buruzko balioak, diskurtsoak eta gizarte-egitura aztertzen ditu; psikologiak etorkinen eta etorkinen familien buru-gaitz nagusiak ikertzen ditu, eta medikuntzak, berriz, gaitz fisiologikoak; zuzenbideak atzerriartasun-antolamendu juridikoa lantzen parte hartzen du... Hala, migrazio-fenomenoa hobeto ulertzeko, fenomeno hori diziplina arteko ikuspegi batetik aztertu behar da, beste gizarte-fenomeno batzuekin gertatzen den bezala.

1.3.1. Nazioarteko migrazioei buruzko azterlan ekonomikoak

Ekonomiak ere bere tokia bilatzen du jarduera edo produkzio zientifiko horretan. Diziplina ekonomikotik abiatuta, hainbat lan eta azterlan egiten ari dira migrazio-mugimenduen inpaktua aztertzeko, eta hortik migrazioen ekonomia deituriko ikerketa-adarra sortzen ari da. Gurea baino migrazio-esperientzia handiagoa eta luzeagoa duten herrialdeetako (Estatu Batuak, Kanada, Australia, Frantzia, Suedia eta Alemania) akademikoak bidea urratzen ari dira arlo horretan. Bereziki, honako autore hauen lanak azpimarritu behar dira: G. Borjas (1994, 1999, 2001, 2003), G. Steinmann eta R. E. Ulrich (1994), J. Hunt (1992), D. Blanchet (1997), D. Card (1990), J. Denew eta K. Zimmermann (1994), J. Pischke eta J. Velling (1997), J. Ekberg (1999), R. Fakiolas (2001), K. Storesletten (1999) eta P. Whiteford (1991). Horiei guztiei ELGak —lan-merkatuari buruz bereziki— eginiko txostenak (1999, 2000, 2001, 2002, 2006, 2007) erantsi behar zaizkio.

Migrazioen ekonomiak honako alderdi nagusi hauek aztertu ohi ditu bereziki: migrazioek balioaren eta produktibitatearen sorreran duten eraginak, zerga-sisteman dituzten eraginak, eta lan-merkatuan eragiten dituzten ondorioak.

Balioaren eta produktibitatearen sorrerari dagokionez, ikerketa eta azterlan horien bitartez zera kuantifikatu nahi da, etorkinek errentaren sorreran zenbaterainoko ekarpena egiten duten, baita errenta hori bere osagarrien artean —aurreztean, kontsumoan eta administrazio publikoen finantziazioan— banatzerakoan zenbaterainoko ekarpena egiten duten ere. Bestetik, funtsean etorkinen lanaren ondorio den balio- edo errenta-sortze horrek beste fenomeno bat dakar berekin, hots, etorkinak kontsumo-merkatura biltzen dira, eta horrek gainerako sektore ekonomikoei ere eragiten die, etorkinek sektore horien zerbitzuen beharra baitaukate aipatutako eskariaren produkzioa aurrera eraman ahal izateko. Behin sortutako errenta zenbatu ondoren, azterketa guztiei per capita errenta eta ondoriozko produktibitatea eransten zaizkie normalean.

Fiskalitatearen eremuan, migrazioen ekonomiaren produkzio zientifikoa kalkulatzeko, etorkinek sektore publikoarentzat dakartzaten gastuak eta diru-sarrerak aurreikusi behar dira, etorkinak bizitza ekonomikoaren eragile osagarria diren aldetik. Azterlan horiek manipulatzeko dira, askotan, zenbait polemika politikoren inguruan aurrez aurre ipinitako diskurtsoak babesteko edo diskurtso horiei aurre egiteko. Besteak beste, honako hauek izaten dira eztabaidarako gaiak: immigrazioaren komenentzia, Estatuak ongizatearen arloan (gizarte-babesa, hezkuntza, sanitatea) egiten dituen jardunen aurrekontu-iraunkortasuna eta pentsio publikoen sistemen iraunkortasuna. Bestetik, bi metodologia bakarrik erabiltzen dira etorkinek kontu publikoetan eragiten duten inpaktua aztertzeko. Lehen metodologia honela labur daiteke: ekitaldi ekonomiko jakin batean, biztanleria etorkinari egozten zaizkio, batetik, sistema guztietan (sanitatea, hezkuntza, gizarte-asistentzia, azpiegituren gastua eta abar) izan duten parte-hartzearen ondoriozko gastu eta transferentzia publikoak, eta, bestetik, haien jarduera ekonomikotik eratorritako diru-sarrerak publikoak, hala nola errenta pertsonalaren zerga, kontsumoaren balio erantsiaren gaineko zerga, tasak, lan-arloko kotizazioak eta abar. Bigarren metodologiari «be-launaldi-kontabilitatea» deitzen zaio, eta, horren arabera, etorkinen bizitza osoko gastuen eta zerga-arloko diru-sarrearen balioespina egiten da ber-

takoenen aldean jarritz, ustez parte hartuko duten ekitaldi ekonomikoen batez besteko agregazioa eginez.

Azkenik, migrazioen ekonomiak badu beste ikerketagune bat: **lan-merkatua**. Beren bizi-kalitatea hobetu nahi duelako edo diru-sarrerak lortu nahi dituelako ekiten dio jendeak normalean migrazio-esperientziari, eta, bi helburu horiek lortzeko, lan-merkatuan sartzea izan ohi dute ezinbesteko bitartekoa. Beraz, etorkinak txertatzen diren lan-merkatuaren ezaugarriak, etorkinek bertan betetzen duten zeregina eta etorkinen presentziak dakartzan aldaketak, guztiak ere interesgarri dira ekonomiaren diziplinarentzat. Horien artean honako hauek daude: lan-jardueraren maila, langabezia-maillak eta enplegu-aukerak, lan-baldintzak, aldibaterakotasuna, irregulartasun-egoerak, enplegu-aniztasuna, egindako aparteko orduak, garatutako jarduerak eta lanak, jasotako ordainsariak, lan-ezbeharren tasa eta parte-hartze sindikala.

Migrazioen ekonomiari buruzko produkzio zientifikoa gorantz doa, baina zenbait muga aurkitzen ditu bidean. Lehenik eta behin, aztergaiaren xede diren etorkinak identifikatu behar dira. Pertsona bat etorkina ote den zehaztea ez da erraz objektibizatu daitekeen zerbait, askotan atzerritarra izatea ez baita nahikoa etorkina izateko. Etorkinak bereizteko beste ikuspegi subjektibo batzuk erabili ohi dira, pertsonen gizarte-hierarkizazioko prozesuetan amaitzen direnak, esaterako. Bestetik, ez dago nazionalitate kategoria biltzen duen iturri espezifikorik, eta hori ere muga da, aztertutako biztanleriei fenomeno ekonomikoak esleitzea oztopatzen duelako; hortaz, aurreikuspen-metodologietara eta bigarren mailako iturrietara jotzea beste erremediorik ez da izaten normalean.

1.3.2. Espainiako nazioarteko migrazioei buruzko azterketa

Gure herrialdeak atzerriko pertsona ugari hartu berri ditu, eta, horren ondorioz, gizartea eta komunitate zientifikoaren diziplina guztiak migrazio-fenomenoari begira jarri dira. Ekonomia ere ez da alde batera geratu, eta hala, azken urte hauetan, migrazio-fenomenoa deskribatu eta aztertzen duten azterlan ugari argitaratu dira.

Batetik, nabarmentzekoa da Espainiako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak etorkinak lan-merkatuan sartzearen inguruan azaldu duen kezka. txosten espezifiko batean (EGK, 2004) zein urtetik urtera argitaratu dituen azken

txosten sozioekonomikoetan (EGK, 2007), biztanleria etorkinaren egoerari buruzko aipamenak biltzen dira. Funtsean, Espainiako lan-merkatu osoaren diagnostikoa aztertzen da langileen nazionalitateari dagokionez: jarduerata eta landunen tasa, eta jarduera eta lan jakin batzuen kontzentrazioa. txosten horiei dagokienez, nabarmentzekoa da Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak kontrataziorik eza eta ezkutuko ekonomien fenomenoak aipatu izana; txostenetan adierazten denez, horrek biztanleria langile osoaren eskubideak murriztea dakar, baita eragile enplegu-emaileen arteko lehia desleiala eta zerga-sistemari iruzur egitea ere. Azken urte hauetan, emakume ugari sartu dira lan merkatuan, eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak fenomeno hori aintzat hartu du Espainiako lan-egoerari buruzko beste tesi bat egiteko. Hain zuzen ere, azken fenomeno horrek zera ekarri du berekin, emakumeek betidanik eskaini dituzten eta eskaintza publikoak hornitu ez dituen zerbitzuen (ahaide eta haurren zaintza pertsonala, etxeko lanak) eskariak gora egitea. Azken urte hauetan, emakume etorkinek zeregin horien ardura hartu dute neurri handi batean, bestelako baldintzetan hartu ere.

Aipatzekoa da Caixa Catalunya erakundearen Azterlan Zerbitzuak 2006an eginiko lana, oihartzun mediatiko handia lortu baitzuen.³ Txosten horretan, Espainiako eta nazioarteko ekonomia zertan den azaldu ondoren, azken urteetan (1995-2005) Espainian BPG per capitak izan duen hazkundera deskribatzen zen, eta, horren haritik, hazkunde horrek landunen tasaren hazkundearekin zerikusi handia zuela adierazten zen. Azken bi bosturtekoetan Espainiaren demografia hazi da, bereziki etorkinak hartu dituelako, eta hazkunde horretatik eratorri da, hain zuzen, landunen tasaren hazkunde hori. Aldez aurreko beste azterlan batetik eratorritako erregresio-eredu bat erabiliz (Bloom eta Williamson, 1998), Espainiako biztanleria-hazkundera eta BPG per capita lotzen zituen, biztanleria aktiboa bereziki lan egiteko adinean dauden eta lan egin dezaketen pertsonak osatzen baitute, eta pertsona horiek, lan-merkatuan sartzearekin batera, produkzio-balioa sorrarazi dutelako, baita hazkunde berriak eragin dituztelako ere, produkzioari, errentari eta landunen tasari dagokienez. Azken emaitza gisa, BPG per capitak % 0,64 atzera egingo zukeela kalkulatu zen, baldin eta azken urte hauetan Espainiak atzeritarrik hartu ez balu.

³ «La renta 'per cápita' hubiera caído un 0,6% anual en la última década sin los extranjeros», *El País*, 06/08/29; «La incorporación de inmigrantes evita que la economía española retroceda desde 1995», *El Mundo*, 06/08/29.

Oihartzun handia lortu du, halaber, Gobernu espainolaren ekonomialari aholkulari Miguel de Sebastián jaunak egindako azterlanak (Presidentearen Bulego Ekonomikoa, 2006). Azterlan honek dakarren berritasun handiena zera da, immigrazioak Espainiako ekonomiaren kontu korrontearen araberako balantzan duen eragina kalkulatzeko du (defizitaren % 30 inguru), diru-bidalketen transferentziak, etorkinek etorkizunari begira dituzten errenta-itxaropenak eta ekipamendu-ondasunen inbertsioaren eta erosketaren aktibazioa aintzat hartuta (immigrazioak kapital-lana erlazioan eragindako goranzko aldaketak zerikusia du horretan). Azterlanak, halaber, immigrazioak sorrarazitako zerga-balantzaren kalkulua egiten du, emaitza positiboak, eta, hori ez ezik, denbora proiektzio bat ere barne (kontabilitate-arloari bakarrik dagokio aurreikuspen hori). Orobat, lan horretan azken urteetako (1996-2005) immigrazioak BPGan zenbaterainoko inpaktua eragin duen kalkulatu da, eta urteko batez besteko hazkundearen % 30 esleitu zaio.

BBVA Fundazioko Raquel Carrascok, Juan Francisco Jimenok eta Ana Carolina Ortegak (2006) Espainian migrazioen ekonomiaren arloan egin diren lan nagusietako bat burutu dute. Migrazio-fenomenoak biztanleria natiboaren enplegu-tasetan eragiten duen inpaktua aztertzen du lan horrek. txosten horrek lanaren eskaintzaren eta eskariaren eredu estatikoa egiaztatu nahi du immigrazioari dagokionez. Horren arabera, immigrazioaren eraginez biztanleria hazten bada, enplegua hazten da, baina biztanleriak baino neurria txikiagoan, eta, ondorioz, langabezia-tasa handitzen da eta soldatek behera egiten dute. 1993tik 1999ra bitarteko⁴ biztanleria-datuak, adinei, sexuari eta jarduera-sektoreei buruzko zenbait erregresio aplikatuz, autoreek atzeman dute lan-eskaintza etorkinaren *shock*ak eta immigrazioaren *shock* demografikoak eragin negatiboa dutela natiboen enplegu-tasetan; nolana ere, oso garrantzi txikia duela uste dute. Bestetik, aztertutako denboraldia laburra izateak ateratako ondorioak mugatu egiten dituela uste dute, epe luzera begira merkatuek malgutasun handiagoa erakusten dutelako kanpo-inpaktuekiko.

⁴ Ezin izan zuten soldatei buruzko daturik erabili, eskura ez zutelako. erregresio ekonometrikoaren lana egiteko, jarduera-sektoreak hartu zituzten aintzat, zehazpen espazialekin zerikusia duten bestelako multzoen ordez, Ameriketako Estatu Batuetan aldeztu aurretik beste azterlan batzuetan egin den bezala, subjektuak enplegu-egoera espezifikoan aurki daitezkeelako toki-eremu batean, toki batetik bestera mugituz.

Espainiako —eta, zehazkiago, Kataluniako— lan-merkatuari buruzko azaleko azterketa egiten badu ere, Miguel Pajares jaunak berriki egindako azterlana ere (2007) kontuan hartzekoa da (Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren Immigrazio Behatoki Iraunkorraren azterlanen bilduman jasota dago azterlan hori). Azterlan horretan ahalegin handia egiten da, halaber, langile natiboen eta atzerritarren enplegu- eta soldata-baldintzak bereizteko, jarduera-sektoreak eta egindako lanak kontuan hartuta. Horren emaitza nagusien arabera, ez dirudi langile natiboen eta atzerritarren artean lehiarik dagoenik; aitzitik, immigrazioak langile natiboei mesede egin die, maila handiagoko lanbideetarantz eta etekin handiagoko jardueretara mugitu direlako ekonomia-arloan azkenaldian nabari den hazkundealdian.

Rosa Apariciok eta Andrés Tornosek Espainiako migrazioen ekonomiari buruz egindako azterlana ere kontuan hartzekoa da (2000). Azterlan horretan, immigrazioaren zerga-balantzaren deskonposizioa egin da, eta etorkinek BPGari egiten dioten ekarpena aztertu da, beren kontsumo pribatua edo jasotako errenta kalkulatz.

Josep Oliver jaunaren zuzendaritzapean Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko ikerlari taldeak Espainiako immigrazioa eta ekonomiaren azterketari buruz egindako lanek ere aipamen berezia merezi dute (2006a, 2006b, 2006c). Talde horren lanak azken urte hauetan Espainian gertatu diren eraldatze demografikoetan eta horrek lan-merkatuan (zehazkiago, jardueraren, enpleguaren, landunen eta langabeziaren tasetan) eragin dituen inplikazioetan oinarritzen dira. Honako tesi honetatik abiatzen dira: *baby boom* belaunaldiko kide guztiak lan-merkatuan sartu ondoren, hurrengo adin-taldeen txanda iritsi zen, eta lan-merkatuak emakume gehiagoren, eta, ondoren, atzerritarren, premia nabaritu zuen, hazten ari zen merkatua giza baliabideez hornitzeko, hedatzen ari ziren sektoreek laneskuaren erabilera intentsiboa egiten zutela aintzat hartuta.

Nolanahi ere, Espainiaren kasuan, biztanleria etorkina lan-merkatuan —eta gizartean oro har— sartzeari eta egokitzeari dagokienez, nabarmentzekoa da aldakortasun eta desberdintasun handiak nabari direla autonomia-erkidego eta probintzien arabera, baita autonomia-erkidego eta probintzien barnean ere. Hala, etorkinen proportzioan izugarritzko desberdintasuna nabari da, aztertzeiko bestelako adierazleak erabili arren: erroldatzea, egoitzabaimenak, gizarte-segurantzaren lan-altak, edo enplegu-zerbitzu publikoetan izena emanda egotea, langabeziako prestazio edo sorospenen eskatzaile

edo hartzaile gisa. Horren guztiaren ondorioz, etorkinek Espainiako ekonomia- eta lan-sektoreetan duten presentzia irregularra eta heterogeneoa da, baita lan-irregularitasunaren proportzioaren tamaina ere. Beraz, ohar orokor batzuk egin daitezke biztanleria etorkinak Espainia osoaren lan-arloan duen tamainaren inguruan, baina zehaztasun handiagoz jokatu behar da autonomia-erkidego eta probintzia bakoitzaren ondorioak ezartzerakoan. Horregatik, fenomenoak ulertzeko ezinbestekoa da autonomia- edo toki-eremua soilik aintzat hartuta burutu diren azterlan guztiak kontuan hartzea.

Madrilgo Erkidegoaren kasuan, Ekonomia eta Berrikuntza Teknologikoko Kontseilaritzak argitaratutako bi azterlan nabarmendu behar dira. Lehen, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko talde batek (García Ballesteros eta Sanz Berzal, 2004) egina, atzerritarrek Madrilgo Erkidegoan duten parte-hartzean oinarritzen da. Horren ekarpen nagusia: lan-merkatu dualizatua deskribatzen du, ordainsari txikiko eta kualifikazio urriko jarduera jakin batzuen ordezte-eraginak bereizita: orain artean, bertakoek hartzen zuten jarduera horien ardura; gaur egun, aldiz, etorkinek egiten dituzte. Madrilgo Unibertsitate Autonomoko ikerlari talde batek (Mahía, 2006) burutu du bigarren lana. Hartan, migrazioen ekonomiari buruz egin diren azterketa nagusien iturrien eta esparru teorikoaren errepeaso zabala egiten da, eta, gainera, hainbat aipamen biltzen ditu lan-merkatuaren, balio-sorreraren (*input-output* taulen bitartez) eta zerga-balantzaren (belaunaldi arteko kontabilitate-eriketa baten antzera ekitaldi ekonomiko jakin bati atxikitako kontabilitate baten bitartez) inguruan; horren arabera azterlan zoragarria dela esan dezakegu. Lan honetan honako tesi hauek nabari dira: batetik, atzerritar laneskua eskaintza eta soldatei eustea lagungarri dira inflazio-prezioak geldiarazteko, eta horrek hazkunde handiagoa dakar; eta, bestetik, lanesku merkean oinarritutako hazkundeak ez du produktibitatea hobetzea errazten.

Madrilgo Udaleko Ekonomia eta Herritarren Parte-hartzerako Gobernu Arloko Behatoki Ekonomikoak aldizka argitaratzen duen Ekonomia Barometroaren ale batean bildutako azterlana (2005) ere kontuan hartzekoa da, Madrilgo Erkidegoari dagokionez. Hartan, lan-merkatuaren aldaketa jakin batzuk aztertzen dira, atzeritar langileek Madrilgo hirian egiten dituzten jardura eta lanei dagokienez, esaterako, eta horien soldata-masa kalkulatu da. Orobat, Madrilgo hiriko atzeritar biztanleriari dagokion barne-produktu gordina ere kalkulatu da.

Nafarroako Foru Komunitatean ere ereduzko azterlan bat egin dute (Nafarroako Gobernua, 2005). Azterlan horrek Nafarroako aldaketa demografikoak deskribatzen ditu, bertako lan-merkatua eta zerga-balantza aztertzen ditu eta immigrazioak lan-merkatuan eragiten duen inpaktuari heltzen dio. Nafarroako lan-merkatuaren azterketari dagokionez, nabarmentzekoa da hobe-kuntza sozioekonomikoaren ibilbideak deskribatzen direla. Lana aldatuz garatzen dira ibilbide horiek, enplegu hobeak jomugan, eta emakume etorkinen artean eta nazionalitate jakin batzuetan neurri txikiagoan nabari dira.

Valentziako Erkidegotik Clemente Hernández jaunak Carlos Gómez Gil jaunak koordinatutako liburuan bildutako kapitulua nabarmendu behar da (Hernández, 2005). Lan horretan ere azterketa laburra egiten da, lan-merkatuaren, etorkinek Valentziako Erkidegoaren BPGari eginiko ekarpenaren eta etorkinen zerga-balantzaren inguruan. Nolanahi ere, immigrazioak merkatuetan eta ekonomian eragiten duen inpaktuari buruzko esparru teorikoa da funtsezkoena.

Andaluzian lan bakarra egin da (García, Valera eta Osuna, 2006). Hartan, Andaluziako etorkinen zerga-balantza kuantifikatzen da, belaunaldi arteko kontabilitatearen metodologia erabiliz.

Euskal Autonomia Erkidegoan, berriz, bi dira ekonomiari lotutako migrazio-fenomenoa aipatzen duten lanak. Lehenen Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak eginiko lana da (Lanbide, 2003). Hartan, Langain eta INEMen enplegua eskatzen duten atzerritarren profilak zehazten dira (prestakuntza, sexua, nazionalitatea, eskualdea, jarduerak, lan-esperientzia), baita 2003aren aurreko urteetan atzerritarrei eginiko kontratazioak ere. Bigarrena, berriz, Euskadiko Kutxaren Azterlanen Departamentuak egin du (Euskadiko Kutxa, 2006), eta hartan migrazio-fenomenoaren aldagaia erantsi da EAEko pensio-sistemaren iraunkortasuna aurreikusteko.

Oro har, eskuragarri dauden azterketek eskaintzaren ikuspegitik heltzen diote immigrazioaren fenomeno ekonomikoari, etorkinen inpaktua errenta-fluxuen eta kontabilitate-fluxuen arabera neurtuz. Nolanahi ere, esan beharra dago oraindik ez dela zehaztu immigrazioak ekonomiaren egiturazko portaeran betetzen duen zeregina, metatze-ereduan sortzen ari diren aldaketei loturik. Horrelako azterketak egitea ezinbestekoa da migrazio-prozesuari dagokionez ikuspegia egoki batez jabetzeko, fluxu eta joera kuantitatiboen karakterizazio funtzionala gaintuz, epe luzera ahalik eta politikarik eraginkorrenak aurrera eraman ahal izateko.

2


Euskadiko immigrazioa interpretatzeko eredu bat (1995-2006)

2.1. Immigrazioa egiturazko aldaketaren adierazpen gisa

Mende berriaren lehen hamarkadan izugarrizko hazkundera gertatu da Espainiako ekonomiaren landunen bolumenean, eta horrek ekarri du lan-gile landunen kopurua ia-ia bikoiztea aurreko belaunaldiaren aldean (25 urte). Izugarrizko hazkunde hori 1997an abiatu zen, eta azken hamarkadan sei milioi lanpostutik gora sortu dira (6.235.598).

1. grafikoa

Espainian Gizarte Segurantzari afiliatutako landunen kopuruaren bilakaera, 1980-2006 (milakotan)




Iturria: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa eta geuk landutakoa

Bilakaera ori orokorra dela esan daiteke, autonomia-erkidego edo probintzien arabera bestelako inpaktu-mailak atzeman diren arren. Hortaz, Euskadin 2006aren amaieran Gizarte Segurantzari afiliatutako landunen kopuruaren aldakuntza-tasa, 1996 amaitzean zeudenak baino % 36,3 gehiago. Hala eta guztiz ere, Euskadin enplegua motelxeago hazi da estatuaren batez bestekoa kontuan hartzen badugu.

2. grafikoa

Espainian eta Euskadin Gizarte Segurantzari afiliatutako landunen kopuruaren aldakuntza-tasa, 1983-2006 (%)




Iturria: Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioa eta geuk landutakoa

Laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) ordaindutako lana dutenen kopuruak marka historikoa ezarri du urtetik urtera. 2006an 161.000 emakume gehiago aritzen ziren ordaindutako lanetan 1996an baino, eta 106.000 gizon gehiago baka-rrik.

Lanerako indarraren eskaria hazi ahala, laneskua «inportatu» behar izan da, ezinbestean. Nolanahi ere, zenbait gizarte-sektoretan irudi sustraitua lortu duten arren, esan beharra dago etorkinak iritsi direnerako enplegua hazten hasia zegoela bertako biztanleriak lanerako indarraren eskariari eran-

3. grafikoa

EAEn sortutako enplegu berriak eta enplegu horietan aritzen diren
langileen nazionalitatea, 2000-2006



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa


tzuteko zuen ahalmenaren gainetik. 2006an 26.675 enplegu sortu ziren; horietatik 20.350 langile espainolentzat izan ziren, eta 6.325 bakarrik atzerri-tarrentzat.

1999tik 2006ra bitarte EAEn ordaindutako 169.860 enplegu berri sortu dira; langile natiboek 124.121 hartu dituzte, eta etorkinek, berriz, 45.379 (% 27). Beraz, langile natiboek hartu dituzte lanpostu gehienak, aldaketa bizkorrena langile etorkinen artean gertatu bada ere: 1999an 3.661 ziren, eta kopuru hori 13,5ez biderkatu da; horrenbestez, 2006an langile etorkinak 49.400 dira.

Azken urte hauetan emakumeak oso bizkor sartu dira lan-merkatuan, eta horixe da, hain zuzen, lan-merkatuan gertaturiko aldaketa nagusietako bat. 1999-2006 aldiko 169.860 enplegu berrietatik 118.755 emakumeentzat izan ziren, eta horietatik 24.185 atzerritarrak ziren. Euskadin 2005etik 2006ra bitarte sorturiko 26.675 enpleguetatik 20.425 emakumeek hartu dituzte, eta horietatik 4.375 atzerritarrak dira.

4. grafikoa

Espainia: biztanleriaren banaketa jatorriaren arabera, 2000-2006



Iturria: Biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

Fenomeno horrek aldaketak eragin ditu gizarte-portaeretan eta ordaindu gabeko etxeko lanaren banaketan; bereziki, gero eta gehiago dira etxeko zereginetan aritzen diren soldatapeko emakumeak.

2.2. Immigrazioa aldaketa demografiko nagusi gisa


Azken hamarkadetan Espainiaren demografian inpaktu handiena eragin duen fenomeno honako hau da: epe laburrean, Europako Erkidegoaren kanpotik lanerako indar masiboa iritsi izana.

Immigrazioak goitik behera aldarazi du demografiaren errealitatea, biztanleria-geldialdi erlatibo batetik erabateko hazkunde azkarrera igaro baita. 2000tik 2006ra bitarte, Espainiako biztanleria 4,2 milioi pertsonatan igo da, % 10,4 2000ko biztanleriaren aldean. Herritar berri horietatik 3,2 milioi atzerritarrak dira.

Azken urte hauetan, Espainiako biztanlerian aldaketa handia gertatu da, ia-ia soilik kanpotik etorritako atzerritarren fluxuen ondorioz, 5. grafikoa ikusten den bezala.

5. grafikoa

Espainia: biztanleriaren pisu erlatiboa jatorriaren arabera, 2000-2006 (%)



Iturria: Biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

2.2.1. *Immigrazioa eta demografia Euskadin*


Euskadiren bilakaera demografikoa Espainiaren portaera-ereduaren oinarritzko joeren barruan dago; nolanahi ere, eredu horrekiko aldaketa batzuk ageri dira.

Izan ere, EA Eren bilakaerak biztanleria-atzerakadarako joera argia erakusten zuen, eta ez geldialdi demografikorako joera. Etorkinak iritsi izanak joera hori aldatzea ekarri du. Hala, euskal biztanleria 29.314 pertsonatan jaitziko zela aurreikusten bazen ere, 64.402 atzeritarrek galera hori konpentsatu dute, eta horrenbestez, 35.088 biztanleko emaitza garbia lortu da. Pertsona kopuru hori 2000ko biztanleriaren % 1,7 baino ez da, baina XXI. mendeko migrazio-fenomenoaren aurreko joerek adierazitako egoera —hondatze sozioekonomikoa, biztanleria-galera absolutuari lotua— aldarazten du.

Migrazio-fluxu berriek inpaktu txikiagoa izan dute, eta, horren ondorioz, fluxu horiek bestelako parte-hartzea izan dute biztanle-kuotetan Espainia osoaren aldean. 7. grafikoa erakusten denez, azken bosturtekoan

6. grafikoa

EAE: biztanleriaren banaketa jatorriaren arabera, 2000-2006



Iturria: Biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

1. taula

Aldakuntza biztanlerian, 2000-2006


Lurraldea	Biztanleria-igoera	% 2000aren aldean	Espainiako nazionalitatea		Atzerriko nazionalitatea	
			Espainian jaiotakoak	Atzerrian jaiotakoak	Espainian jaiotakoak	Atzerrian jaiotakoak
Espainia	4.209.173	10,4	747.972	240.915	96.038	3.124.249
EAE	35.088	1,7	-37.463	8.149	-400	64.802
Araba	15.429	5,4	1.204	1.186	616	12.423
Gipuzkoa	12.525	1,8	-9.145	4.283	-1.733	19.120
Bizkaia	7.134	0,6	-29.522	2.680	717	33.259

Iturria: Biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

nazionalen kopuruak jaisteko kopuruari eutsi dio; atzerritar biztanleriak ber-
riz, zenbait gorabehera dituen arren, maila bati eusten dio, eta nazionalek Es-
painiako biztanleria osoan duten pisu erlatiboaren erdia da gutxi gorabehera.

7. grafikoa

Euskal biztanleriak Espainiako biztanlerian duen pisu erlatiboa,
nazionalitatearen arabera, 2000-2006 (%)



Iturria: Biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

Lurralde historikoen arabera azterketan, halaber, eredu asimetrikoa atzematen da Arabaren eta beste bi euskal probintzien artean. Araban, Espainiako biztanleriak eta atzerritar biztanleriak hazkunde garbi positiboa izan dute, eta atzerritarren eragin-ehunekoa handiagoa izan da EAE osoan izan duen pisu demografikoa baino. Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, atzerritar biztanleriaren ekarpenak biztanleria-mailari eusteko baino ez du bide eman azken seiurtekoan.

Alabaina, lurraldeen arteko eta EAE osoaren eta Espainiako batez beste-koaren arteko alde horiek ez dute alde kualitatiborik adierazten. EAEn ere, beste herrialde batzuetatik etorritako biztanleriak eredu demografikoa aldarazten du, euskal lurraldean —eta, ondorioz, euskal gizartean, ekonomian eta kulturatan— duen presentzia azkar igorarazten baitu.

Atzerritarren jatorriak banaketa-eredu bati jarraitzen dio Espainian eta Euskadin, zenbait alde esanguratsu ageri badira ere. 2001. urtetik aurrera, herrialde periferikoetatik etorritako egoiliarren pisua nabarmen igo da Espainian eta Euskadin. Alabaina, ondorengo bilakaerak zenbait alde erakutsi ditu,

2. taula


EAE: biztanleria osoaren eta atzerriar biztanleriaren banaketa
lurralde historikoen arabera, 2006 (%)

Lurralde historikoa	Biztanleria guztira (2006)	Atzerriar biztanleria (2006)	Atzerriar biztanleriaren aldakuntza garbia (2006-2000)
Araba	14,2	19,7	20,2
Gipuzkoa	32,4	29,6	27,0
Bizkaia	53,4	50,7	52,8

Iturria: Biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala)

8. grafikoa

EAE: biztanleriaren pisu erlatiboa jatorriaren arabera, 2000-2006 (%)



Iturria: Biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

herrialde nagusietatik (Estatu Batuak, Kanada, EB-15 eta Europako gainerako herrialdeak) etorritako egoiliarren pisua txikiagoa baita Euskadin. Atzerriko egoiliar horietako asko biztanle ez-aktiboak dira, pentsiodunak eta ikasleak bereziki.

Hori hala da biztanle talde horrek (Europako eta Ipar Amerikako erretratu eta errentadunak) Espainiako Mediterraneoko eskualdeetara jotzeko

3. taula

Atzerritarren banaketa jatorrizko herrialde motaren arabera, 2000-2006

Espainia

Herrialde mota	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Herrialde nagusiak	438.332	538.092	697.374	926.565	1.020.331	1.321.223	1.561.478
Periferiako herrialdeak	485.547	832.564	1.280.573	1.737.603	2.013.995	2.409.387	2.582.688
Herrialde nagusien %	47,4	39,3	35,3	34,8	33,6	35,4	37,7

Euskadi

Herrialde mota	2000	2001	2002	2003	2004	2005	2006
Herrialde nagusiak	9.988	10.877	12.590	14.740	16.437	20.011	23.990
Periferiako herrialdeak	11.152	16.561	25.818	34.491	42.729	52.883	61.552
Herrialde nagusien %	47,2	39,6	32,8	29,9	27,8	27,5	28,0

Herrialde nagusiak: Estatu Batuak, Kanada, Ozeania, EB-15 eta Erkidegotik kanpoko Europako gainerako herrialdeak

Iturria: Biztanleen udal-errolda (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa


joera argia erakutsi duelako. Horregatik, atzerritar biztanleria egoiliarra gora doa Espainian; Euskadin, aldiz, gero eta txikiagoa da.

Herrialde periferikoetatik⁵ datozen atzerritarrei dagokienez, latinoamerikarrek presentzia handiagoa dutela nabari da (EAEn % 48,3 dira; Espainian, berriz, % 36,2). Gainerako herrialde eta eskualdeei dagokienez, ehunekoak aurrekoen antzekoak dira.

⁵ Sailkapen honetan, EBko kide diren erdialdeko eta ekialdeko Europako herrialdeetatik (EEEH), Afrikatik, Asiatik eta Latinoamerikatik etorritakoak bildu dira. Herrialde nagusiek (Japonia) eskualde horietan duten presentzia, edo herrialde periferikoetako (gainerako EEHHak) nazionalen nagusietan dutena ez da adierazgarria estatistikari dagokionez agregazio-maila honetan.

9. grafikoa


Espainia: atzerriko egoiliarren banaketa jatorrizko eskualdeen arabera, 2006



Iturria: Biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

10. grafikoa

EAE: atzerriko egoiliarren banaketa jatorrizko eskualdeen arabera, 2006



Iturria: Biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

Aurrerago ikusiko den bezala, honako arrazoi hauek egon daitezke alde horren atzean: Iberoamerikako atzerritarren (emakumeen, bereziki) espezializazio erlatibo handiagoa etxeko zerbitzuan, horrelako lanak familiek eskura duten errentaren mende egotea, eta EAEko herritarrek Espainiako batez bestekoaren aldean errenta erlatibo handiagoa edukitzea, horrek etxeko enpleguaren eskaintza erlatibo handiagoa sorrazten baitu.

2.3. Immigrazioa lan-merkatuaren egiturazko aldaketa gisa

Eraldatze demografiko hori Espainiako lan-merkatuaren berritasun nagusia ere bada. Azken hamarkadan lanerako indarra izugarri igo da, landunen tasari dagokionez zein biztanleria aktiboari dagokionez.

2001etik 2005era bitarte, Espainian sortu diren lanpostuen (2,63 milioi) erdia (1,32 milioi) etorkinentzat izan da. Horren ondorioz, 2005. urtean, etorkinen enplegu-tasa (% 79) ehuneko 10,8 puntu handiagoa izan zen nazionalena baino (% 68,2), eta hori bereziki nabarmendu da Espainiako ekonomiarentzat funtsezkoak diren sektoreetan, hala nola eraikuntzan, ostalaritzan, merkataritzan, etxeko zerbitzuetan eta nekazaritzan. Zehazkiago, nekazaritza-sektorean, azken hiru hamarkadetako enplegua desagertzeko joerari buelta eman zaio, enplegu garbiak sortzeko. Alabaina, esan beharra dago 1985. urteaz geroztik —eta bereziki, 2000. urtetik aurrera— Espainian gertatu diren ohiz kanpoko zortzi erregulazio-prozesuek zeresan handia izan dutela horretan. Aldi berean, etorkinak etxeko zerbitzura bildu izanak bide eman dio biztanleria natiboari lan-merkatuan nabarmen sartzeko. Hala, azken hamarkadan biztanleria aktibo natiboa % 14 igo da. Igoera hori emakumeengan nabari da bereziki, emakumeen biztanleria aktiboa % 23,2 igo baita; gizonezkoen biztanleria aktiboa, berriz, % 8,5 baino ez da igo.

Lan eta Gizarte Gaietarako Ministerioaren Immigrazioko Estatu Idazkaritzak 2006. urteko Biztanleria Aktiboaren Inkestaren datuak baliatuz emandako datuen arabera, Espainian dauden 21.584.776 aktiboen % 12,92 atzerritarrak dira (2.789.733), eta % 11,39, berriz, Erkidegotik kanpoko atzerritarrak (2.458.348). Hala, atzerritar aktiboen % 88,12 Erkidegotik kanpokoa da, eta % 11,88 bakarrik Erkidegokoa. Atzerritar aktiboen % 47,49 latinoamerikarrak dira, eta horrek argi eta garbi adierazten du eskualde horretatik etorritako immigrazio ekonomikoak zenbaterainoko pisua duen Espainiako ekonomian. Sexuen arabera, % 55,70 gizonezkoa da eta % 44,30

emakumezkoa, hurrenez hurren, eta, adin tarteen arabera, 25 urtez azpiko gazteak eta 25 urtetik 34 urtera bitarteko helduak nabarmentzen dira Erkidegotik kanpoko aktibo atzerritarren taldean, espainolen aldean. Hala, Espainiako aktiboen % 31 35 urtez azpikoa da; Erkidegotik kanpoko langileen kasuan, berriz, talde hori guztien % 56 da.

Espainiako kapitalismoaren funtzionamendua azkar bilakatzen ari da, beraz, orain artean lanerako indarraren erabilerak maila txikia zuela aintzat hartuta, eta hori hala da nazioarteko lan-banaketan —Europako merkatuan, bereziki— zeregin hori bete behar duelako, eta Erkidegoko politikaren jarraibide berriei erantzutearren, biztanleria aktiboaren ehunekoak nabarmen igo behar direlako, emakume eta gazteen artean bereziki.

Euskal ekonomia aldaketa-prozesu horretan txertatzen da, eta, horregatik, lan-merkatuaren eraldatze hori oso denbora gutxian gertatu da. Atzerritarrentzako lan-baimenak dira horren adierazgarri argienak: EAEn, mila bat eman ziren laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran; 2005ean, berriz, 20.000 inguru.

Atzerriko biztanle ugari etorri izana honako honen ondorio da: behar-beharrezkoa da lanerako indarraren bolumenak egokitzea, metatzearen parametro berrien arabera. Horregatik, jarduera- eta enplegu-tasa oso handia da atzerritar egoiliarren artean, askoz ere handiagoa nazionalena baino, baita jarduera-tasa handiagoak dituzten Europar Batasuneko herrialdeena baino ere. Adinen araberrako osaerak ere aditzera ematen du biztanleria hori —herrialde periferikoetatik datorrena bereziki— lanerako indarra dela.

5. taulan ikus daitekeenez, jarduera-tasa askoz handiagoa da atzerriko egoiliarren artean. Euskadin, aldiz, enplegu-tasa txikiagoa da atzerritar biztanleriaren artean (ia bi puntu), atzerritarren jarduera-tasa handiagoa bada ere (zazpi puntutik gora).

Jarduera- eta enplegu-tasa⁶ handiagoa da, halaber, emakume etorkinen artean, baina esan beharra dago Espainiako emakumeak ere bizkor sartu direla lan-merkatuan azken urte hauetan.

⁶ Jarduera-tasa (jt) lan-arloan potentzialki aktibotzat jotako adin-tartean lan egiten duen edo lan egin nahi duen biztanleriari dagokio (16-65 urte) (J/BIZT). Enplegu-tasa (et) landunen tasaren eta biztanleria potentzialki aktiboaren arteko erlazioa da (L/BIZT), eta landunen tasa (lt) enplegatutako biztanleriaren eta biztanleria aktiboaren arteko erlazioa (L/J), hau da, enplegu-tasaren eta jarduera-tasaren arteko zatidura ($lt = et/jt$); honela ere zehazten da: ($et = lt \times jt$).

4. taula

Atzerritarrei emandako lan-baimenak, lurraldeen,
sexuen eta aldien arabera, 1995-2005

Lurraldea	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Euskadi											
Guztira	1.011	1.111	815	1.065	1.518	1.856	4.211	5.771	5.556	8.666	19.950
Gizonak	721	785	536	649	956	1.217	2.752	3.498	3.271	5.338	10.522
Emakumeak	290	326	279	416	562	639	1.459	2.273	2.285	3.328	9.428
Araba											
Guztira	332	327	292	368	549	736	1.999	1.716	1.596	3.529	4.058
Gizonak	233	226	196	266	380	538	1.438	1.137	1.017	2.204	2.378
Emakumeak	99	101	96	102	169	198	561	579	579	1.325	1.680
Gipuzkoa											
Guztira	268	326	199	231	355	394	949	905	1.549	1.860	5.750
Gizonak	195	244	138	136	202	224	568	583	895	1.150	2.922
Emakumeak	73	82	61	95	153	170	381	322	654	710	2.828
Bizkaia											
Guztira	411	458	324	466	614	726	1.263	3.150	2.411	3.277	10.142
Gizonak	293	315	202	247	374	455	746	1.778	1.359	1.984	5.222
Emakumeak	118	143	122	219	240	271	517	1.372	1.052	1.293	4.920

Iturria: Atzerritarrei Amortizatutako Lanpostuei buruzko Estatistikak (Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioa)

5. taula

16-64 urteko biztanleriaren jarduera- eta enplegu-tasa
nazionalitateen arabera, 2006 (%)

Lurraldea	Biztanleria nazionala		Atzerritar biztanleria	
	Jarduera-tasa	Enplegu-tasa	Jarduera-tasa	Enplegu-tasa
Espainian guztira	70,7	65,0	80,7	71,2
Euskadi	72,7	68,0	80,0	66,4
Araba	73,7	69,1	74,4	63,2
Gipuzkoa	72,9	69,2	80,4	69,2
Bizkaia	72,2	66,9	81,3	65,6

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

6. taula

16-64 urteko gizonen jarduera- eta enplegu-tasa
nazionalitateen arabera, 2006 (%)

Lurraldea	Biztanleria nazionala		Atzeritar biztanleria	
	Jarduera-tasa	Enplegu-tasa	Jarduera-tasa	Enplegu-tasa
Espainian guztira	81,63	76,8	81,58	81,1
Euskadi	82,15	78,0	86,15	73,1
Araba	83,74	79,8	82,76	80,3
Gipuzkoa	81,41	78,7	83,83	70,7
Bizkaia	82,15	77,1	88,62	72,2

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

7. taula

16-64 urteko emakumeen jarduera- eta enplegu-tasa
nazionalitateen arabera, 2006 (%)

Lurraldea	Biztanleria nazionala		Atzeritar biztanleria	
	Jarduera-tasa	Enplegu-tasa	Jarduera-tasa	Enplegu-tasa
Espainian guztira	59,62	53,0	60,01	61,2
Euskadi	62,93	57,7	74,98	61,1
Araba	63,19	57,9	60,63	44,6
Gipuzkoa	63,84	59,1	79,73	68,2
Bizkaia	62,33	56,8	75,71	60,1

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

Erkidegoko eta Erkidegotik kanpoko biztanleria etorkina bereiztea funtsezkoa da migrazio-dinamika eta dinamika horrek metatze-prozesuarekin duen erlazioa ulertu ahal izateko. Izan ere, kontuan hartzekoa da Erkidegoko biztanleriaren oso zati handi bat ez-aktiboa dela (edo ikasleak), eta Espainia aukeratzen duela erretiroaldiaren zati handi bat igarotzeko egoitza gisa. Nolanahi ere, Erkidegoko lanerako indarraren fluxuek —Europako

ekialdeko zenbait herrialdetan izan ezik—⁷ dimentsio ekonomiko urria dute, eta banako egoitza-erabakiei erantzuten diete, eta ez Espainiako lan-merkatuaren dinamikei.

2.4. Immigrazio masiboa Espainiako metatze-ereduaren oinarritzko osagai gisa

Espainiako zenbait eskualderen ekonomia- eta produkzio-ereduaren ezaugarri espezifikoak funtsezko zeregina betetzen ari dira biztanleria etorkina gizarteratzeko eta laneratzeko ereduari. Hala, produkzioa nabarmen dibertsifikatu da, azken kontsumoko ondasun eta produktuen produktuari begira bereziki. Produktu horietako askok lan-esku-bolumen handiak eskatzen dituzte, baita eduki teknologiko txikia, eta, ondorioz, espezializazio-maila txikia ere, eta, horregatik guztiagatik, produktu horiek oso erakargarriak dira. Kontuan hartzekoa da, halaber, eraikuntzak eta herri-lanak zeresan handia izan dutela Espainia osoan, atzerriko langile ugari (espezializatuak zein espezializatorik gabek) egokitzerakoan. Horri erantsi behar zaio turismo-sektoreak ere garrantzizko zeregina betetzen duela, baita nekazaritza eta abeltzaintzako sektoreak ere. Turismoari dagokionez esan beharra dago oraindik ere ziklikotasunak eta urte-sasoikotasunak gidatzen dutela sektorearen bilakaera. Nekazaritzak eta abeltzaintzak, berriz, ahalmen handia du eskualde jakin batzuetan, labore tradizionalen produkzioari loturik baina aldi berean beste zenbait laboreri bide emanez, guztiak era Europako merkaturako esportazioari begira. Horregatik esan dezakegu hainbat eskualderen ekonomia- eta produkzio-morfologiaren azkenaldiko garapena immigrazioaren eskulanean oinarritu dela. Izan ere, lan-esku hori gai da urte-sasoikotasuna eta aldibaterakotasuna nagusi diren eta lan-bolumen handiak eskatzen dituzten kualifikaziorik gabeko okupazio-sektoreei erantzuteko. Hain zuzen ere, horixe da Espainiako egungo migrazio-fenomenoaren alderdirik nabarmenena.

Aldez aurretik adierazi dugun bezala, Espainiako immigrazio berriari dagokionez argitaratu diren azterlan gehienek fenomenoaren irudi fun-

⁷ 1995-2004 aldia aztertu da, eta kontuan hartzekoa da Erdialdeko eta ekialdeko Europako herrialdeak (EEH) ez zirela oraindik Europar Batasuneko kide; hortaz, azterlanaren xedeetarako, EEH-etako etorkinak Erkidegotik kanpokotzat jo dira.

tzionala aurkezten dute, inpaktu makroekonomikoak soilik aztertzen dituztelako, immigrazio-prozesuaren egiturazko arrazoiei heldu gabe. Horren haritik interpretazio bat egiten denean, gehienez ere «dei-efektua» aipatzen da, interpretazio demagun «soziologiko» horri dagozkion dualismoekin batera (han pobrezia, hemen aberastasuna; han gazteak, hemen zaharrak; han antena parabolikoen eta Iparreko metropoli handien irudien kontsumoa, hemen antenen eta gizarte aberatsaren irudien produkzioa; eta abar). Nolanahi ere, oraindik ere honako galdera handi honi erantzun behar zaio: zergatik iritsi da, hain zuzen ere azken hamarkadan, kostu txikiko lanerako indar masiboa, eta nola da posible Espainiako ekonomiak, langabezia-tasa handiak izaki, lanerako indarraren bat-bateko igoera erraldoi hori bere gain hartzeko gai izatea?

Galdera horri erantzuten laguntzeko, azterlan honetan immigrazioaren fenomenoaren karakterizazio ekonomikoa proposatzen dugu. Horren arabera, Espainiako metatze-eredu berriak *egiturazko osagarria* du. Honako bi bereizgarri hauek ditu:

- **Produkzio-espezializazioa**, Espainia Ekonomia eta Moneta Bata-sunean sartu izanaren ondorioz. Espainiak Europako lanaren banaketan zeregina jakin bat bete behar duela aintzat hartuta, lehen mailako jardueri eta zerbitzuei lotutako produkzio-profila indartzen da, ostalaritzari eta zerbitzu pertsonalei dagokienez bereziki.
- Lanerako indarra ustiatzeko **orientazio estrategiko** bat, Lisboako Agendaren politika ekonomikoak eta Europar Batasuna lehia globalan sartu izanak baldintzatua. Politika horrek jarduera-tasen igoera masiboa eskatzen du, baita lanerako indarraren ustiapen intentsiboa eta estentsiboa ere; kasu bakoitzean osagarri bata zein bestea nagusituko da, produkziogune jakin bakoitzean nagusi diren jarduera-adarren arabera.

2.4.1. *Espainiak Europako lanaren banaketan duen zeregina*

Espainia Europar Batasunean sartzeak Espainiako eredu ekonomikoa goitik behera berregituratzea ekarri zuen berekin. Betidanik lehiakorra izan den nekazaritza muga-zerga komunak babestutako sektorea izatera igaro da, eta horrek epe luzerako nekazaritza-errentak hobetzea ekarri du.

Industriaren garapena barne-babes handiari lotuta zegoen orain artean, baina kanpoaldera zabaldutako sektore bihurtu da. Urte gutxi batzuetan, industria-sektorearen ahalmena bizkor murriztu da, balio erantsi handiko azken ondasunei dagokienez bereziki; horrenbestez, Europar Batasuneko gainerako herrialdeetatik bereziki inportatu behar izan dira ondasun horiek guztiak. Atzerriko kapitalak bereganatu du bitarteko ondasunen industria ia guztia, toki-produkzioaren zati bat epe ertainera baztertuz, eta, horren orde, dagokion taldeak Espainiako lurraldetik kanpo dituen beste fabrika batzuetatik etorritako produktuak jarritz (ekipamendu-ondasunak, eta osagai elektriko eta elektronikoak). Beste batzuetan, bitarteko ondasunen industria hori produkzio transnazionalen mendeko gisa txertatu da (automobilgintza).

Oinarrizko industriari (meatzaritza, siderurgia) dagokionez, aipatzekoa da bertan ezarritako ahalmena murrizteko prozesua abian jarri dela. Industria kutsagarrienak (kimika) edo tokian produzitutako osagaiekin zerikusia dutenak (elikagaigintza) baino ez dira hedatzen argi eta garbi. Eraldatze horiek garrantzi handiko desindustrializazio-prozesua eragin dute, eta horrek hainbat ondasun industrial tokian produzitzeko ahalmena ezabatu du.

Aldi berean, Espainiak zerbitzu-hornitzaile gisa duen zeregina indartzen da, turismoaren eta zerbitzu pertsonalen adarretan bereziki.

1995etik 2004ra bitarte ostalaritza-sektorean sortutako enplegu-bolumena aintzat hartutako lehen urtean zegoenaren erdia baino gehiago da, eta eraikuntzaren sektoreak (% 67,7ko enplegu-igoera EAEn, % 81ekoa Espainian) eta zerbitzu pertsonalen eta etxeko enpleguaren jarduerak bakarrik gainditzen dute hazkunde hori, jarduera horiek enplegu-bolumenaren hazkunde-tasa handienak aurkezten baitituzte, Espainian eta EAEn.

Eraikuntzaren sektorea izan da jarduera ekonomikoaren eragilea, eta horren *goraldia* honako hiru faktore hauei lotuta ageri da:

- Biztanleria langilearentzako, natiboarentzako eta atzerritarrarentzako bizitegi-eraikuntza.
- Atzerritar biztanleria pasiboarentzako bizitegi-eraikuntza.
- Diru-zuritzeari lotutako eraikuntza eta arrisku txikiko aktibo finkoetan inbertitzea (ezkutuko ekonomia eta pezetatik eurorako trantsizioa).


8. taula
Espainiako industriaren balio erantsi gordina adarren arabera, 1985-2005 (%)

Sektorea	1985	1986	1987	1988	1989	1990	1991	1992	1993	1994	1995	1996	1997	1998	1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Elikagaien, edarien eta tabakoaren industria	14,6	14,5	14,2	14,3	14,2	14,3	14,2	14,5	15,6	15,6	17,0	16,4	15,9	15,4	15,4	13,7	13,4	13,3	13,8	13,8	13,8
Ehungintza eta jantzigintza	12,7	12,5	12,5	12,3	11,8	11,9	11,6	10,5	10,3	10,3	6,2	6,1	6,2	6,2	6,1	5,6	5,4	5,1	5,0	4,5	4,2
Larrugintza eta oinetakogintza	4,4	4,3	4,3	3,9	3,5	3,5	3,4	3,1	3,2	3,3	1,9	2,1	2,0	2,0	1,9	1,6	1,5	1,4	1,4	1,2	1,1
Zuraren eta kortxoaren industria	6,4	6,4	6,4	6,8	7,0	6,8	7,0	6,8	6,9	6,5	6,5	6,7	6,7	6,9	7,0	7,2	7,0	6,8	6,7	6,6	6,4
Papergintza, edizioa eta arte grafikoak	5,1	5,7	6,0	6,0	6,5	6,5	6,9	7,2	7,1	7,0	8,4	8,4	8,5	8,5	8,3	9,1	8,9	9,2	9,1	9,1	9,2
Industria kimikoa	6,5	6,3	6,0	5,8	5,9	5,8	5,8	5,9	6,1	6,4	9,5	9,0	9,2	8,9	8,9	9,4	9,7	9,6	9,3	9,4	9,4
Kautxua eta plastikoak eraldatzeko industria	3,7	3,9	4,0	4,0	3,8	4,0	3,9	4,0	3,9	4,1	4,6	4,9	4,8	4,9	4,9	4,5	4,5	4,6	4,5	4,5	4,5
Produktu mineral ez-metalikoen fabrikazioa	8,2	8,0	8,0	8,2	8,3	8,2	8,3	8,6	8,2	8,1	8,0	7,4	7,5	7,8	8,1	7,7	8,0	8,0	7,9	8,1	8,3
Metalurgia eta produktu metalikoak	13,6	13,4	13,5	13,4	13,5	12,9	13,1	13,2	13,5	13,7	13,0	12,4	12,6	12,5	12,6	15,5	15,9	16,2	16,3	16,8	17,6
Makineria eta ekipamendu mekanikoak	4,4	4,3	4,3	4,3	4,5	4,7	4,6	4,6	4,9	5,0	6,1	6,6	6,5	6,6	6,7	7,1	7,4	7,6	7,4	7,6	7,6
Ekipamendu elektriko, elektroniko eta optikoa	7,6	7,8	7,8	7,7	8,2	8,7	8,3	8,2	7,9	7,8	7,4	8,0	7,5	7,5	7,4	7,1	7,0	6,3	6,2	5,9	5,8
Garraio-materialaren fabrikazioa	11,2	11,1	11,2	11,4	11,2	11,0	11,1	11,3	10,4	10,4	11,3	11,7	12,5	12,6	12,3	11,1	10,8	11,4	11,7	11,4	11,0
Askotariko enfabrikatutako industria	1,7	1,9	1,9	1,8	1,7	1,8	1,8	2,0	1,9	2,0	0,3	0,3	0,3	0,3	0,4	0,4	0,5	0,5	0,6	1,0	1,2

Iturria: Espainiako Kontabilitate Nazionala (Estatistikako Institutu Nazionala)

11. grafikoa

Turista kopurua, Espainian eta Euskadin, 1995-2004



Iturria: Turismo hartzaila (Estatistikako Institutu Nazionala)

9. taula


Lanpostuen aldakuntza sektoreen arabera, 1995-2004 (%)

Sektorea	Euskadi	Espainia
Nekazaritza	59,5	-4,6
Industria	32,0	26,6
Eraikuntza	67,7	81,0
Zerbitzuak	40,9	45,4
Merkataritza eta konponketak	28,6	36,0
Ostalaritza	60,9	55,0
Garraioa eta komunikazioak	42,3	32,9
Finantza-bitartekaritza	18,5	6,6
Higiezin jarduerak eta enpresa-zerbitzuak	60,1	99,5
Administrazio publikoa	24,7	12,0
Hezkuntza	10,7	29,6
Jarduera sanitarioak eta albaitaritza-jarduerak; gizarte-zerbitzuak	49,6	42,2
Bestelako zerbitzu eta jarduera sozialak; zerbitzu pertsonalak	74,6	67,4
Etxeko langileak dituzten etxeko unitateak	159,6	200,6
Guztira	140,0	140,7

Iturria: Espainiako eskualde-kontabilitatea (Estatistikako Institutu Nazionala)

12. grafikoa

Eraikuntzaren sektoreak Espainiako eta Euskadiko BPGan duen pisua, 1985-2005
(1980ko oinarria, 1995eko oinarria eta 2000ko oinarria; %)



Iturria: Espainiako eskualde-kontabilitatea (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

Eurogunearen interes-tasek ere zeresana izan dute eraikuntzaren sektorearen izugarritzko hazkunde horretan, eta horren haritik esan beharra dago tasa horiek eta Espainiarenak ez dutela zerikusi handirik. Beraz, 1999. urte-tik interes-tasak txikiagoak izan dira oreka-tasak baino, eta, horren eraginez, familien zorra (hipoteka-zorra eta kontsumo-zorra, neurri handi batean) izugarri hazi da, eta horrek familia-errentei eustea ahalbidetu du, hipoteka-zorraren zerbitzua alde batera utzita (familia-errentek ere bereranzko bidea hartu dute soldata-mailak gelditu direlako).

Eraikuntzaren sektoreak gero eta parte-hartze handiagoa lortu du Espainiako —eta, ondorioz, Euskadiko— metatze-prozesuan. Alabaina, horrek berekin dakarren lanerako indarraren eskari masiboak oso denbora-muga argiak ditu, dirudienez 2006an goiena jo duen eraikuntzaren zikloari loturik.

2.4.2. EAEren berezitasuna Europako metatze-ereduan

Atzerritarrek garrantzizko presentzia dute Espainiako lan-merkatuan, baina horien banaketan izugarritzko aldeak ageri dira tokiaren arabera, al-

tan emanda dauden langileen bi herenetik gora lau autonomia-erkidegotan biltzen baitira (guztira, hamazazpi autonomia-erkidego daude). Gizarte Segurantzaren alta emanda dauden atzerritarren % 67,8 Katalunian, Madrilen, Valentziako Erkidegoan eta Andaluzian biltzen dira, eta hain zuzen ere erkidego horietan erregistratu dira igoera absolutu handienak 1999. urteaz geroztik, nola Gizarte Segurantzari afiliatutako langileei dagokienez hala erroldatutako eta egoitza-baimena duten atzerritarrei dagokienez.

Hala, atzerritarrek lan-merkatuan duten presentziaren arabera bi autonomia-erkidego talde handi ezar ditzakegu: batetik, atzerritar afiliatuen batez bestekoaren gainetik daudenak —besteak beste, Aragoi (10,09), Balearrak (16,81), Kanariak (11,91), Katalunia (12,39), Valentziako Erkidegoa (11,44), Madril (13,78), Murtzia (17,23), Nafarroa (9,82), Errioxa (12,14), Ceuta (10,64) eta Melilla (19,59)—, eta, bestetik, batez bestekoaren azpiko ehunekoak dituztenak: Andaluzia (6,31), Asturias (3,06), Kantabria (4,85), Gaztela-Mantxa (8,9), Gaztela eta Leon (5,23), Extremadura (2,59), Galizia (3,03). Euskadi bigarren taldean sartzen da (4,1). Beraz, immigrazioa autonomia-erkidego bakoitzaren berezko ezaugarri espezifikoetara eta produkzio- eta kontsumo-prozesuaren gorabeheretara egokitzen da.

Azken urte hauetan, euskal ekonomiak oro har indarra galdu du Espainiako ekonomian, baina industriaren eta energiaren sektoreetan duen parte-hartzeak gora egin du.

10. taula


EAEk Espainiako ekonomian duen pisua sektoreen arabera, 2000-2005 (%)

Sektorea	2000	2001	2002	2003	2004	2005
<i>Barne-produktu gordina merkatu-prezioen arabera</i>	6,3	6,3	6,2	6,1	6,1	6,1
Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza	2,8	2,8	2,8	2,5	2,7	2,6
Energia	7,3	7,3	6,8	7,1	7,5	8,4
Industria	9,9	9,9	10,0	10,0	10,2	10,3
Eraikuntza	5,4	5,3	5,4	5,3	5,2	5,1
Zerbitzuak	5,6	5,6	5,5	5,5	5,5	5,5
—Zerbitzu publikoak	6,0	6,0	5,9	5,8	5,7	5,7

Iturria: Espainiako eskualde-kontabilitatea (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

13. grafikoa

EAEk Espainiako industriaren negozio-zifran duen pisua, 1993 eta 2005 (%)



Iturria: Enpresen Inkesta Industrial (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

2000tik 2005era bitarte EAEk merkatutik kanpoko zerbitzuetan duen parte-hartzea jaitsi da (Espainiako BPGaren 0,3 puntu), baita eraikuntzaren sektorean duen parte-hartzea ere. Nekazaritza-sektoreak pisu erlatiboa galdu du azken urteetan, hain zuzen ere Espainiako BPGaren 0,2 puntu (Euskadik bere pisu ekonomiko globalari dagokionaren erdian baino gutxiagoan parte hartzen du sektore horretan). Aitzitik, balio erantsi industrialean eta energia-sektorean duen parte-hartzeak gora egin du, BPGaren 0,4 puntu eta 1,1 puntu, hurrenez hurren.

Hortaz, EAEk espezializazio-eredu industrial bati eusten dio, eta, horren arabera, Espainiako jarduera industrialean duen parte-hartzeak gora egin du: 1993an, jarduera industrialaren % 8,2 zen (negozio-zifra), eta 2005ean, berriz, % 9,4. Parte-hartze erlatiboa teknologia ertain/handiko eta handiko adarretan hobetzen da gehiago, material elektrikoaren edo garraio-materialaren adarretan, esaterako; teknologia txikiko adarretan —ehungintzan eta jantzigintzan, esaterako—, berriz, neurri handiagoan murrizten da.

Industriaren espezializazio erlatibo horri esker, soldata- eta produktibitate-maila handiagoak lortu dira. Euskal langile industrialak batez bestekoa

11. taula

Soldata-kostuaren eta etekinen arteko erlazioa Espainian eta Euskadin, 1993-2005

Lurraldea	Langileen gastua orduko			Etekina* lanorduko			E/LG	
	1993	2005	Igoera	1993	2005	Igoera	1993	2005
Espainia	11,4	16,9	48,2	3,2	8,3	159,4	28,1	49,1
Euskadi	14,0	21,3	52,1	1,7	7,5	341,2	12,1	35,2
% Euskadi/ Espainia	122,8	126,0		53,1	90,4			

* Etekina = Ustiapen Diru-sarreraren guztizkoa – Ustiapen Gastuen guztizkoa

Iturria: Enpresen Inkesta Industrial (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

baino produktiboagoak dira, eta lan industrialeko ordu bakoitzeko lortutako errentagarritasun-tasa askoz ere gehiago hazi da Euskadin Espainia osoan baino.

Espezializazio industrialak, halaber, zera ekarri du, emakumeak sektore industrialean parte-hartze txikiagoa izatea Espainiako batez bestekoa baino (emakumeek enplegu industrialen % 18,1 berenganatzen dute Euskadin, 2006ko Espainiaren batez bestekoaren azpitik, baina 1977tik ehuneko hori bost puntu igo da Euskadin, eta Espainiaren batez bestekoa, aldiz, antzeko ehunekotan ibili da aldi luze horretan). Emakumeak enplegu industrialean duen parte-hartze txikiago hori enplegu industrialaren sexu eta adarren araberako segmentazio handiaren ondorio da —emakumeek parte-hartze txikia dute Euskadin nagusi diren adarretan—, eta parte-hartze txiki hori, oro har, administrazio eta zerbitzuen enplegu publikoarekin konpentsatzen da. 2006an, oro har, emakumeek administrazio eta zerbitzuen enpleguen % 42,4 berenganatzen zuten, Espainiaren % 40,5eko batez bestekoaren aldean.


Laurogeita hamarreko hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera enplegua guztira indar handiz hazi bada ere, enplegu industrialak bestelako joera erakutsi du Euskadin eta Espainian. Euskadin enplegua murrizten ari da epe luzera hirurogeita hamarreko krisi industrialetik aurrera (1976an 337.000 landun zeuden; 2006an, berriz, 239.000). Espainian, aldiz, enplegua berriaz ere hazten hasi zen 1996. urteaz geroztik; izan ere, 1976tik (3,5 milioi enplegu) 1996ra (2,5 milioi) bitarte milioi bat enplegu galdu baziren ere, 2006aren amaieran 3,3 milioi enpleguko kopurua lortu zen.

12. taula
Landunak, guztira eta industrian, 1977-2006 (milakotan)

	Guztira				Industria			
	1977	1993	2005	2006	1977	1993	2005	2006
Espainian guztira	12.594,40	12.293,80	18.973,25	19.747,65	3.480,28	2.647,08	3.279,95	3.292,10
Espainian emakumeak	3.545,63	4.105,20	7.584,45	8.005,08	816,25	571,13	812,98	791,08
EAEn guztira	752,28	696,58	958,23	984,90	345,60	212,58	245,38	241,58
EAEn emakumeak	197,43	229,50	396,70	417,13	45,90	26,23	43,00	43,78
Emakumeen % Espainian	28,20	33,40	40,00	40,50	23,50	21,60	24,80	24,00
Emakumeen % EAEn	26,20	32,90	41,40	42,40	13,30	12,30	17,50	18,10

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa


14. grafikoa
Landunak, guztira eta industrian. Hiruhilekoen balioak, 1976ko IV. - 2007ko I. (milakotan)



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

15. grafikoa

Esportazio industrialek EAEko eskaintza industrialean duten pisua, 1995-2004 (%)



Iturria: Input-output taulak (Eustat)

Badago beste ezaugarri bat Euskadik Espainiako eta nazioarteko lanaren banaketan duen berezitasuna adierazten duena. Hirurogeiko eta hirurogeita hamarreko hamarkadetan metatze-fasea gertatu zen, eta industriak bitarteko ondasunak produzitzen zituen Espainiako ekonomiarentzat. Gaur egun, ordea, sektore industrialak europar gunean txertatzen da, eta Erkidegoko talde industrialekiko mendetasun handia du.

2000. urtetik, atzerrira esportatutako produkzio industrialaren ehunekoak Espainiako gainerako autonomia-erkidegoetara bideratutakoa gainditzen du. 1995etik 2004ra bitarte esportazioaren pisua ehuneko 3,5 puntu igo zen; Espainiako gainerako autonomia-erkidegoetara bideratutako produkzioa, berriz, ehuneko 7,1 puntu jaitsi zen urte horietan.

Hala, lehia neurrigabe handiagotu da sektore industrialean, Espainiako merkaturako hornidura tradizionalari zein kanpo-merkatuei dagokienez, eta horrek produkzio-kostuak hobetu beharra ekarri du teknologia ertaineko eta ertain-handiko produktuen segmentuan lehiatu ahal izateko, euskal industriaren adarren araberako espezializazioa segmentu horretan kokatzen baita.

Ondorioz, jarduera ekonomikoaren joera orokorraren barruan, immigrazioaren egiturak eta dinamikak ezaugarri espezifikoak aurkezten ditu Euskadin, euskal autonomia-erkidegoaren profil sozioekonomikoari egokituak. Horrek agerian uzten du lan-immigrazioak izaera funtzionala duela, eta metatze-sistemaren eskakizunei erantzuten diela, eta ez lanerako indar etorkinaren erabaki autonomoei.

Horren haritik, garrantzi handiko bereizketa metodologikoa egitea komeni da: etorkinen erabakiak hartzeko autonomia ez da zalantzan jarzen. Pertsonak dira toki jakin batera migratzeko erabakia hartzen dutenak, kostuak eta etekinak kalkulatu, hau da, aurreikusitako diru-sarrerak eta kalkulatuak lekualdatze- eta birkokatze-kostuak aintzat hartuta. Maila indibidual horretan zenbait faktorek jarduten dute, hala nola jatorrizko herrialdetik eta eskualdetik etorritako harrera-sareak izatea, familiak berriz ere elkartzea eta emigrazioaren legezko ingurunearen aldaketetatik etorritako kostu aldakorrak. Alabaina, termino agregatueta, migrazio-fluxuak informazio-eranstearen ondorio dira, hain zuzen ere etorkinek enpleguari eta diru-sarrerei dagokienez dituzten aurreikuspenei buruzko informazioak eranstearen ondorio.

Informazio horiek nolabaiteko homogeneousuna lortzen badute, hainbat pertsona toki eta denbora jakin batean elkartzen dira, helmuga jakin bat hautatu dutelako beren lanerako indarra saltzeko. Informazio horrek, beraz, produkzio-aparatuan ageri diren dinamikak islatzen ditu, eta mekanismo formalen (migrazio-bulegoak, enbaxadak, hedabideak) zein informalen (familia- eta toki-sareak) bitartez jasotzen da. Madrilen edo Alacanten langile etorkinen ehunekoa handiagoa da Asturiasen edo Lugon baino, eta hori hala da produkzio sistemak lanescu hori eskatzen duelako lanescu hori azken batean kokatzen den tokian, eta lanescu hori ez da kokatzen metatze-prozesuarentzat erabilgarri ez den tokian.

Hortaz, termino agregatueta, etorkinen fluxuak produkzio-sistemaren balorizazio-premien *mendekoak* dira, etorkinen bolumenari eta alderdi kualitatiboak dagokienez, zein prestakuntza-mailei edo sexuari dagokienez, etorkinak sexuen arabera segmentatutako eta kualifikazio orokor eta espezifikoaren eskarien arabera estratifikatutako merkatu batera egokitzen baitira. Ohar horiek garrantzi handikoak dira proposatzen diren lanescu-fluxuen kontrol neurri guztien bideragarritasuna ebaluatzerakoan, eta sarritan lan-

merkatuen benetako dinamikekin inolako zerikusirik ez duten profil boluntarista areagotzen dute.

2.4.3. *Lisboako Estrategia eta Erkidegoko enplegu-politika*

Lisboako Estrategia deiturikoaren barnean hartutako enplegu-politikak jardueraren eta landunen tasa igoarazi nahi ditu, emakumeek lan-merkatuan duten parte-hartzea handituz bereziki.

Agintari nazionalak eta Erkidegoko agintariek honako diagnostiko orokor hau ezarri dute, Erkidegoko eta Estatu Batuetako ekonomien joeren arteko konparaziotik abiatuta: Estatu Batuek Europar Batasunak baino emaitza global hobeak lortzen dituzte, hain zuzen ere enplegua sortzeko ahalmen handiagoa dutelako, baita biztanleriak enplegarritasun-tasa handiak dituelako ere. EBN, aldiz, lan egiteko adinean daudenen oso zati handi bat ez-aktiboa da, eta joera hori da nagusi.

Eta egoera hori areagotzen da emakumeen enplegu-tasak alderatzen badira: laurogeita hamarreko hamarkadaren erdialdean hamar puntutik beherako aldea zegoen Estatu Batuetako eta mendebaldeko Europako gizonezkoen artean; emakumeen artean, berriz, alde hori ehuneko hamabost puntutik gorakoa zen.

Diagnostikoaren arabera, Europar Batasunaren biztanleria ez-aktiboa Estatu Batuetan baino handiagoa izateak soldata-kostu unitario erlatibo handiagoa dakar berekin, lanerako adinean daudenen artean ere aktiboen eta ez-aktiboen arteko mendetasun-tasak daudelako. Kostu handiago horrek ondasunak eragiten ditu zuzeneko soldatan (familia-soldatan), edo zeharkako soldatan eta zerga-kargetan (gizarte-babesaren gastua).


Hala, enplegu-tasak igotzea helburu estrategikoa da Estatu Batuekiko lehiakortasuna sustatzeko, zerga-kargak eta lan-arloko kotizazioak murriztea errazteko, eta, azken batean, kapitalaren metatze-tasa handiagoak sorrarazteko.

Hala, Lisboako Estrategiak enplegu-tasak igoarazi nahi ditu Europako biztanleriaren artean, emakumeak lan-merkatuan sartzeko ahalegin berezia eginez.

Espainiarentzat eta beste zenbait herrialderentzat —Italiarentzat eta Greziarentzat, bereziki—, horrek herrialde horietan sustraitutako eredu kulturalak hausteko prozesua ekarriko du berekin. Izan ere, herrialde horietan

16. grafikoa

Emakume eta gizonen enplegu-tasak,*
EB-15en eta Estatu Batuetan, 1995-2006 (%)



* Landunak, lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren ehuneko gisa (15-64 urte)

Iturria: Employment Statistics (Eurostat)

etxeko lanak familia-soldaten oinarriaren arabera banatu dira, eta, horren eraginez, emakumeen gehiengoa lan-merkatutik kanpo egon da, etxeko eremuan langileen kontsumorako ondasun ugari sortuz, hala nola elikagaiak prestatuz, garbitze- eta txukuntze-zerbitzuen ardura hartuz, mendekoei (seme-alaba eta aitona-amonei) arreta eskainiz eta abar. Horrek lanaren etxeko banaketa produkzio-denboraren eta erreprodukzio-denboraren artean txandakatzea eskatzen du, eta immigrazioaren fenomenoaren arrazoiak ere azaltzen ditu neurri batean.

Familien gizarte-portaera alda zedin eragiteko, soldaten geldialdi luzea gertatu da,⁸ eta, horren eraginez, familiek diru-sarrerak hobetzeko bidea bilatu behar izan dute ezinbestean, lan-merkatuari gizarte-denbora gehiago emanaz. Familiaburuaren enplegu-aniztasuna nahikoa ez bada, seme-alaba

⁸ Espainian, 1994tik aurrera, soldatek errentan duten parte-hartzea urtean % -0,6 jaitsi da batez beste; EB-15en, berriz, urtean % 0,9 igo da batez beste aldi berean (*European Economy* aldizkariaren estatistika-eranskinaren datuak).

ikasleen lanaldi partzialeko lanera jotzen da behin-behinean,⁹ eta bereziki etxekoandrea soldatapeko bihurtzen da.

1999tik 2005era bitarte 4,3 milioi langile berri hasi dira lanean, eta horietatik 2,3 (% 55) emakumeak dira. EB-25en lanean hasten diren hiru emakumetik bat espainola da, natiboa edo etorkina.

13. taula

Landunen tasari buruzko datuak Europar Batasunean eta Espainian,
1999-2005 (milakotan)

		1999	2000	2001	2002	2003	2004	2005
Lanerako indarra 15-64	EB-25	298.248,4	298.633,2	300.049,2	301.202,7	302.500,2	302.900,1	305.142,2
	Espainia	27.084,8	27.373,3	27.741,6	28.230,8	28.729,0	29.226,7	29.755,3
Landunak guztira	EB-25	184.746,9	186.362,0	188.387,4	189.124,4	190.308,2	191.624,9	194.894,7
	Espainia	14.583,2	15.399,3	16.039,2	16.526,5	17.187,8	17.861,2	18.833,7
Emakume landunak	EB-25	79.082,4	80.445,4	81.768,6	82.631,2	83.503,0	84.593,4	86.453,7
	Espainia	5.219,1	5.649,9	5.962,0	6.230,1	6.605,3	6.997,1	7.539,6
Emakume landunen %	EB-25	42,8	43,2	43,4	43,7	43,9	44,1	44,4
	Espainia	35,8	36,7	37,2	37,7	38,4	39,2	40,0

Iturria: Employment Statistics (Eurostat)

Emakume ugari lan-merkatuan sartzeari dagokionez, etxeko lanak ordeztetari buruzko datuak ere kontuan hartzekoak dira. Etxeko lanaren zati bat esternalizatzen da, zenbait sektoretan (jaketxe-arloan edo ikuztegietan, esaterako) jarduera ekonomiko handiagoa sortuz. Nolanahi ere, etxeko lanaren zati handiena honela banatzen da:

- Emakumeen lan-karga igoz; orain lanaldi bikoitzari (merkataritzan eta etxean) egin behar diote aurre neurri handiagoan.

⁹ 1995etik 2006ra bitarte, lanaldi partzialeko enplegua % 15etik 20ra igo da EB-15en biztanleria landunaren artean; Espainian, aldiz, % 7,5etik 12,5era igo da aldi berean. EB-15en milioi bat enpleguaniztun gehiago daude. Espainian, 1995ean 193.000 enpleguaniztun zeuden; 2006n, berriz, milioi erdi inguru dira. EB-15eko hiru enpleguaniztun berrietatik bat espainola da. (Eurostaten datuak.)

- Hobeto ordaindutako lanpostuak lortzen dituzten emakumeek, edo merkataritzan lortutako diru-sarrerak familia-eremuaren errenta-osagarritzat jotzen dituztenek, azpikontratatu egiten dute etxeko zereginen zati bat. Horretarako, lanerako indar masiboa sartu behar izan da lan-merkatuan, ia dena femeninoa, atzerriko jatorrizkoa eta etxeko zerbitzuan jarduteko.

Kontuan hartzekoa da etxeko zerbitzuaren eta zerbitzu pertsonalen ehunekeo handi bat ezkutukoa dela. Hortaz, estatistiketan erregistratutako tasa izugarri handiek gutxietsi egiten dute jarduera horietan sortutako enplegua, hain zuzen ere jarduera horietan benetan lan egiten dutenen erditik gora kontuan hartzen ez dutelako.

Etxeko sektorean, gizarte-zerbitzuetan eta zerbitzu pertsonaletan enplegua sortu izana eta enplegu-eskaintzaren zati handi bat lanesku etorkinarekin estali beharra ez dira lanesku-eskaintzaren igoeraren ondorioz etorri (migratzeko erabaki indibidual ustez libreari loturik), Europako metatze-prozesuaren ezaugarri berrien ondorioz baizik. Prozesu horretan, funtsezko hiru faktore hauek nabari dira:

- Emakumeen artean gero eta gehiago dira etxeko lana uzten dutenak lan-merkatuarentz eta soldatapeko enplegurantz bideratzeko.
- Gizarte-prestazio publikoak murriztea eta merkaturatzea.
- Gizarte-harremanen eta harreman pertsonalen gero eta merkantilizazio handiagoa.

Joera horien ondorioz, lanerako indarra nabarmen igo behar da:

- Soldatapeko bihurtutako etxekoandreak etxeko zeregin askotan ordeztzeko.¹⁰
- Harreman pertsonalen eta gizarte-harremanen gero eta zati handiago bat merkatuaren bitartez hornitzeko.

Hortaz, mugimendu bikoitza nabarmendu da. Batetik, emakume nazionalek soldatapeko laneranzko bidea hartu dute, etxeko lanaren eremutik kanpo, eta, bestetik, atzerriko emakumeek etxeko lanera jo dute soldata bat lortzeko eremu

¹⁰ Emakumeak gehiengo zabala dira lan egiteko adinean dagoen biztanleria pasiboaren artean, etxeko zereginetan aritzen direlako. Hori dela-eta, ez dugu zertan hizkuntza «politikoki zuzena» erabili, ezta eufemismorik erabili ere etxeko lanaren sexu-berdintasunaren inguruan.

baten bila. Horrek agerian uzten du diskriminazio instituzionala dagoela, enplegu-egituretan eta lanerako indarraren erreprodukzio diferentzialeko mekanismo baten erabilera sistematikoan oinarritua, eta hori sexuen araberako segmentazioetik haratago doa, eta ez du zerikusirik, zenbait feministek planteatzen duten bezala, botere-harremanen izaera patrialkalarekin, kapitalak lanerako indarrari balioa emateko —eta, aldi berean, lanerako indar hori erreproduzitzeko gizartedenbora nahikoa bermatzeko— duen premiarekin baizik. Emakume etorkinek betetzen dute eginkizun hori etxeko zerbitzuan, eta aipatzekoa da sektore horretan, itxuraz, soldata-harremana lanaren produktuaren zuzeneko kontsumoan oinarritzen dela, eta ez horren zabaldutako erreprodukzioan, kapitala den aldeetik; jopu-lana da, beraz, soldatapeko lana bainoago.

Hala, Erkidegoak lanerako indar etorkina kudeatzeko abian jarritako politikak kualifikazio-hierarkien eta langileen erreprodukzio moduen arteko korrespondentzia kudeatu nahi du, lanerako indarra erreproduzitzeko kostu sozializatuak eta kostu pribatuak aurrezte ahalbidetzeko, eskualde periferikoetatik langileak ekarri. Izan ere, eskualde horietako lanerako indarra, gizarte-eskubiderik ezean, migratzeko prest azaldu da, baita tokiko lanerako indarrak baino kostu txikiagoan lan egiteko prest ere, soldatarik gabeko lana ordeztuz (etxeko lana, landa-lana), hala eta guztiz ere lan-baldintzak hobetzen dituelako jatorrizko herrialdearen egoera aintzat hartuta, jomugako herrialdearen ondasun sozializatuak eskuratzeko aukera baitu.

Prozesu horrek ez dakarkie inolako berritasunik garatutako ekonomien funtzionamenduari. «Barru»ko eta «kanpo»ko langileen arteko gizarte-mugak lekualdatzen ari dira, besterik ez. Hirurogeiko hamarkadako Europan, poloniarak, italiarrak, portugaldarrak edo espainolak «kanpo»tik sartzen ziren metatze-zikloan; gaur egun, berriz, muga hegoalderago mugitu da, kolonia zaharretara alegia. «Etxeko» lanerako indarrari lotutako lanesku berria handik dator, baina gizarte-harreman *etnifikatuak* osatzen dituzten irudikapen eta estereotipo kultural berezi batzuk dauzka, lanerako indarraren segmentazioa eta estratifikazioa errazteko eta klaseko kontzientzia eta praktika bateratua sor dadin oztopatzeke.

2.5. Aldaketak lanerako indarraren kudeaketan

Azken hamarkadetan lan-merkatuaren batez besteko baldintzek behera egin dute nabarmen, eta horrek zuzeneko ondorioak eragin ditu lanerako

14. taula

Landunak EAEn, sexuaren eta nazionalitatearen arabera, 1999-2006

Urtea	Landunak guztira			Emakume landunak		
	Natiboak	Atzeritarrak	Guztira	Natiboak	Atzeritarrak	Guztira
1999	811.389	3.661	815.050	297.285	1.094	298.379
2000	839.521	8.383	847.904	311.450	1.631	313.081
2001	867.031	10.380	877.410	331.731	4.001	335.732
2002	876.538	15.185	891.723	340.999	7.356	348.355
2003	892.934	19.609	912.544	357.158	8.164	365.322
2004	891.150	30.838	921.988	359.894	14.343	374.237
2005	915.170	43.074	958.244	375.797	20.929	396.726
2006	935.510	49.400	984.910	391.855	25.278	417.133

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

indarraren ordainsariatetan eta enplegu-baldintzetan. Helburuak —ekonomiaren batez besteko irabazien tasa berreskuratzea— egiturazko ondorioak ekarri ditu, honako bi alderdi hauetan bereziki:

- Bilakaera demografikoan; lanerako indarraren erreprodukzio-baldintzen mende dago bilakaera hori.
- Produkzio-egituraren (jardueren) bilakaeran, lanerako indarraren erreprodukzio-baldintzek eta soldata-arauak eskariaren edukiak baldintzatzen dituztelako (eskari hori segmentatua dago soldata-errentak eta bestelako errentak jasotzen dituztenen artean, eta, soldatapekoen artean, mailen arabera).

Lan-merkatuaren bilakaera horrek eta horrek produkzio-egituraren eragin duen inpaktuak emakumeen laneku masiboa baliatu beharra eragin du lehenik, eta lanerako indar etorkina ekarri beharra ondoren.

14. eta 15. tauletatik ondorioztatzen denez, 1999tik 2006ra bitarte sortutako hamar enplegutatik zazpi emakumeek hartu dituzte, eta lautik bat gutxi gorabehera bi sexuetoako etorkinek. Alabaina, etorkinen barruan, emakumeek lanerako indar etorkinari esleitutako enpleguen erditik gora (hamar

15. taula

EAEko landun berriak sexuaren eta nazionalitatearen arabera, 1999tik aurrera

Urtea	Landunak guztira			Emakume landunak		
	Natiboak	Atzerritarrak	Guztira	Natiboak	Atzerritarrak	Guztira
2000	28.131	4.723	32.854	14.165	537	14.702
2001	55.641	6.719	62.361	34.446	2.908	37.353
2002	65.148	11.525	76.673	43.714	6.262	49.976
2003	81.545	15.949	97.494	59.873	7.071	66.943
2004	79.761	27.177	106.938	62.609	13.250	75.858
2005	103.780	39.414	143.194	78.512	19.835	98.347
2006	124.121	45.739	169.860	94.570	24.185	118.755

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

lanpostutik bost) hartzen dute azken urte hauetan, eta kontuan hartzekoa da 1999an 10 lanpostu berritatik bat baino ez zutela berenganatu.

2.6. Lanerako indar etorkinaren produkzio-integrazioa

Badago garrantzi handiko galdera bat eskura ditugun azterlanek erantzuten asmatzen ez dutena: langabezia-tasa handiak dituen herrialde batean, zer dela-eta lanerako indar potentzialaren igoera masibo eta kontzentratua denboraldi laburrean, langileen immigrazio masibora joaz?

«Dei-efektua» aipaturikoa da ohiko arrazoibidea. Horren arabera, etorkinak beren borondatez etortzen dira bizi-baldintzak hobetzeko, aldeztu aurretik migratu zuten ahaide eta lagunek erabiltzen dituzten zerbitzu publiko unibertsalen multzo bat dagoela aprobetxatuz. Arrazoibidearen zirkular-tasuna alde batera utzita (nork «deitu» zien lehen langile andanei?), arrazoibide hori ez dator bat etorkinek Espainiako lurraldean duten banaketa espazialarekin, etorkinen kokapenak ez duelako zerikusirik autonomia-erki-degoen bizi-mailarekin, enpleguen eskuragarritasunarekin baizik. Metatze-prozesu nazionalak berak sorrarazten du lanerako indar etorkina, adarren

eta jarduera espezifikoen arabera balorizazio-premiei erantzuteko, horiek guztiak nabarmen hedatzen ari direla eta lan-eskasiak eragindako arazoak dituztela aintzat hartuta.

Hortaz, ohiko txostenek ezarri ohi duten kausazko erlazioaren aurka, langile etorkin landunak izateak ez dakar jarduera ekonomikorik, eta, ondorioz, BPGaren edo balio erantsiaren igoerarik. Aitzitik, Espainiako jarduera ekonomikoaren funtzionamendu berriaren ezaugarri espezifiko batzuk dira lan-eskasi etorkinera jo beharra eragin dutenak. Etorkinek autonomia dute Espainiara (edo Euskadira) lekualdatzeari buruzko erabakia hartzeko, baina etorkinentzako lanpostuen eskaintzak betiere mugatu eta baldintzatzen du autonomia hori. Kontua da faktore horiek identifikatzea lanerako indar etorkinaren erabilera baldintzatzen duten lanpostuen eskaintzan.

2.6.1. *Langileen arteko lehia indartzea*

Langileen arteko lehia handitzea, horixe da lanerako indar etorkinaren presentzia masiboaren lehen emaitza. Nolanahi ere, baieztapen hori argitu behar da, iritzi publikoaren sektoreetan maiz ageri diren gaizkiulertuak ezabatzeko.

Lanerako indarraren igoerak langileen arteko lehia igotzea dakarrela esateak ez du esan nahi langile etorkinek langile natiboen lanpostuak hartzen dituztenik, azken horiek ordeztuz. Ongi dokumentatu da etorkinek ez dituztela natiboen lanpostuak hartzen, baizik eta bereziki natiboek —arrazoi espazialak edo kulturalak direla medio— hartzen ez dituzten lanpostuak hartzen dituztela, eta ez hainbeste soldata-mailekin zerikusia duten arrazoiengatik (natiboek ordainsari urriko hainbat lanpostu hartzen dituzte).¹¹ Nolanahi ere, immigrazio masiboaren fenomeno berriak zera erakutsi du, batez ere, atzerriko langileek lanpostu *berrien* zati bat estaltzeko balio dutela. Hortaz, etorkinek tokiko lan-merkatuan duten parte-hartzeari esker, sekto-

¹¹ Deigarria da etorkin gehien dauden tokietan —horietako asko egoera irregularrean daude— langabezia-maila txikiak edukitzea. Hori argi eta garbi ikus daiteke biztanleria etorkina biztanleria osoaren % 40, % 50 eta % 60tik gorakoa den Alacanteko zenbait udalerritan. Toki horietan guztietan aberastasuna sortu da, eta beraz argi dago langile etorkinek zeresan handia dutela horretan, eta, hala, laurogeita hamarreko hamarkadaren amaieratik Espainian nabari den etekinen aldeko banaketa-eredua indartzea erraztu dutela.

reko erabateko enpleguko unean uneko egoerak saihestu dira, eta kontuan hartzekoa da egoera horiek soldatak ezinbestean igoaraztea ekarriko zuketela, baita indarreko metatze-tasa mugatzea ere, etekin bateratuak mugatuz. Hala, soldatak % 10 igo dira batez beste Euskadin 2000tik 2004ra bitarte (produkzioa, aldiz, % 29 igo da). Eraikuntzaren sektorean, aldiz, aldea handiagoa da. Izan ere, produkzioaren balioa % 62 igo da, eta, batez besteko soldatak, % 17 soilik.

16. taula

Produkzioaren (BPG) eta soldaten igoera-indizea
(2000 = 100) EAEn, 2004

Sektorea	Produkzioa	Batez besteko soldata
Nekazaritza	111	109
Energia	126	105
Industria	119	107
Eraikuntza	162	117
Zerbitzuak	130	115
Guztira	129	110

Iturria: Espainiako eskualde-kontabilitatea (Estatistikako Institutu Nazionala)

Langileen arteko lehiari dagokionez, atzerriko langileek soldatapeko lanera masiboki jotzen duten emakumeenaren antzeko eginkizuna betetzen dute. Alabaina, emakumezko langile natiboak ez bezala, etorkinen oso ehuneko handi bat klandestinitate-egoeran dago lanari eta egoitzari dagokionez. Beraz, etorkinak emakumeak baino egoera prekarioagoan daude, eta, horregatik, beste eginkizun batzuk bete behar dituzte lanerako indarra kudeatzeari dagokionez:

- Laneko taldeetan langile natiboekin batera agertzeak lanerako indarraren segmentazioa errazten du enpresen barruan. Etorkinek oro har, baina estatutu erregularrik ez dutenak bereziki, langileen ekintza kolektiboa zailtzen dute nolabait, laneko taldea antolatzekeo prozesuan parte-hartze urria dutelako, eta parte-hartze hori are zailagoa da etorkinek produkzio-jardueraren gune prekarioen eta behin-behine-

koenak hartzen dituztela aintzat hartuta. Langile etorkinen afiliazio sindikaleko tasak txikiak dira langile natiboen aldean, eta hori fenomeno horren adierazgarri da.

- Etorkinei eskainitako enpleguaren sektore-espezializazioak (etxeko lana, merkataritza eta ostalaritza, eraikuntza eta nekazaritza) aukera ematen du lanerako indarra sektoreen artean segmentatzeko. Hala, espezializazio-sektoreak baliagarri dira soldata txikietan eta metatze-tasa handietan oinarritutako metatze-eredu batzuentzat. Izan ere: a) etxeko zerbitzuko langileek zenbait zerbitzuren kudeaketa pribatua errazten dute —zaharrak zaintzea, haurtzaindegia, elikatzeko eta garbitze-lanak—, eta horrek zama handia kentzen dio Estatuari jarduerara horiei dagokienez, eta ondorioz enpresen gaineko zerga-presioa murrizten du, etxeko unitateetako lan-denboraren funtsezko zati baten merkantilizazioaren eraginez; b) eraikuntzan jarduten duten etorkinek izugarritzko etekinak ekarri dituzte sektoreko enpresentzat, balioa bizkor metatzeko prozesuan, eta horrek etorkizunean beste produkzio-jardueretan inbertitzeko bide eman dezake; c) langile etorkinak langileen kontsumorako ondasunak hornitzeko jardueretan enplegatzeak —nekazaritza/elikadura, ostalaritza, merkataritza eta abar— ondasun horien prezio-igoerei eustea errazten du, eta horrek soldatapeko natiboei beren kontsumo-mailei eustea errazten du gainera, eta, hori ez ezik, soldatak geldiarazi egiten ditu; ondorioz, enpresen balio agregatua igotzen da, gizartean gaitzespen gehiegi eragin gabe.¹²

Lan-segmentazioa klase-harremanak hausteko modua da, zenbait faktore ideologikok harreman horiek zeharkatu eta erreferentziazko nortasun komuna zatitzen baitute: matxismoak zeregin hori betetzen du emakumeak lanerako indarrera masiboki biltzeari dagokionez, eta arrazakeriak eginkizun bera betetzen du lanerako indar etorkinari dagokionez. Lehiatzeko osagai ideologiko horiek langileen arteko lehia erreproduzitu, eta, aldi berean,

¹² Orain berrehun urte David Ricardo jaunak klasiko bihurtu den planteamendua adierazi zuen *Principios de economía política y tributación* lanaren 7. kapituluari. Ricardo jaunak langileen kontsumo-ondasunen inportazioa sustatzen zuen, ondasun horiek merkatzeko eta irabazien zati bat handitzeko. Kasu honetan, ondasunak ez ezik (Asiako eta Ekialdeko Europako inportazioak), laneskua ere inportatzen da Afrikatik eta Latinoamerikatik.

legeztatzen du, langile «normalizatu»en haserrea prekariedade handiena duten segmentuetara bideratuz, langile horiek beren lan-baldintzak hondatzen direla ohartzen baitira. Aldearen arabera identifikazioa langileen klaseetako behartsuenen autobabeserako sistema ere bihurtzen da, baina identifikazio kolektiboko metodoa da, eta, epe luzera, eraginpeko taldeen mendeko tokia iraunarazten du produkzio-katean.

Hortaz, honako ondorio hau atera daiteke: atzerriko langileek funtsezko zeregina betetzen dute gaur egungo eredu ekonomikoan, eta lan-merkatuan duten parte-hartzea aldatzen bada, nola kontzientziazio kolektiboko prozesuaren bitartez, hala ekonomiaz kanpoko arrazoiak direla medio langileen fluxua goitik behera aldatzen delako, horrek funtsezko tentsioak eragin ditzake Espainiako kapitalismoaren funtzionamenduan, eta egoera hori kudeatzea zaila eta delikatuia izango da benetan.

2.6.2. *Langile etorkinen sektore-banaketa*

Atzerriko langileek lan guztietan parte hartzen dute, baina bereziki merkataritza-arloa biltzen dira, baita eskuko langile kualifikatuen eta ez-kualifikatuen arloetara ere.

Nolanahi ere, kualifikazio guztietan etorkinek oso ehuneko txikia dute, eta langile ez-kualifikatuen artean bakarrik iristen dira langileen ehuneko bira;¹³ guztira, euskal lanerako indarraren ehuneko bat baino gutxiago dira.

Manufaktura-industriak, eraikuntza eta merkataritza dira atzerriko lanerako indar handiena eskatzen duten produkzio-adarrak. Eraikuntzak sei langile etorkinetatik bat bereganatzen du, eta eraikuntzaren *goraldiari* lotutako laneskua eskatzen du. Horren eraginez, eraikitako etxebizitzaren bolumena ia hirukoiztu da 1987. urteaz geroztik.

Nolanahi ere, industriak lanesku etorkinaren antzeko ehunekoa bereganatzen du, batetik, Euskadiren espezializazio industrial handiagoa delako, eta, bestetik, higiezinaren *goraldiak* Espainiako beste eremu batzuetan baino inpaktu txikiagoa eragin duelako.

¹³ Langile ez-kualifikatuetako asko ezkutuko ekonomian aritzen dira, eta horrek esan nahi du horrelako jardueretan aritzen diren atzeritarren ehunekoak zifra ofizialak gaindi ditzakeela; nolanahi ere, guztira gutxiengo argia dira enplegu ez-kualifikatuaren arloan.


17. taula
EAFko atzeritarren eta nazionalen ehunekoa lanaren arabera, 2006

	Zuzendari kudea- tzailea	Profesional teknikoa	Laguntza- teknikaria	Enplegatu administratia	Merkataria, zerbitzaria, Indar Armatuak	Nekazaria, arrantzalea	Langile kualifikatua	Makineriako langilea	Langile ez-kualifikatua	Guztira
Atzeritarrak (milakotan)	414	642	836	370	3.296	341	3.238	566	5.853	15.556
Atzeritarrak (%)	2,7	4,1	5,4	2,4	21,2	2,2	20,8	3,6	37,6	100,0
Nazionalak (milakotan)	52.737	181.264	193.580	117.805	274.388	35.863	257.338	160.007	296.115	1.569.097
Nazionalak (%)	3,4	11,6	12,3	7,5	17,5	2,3	16,4	10,2	18,9	100,0
Atzeritarrak/ guztira (%)	0,78	0,35	0,43	0,31	1,19	0,94	1,24	0,35	1,94	0,98

Iturria: Biztanleriaren Inkesta Jardueraren arabera (Eustat)

17. grafikoa


EAEko atzerritarren eta nazionalen banaketa kualifikazioaren arabera (% bertikala)



Iturria: Biztanleriaren Inkesta Jardueraren arabera (Eustat)

18. grafikoa


EAEko atzerritar lanerako indarraren banaketa jarduera-adarren arabera, 2006



Iturria: Biztanleriaren Inkesta Jardueraren arabera (Eustat)

19. grafikoa

Etxebizitza-eraikuntza EAEn, 1987-2006¹⁴



Iturria: Etxebizitza-eraikuntza (hasitakoak eta amaituak) (Eustat)

Etorkin gehienek adar guztietako kualifikazio txikieneko mailetara jotzen dutenez, bertako langileek alde batera utzitako lanak hartzen dituzte normalean, eta horren haritik esan beharra dago bertako langileek gero eta gehiago eskatzen dutela eta gero eta gutxiago direla kualifikazio txikiko lan nekagarri, arriskugarri eta gaizki ordaindutakoetan jarduteko prest ageri direnak, Espainiako biztanleriaren hezkuntza-mailaren igoerak eta gizarte-eta soldata-itxaropenak hobetu izanak kualifikazio txikiagoko sektore osoak hustea eragin duelako.

Lanerako indarraren sektore-banaketa eta landunen tasa gurutzatzen baditugu, etorkin gehienak honela biltzen direla ohartzen gara:

¹⁴ Etxebizitza-eraikuntza ez da eraikuntzaren sektorearen jardueraren adierazle orokorra; obra publikoa ere hartu beharko litzateke kontuan. Nolanahi ere, aipatzekoa da nahiko tamaina adierazgarria duela (sektorearen jardueraren herena baino pixka bat handiagoa), eta lanekuari dagokionez bereziki intentsiboa dela. Hortaz, lagungarri gerta daiteke eraikuntzaren sektorearen eskaria ulertzeko.

- Langile ez-kualifikatuak (% 37,6), etxeko zerbitzuan (% 18,3), eraikuntzan (% 5,9) eta higiezinaren jardueren eta enpresentzako zerbitzuetan (% 5,3).
- Merkataria eta zerbitzaria (% 21,2), merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorean (% 15,9) eta etxeko zerbitzuan (% 4,2).
- Langile kualifikatuak (% 20,8), industrian (% 7,2) eta eraikuntzan (% 9,4).

Kualifikazio-maila handiko langileen eskaria (kudeatzaileak, profesionalak eta teknikariak) manufaktura-industriatik dator bereziki (atzerriko langileen % 5,1), eta neurri txikiagoan hezkuntzaren (% 3) eta merkataritzaren (% 2,1) sektoreetatik. Zuzendaritza-jardueretan aritzen diren atzerritarrak manufaktura-industrietan bakarrik ageri dira, baita merkataritza-sektorean ere, eta kargu horiek kapitalaren atzerriko jabetzari lotzen zaizkio.

Lan-estatistiken arabera, etorkinak sektore jakin batzuetan biltzen dira, hain zuzen ere lan nekagarrien, arriskutsuen eta izugarri prekarioen sektoreetan, eta errealitate hori are larriagoa da azken urte hauetan lan-istripuen kopurua etorkinen artean nabarmen hazi dela kontuan hartzen badugu. Lan-istripuen zifrek gora egin dute Espainian, eta gainera lan-gaixotasunak maiz ageri dira langile etorkinen artean, gaixotasun horiek batzuetan aintzat hartzen ez badira ere eta estatistika ofizialetan zifra horiek merezi duten tokia ez badute ere, eta horrek guztiak langile etorkinak lan-prekarietate handiko baldintzetan aritzen direla ematen du aditzera.

Nolanahi ere, etorkinen lan-prekarietate hori beste eremu batzuetara ere hedatu da, hain zuzen ere gizartearen eta legearen eremuetara. Izan ere, etorkinak lan-esku merkea eta erraz esplotatzeko modukoa bihurtu dira, dokumentu- eta lege-eskakizunen eraginez, baita etorkinak kontratatzeak eskatzen dituen betekizunak direla medio ere. Etorkinek gaur egun funtseko okupazio-sektorea osatzen dute, hainbat eskualdetako ezkutuko ekonomia eta lan-faktorearen erabilera intentsiboa egiten duten sektoreak hornitzen baitituzte.

2.6.3. *Emakume langile etorkinen zeregin espezifikoa*

Atzerritar lan-eskuak, ezbairik gabe, jardueren jakin bat behar du behar bezala garatzeko: etxeko enplegua. Jarduera horrek emakume langileak dituen jomuga ia bakartzat, sektorearen enpleguaren % 98tik gora baitira.

18. taula

EAEEn lan egiten duten atzeritarren banaketa, adarren eta lanbide-kategorien arabera, 2006 (%)

Adarra	Zuzendari kudeatzailea	Profesional teknikoa	Laguntza-teknikaria	Enplegatu administratia	Merkataria, zerbitzaria, Indar Armatuak	Nekazaria, arrantzailea	Langile kualifikatua	Makineriako langilea	Langile ez-kualifikatua	Guztira
Nekazaritza, abeltzaintza, ehiza eta basogintza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,9	0,0	0,0	0,5	1,3
Arrantza eta akuikultura	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,5	1,5
Erauzteko industriak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Manufaktura-industria	2,2	0,9	2,0	0,0	0,0	0,0	7,2	2,2	2,4	16,8
Eraikuntza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Energia elektrikoaren produkzioa eta banaketa	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	9,4	0,4	5,9	15,6
Merkataritza eta konponketak	0,5	0,0	1,6	0,7	7,9	0,0	2,8	0,5	0,8	14,8
Ostalaritza	0,0	0,0	0,0	0,0	8,0	0,0	0,0	0,0	0,2	8,2
Garraioa, biltegiatzea eta komu-nikazioak	0,0	0,0	0,0	0,2	0,3	0,0	0,0	0,5	0,7	1,8
Finantza-bitartekaritza	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0
Alokairua, higiezinaren jarduerak eta enpresentzako zerbitzuak	0,0	1,0	0,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	5,3	6,5
Administrazio publikoa	0,0	0,4	0,0	1,1	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	1,5
Hezkuntza	0,0	1,8	1,2	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,3	3,3
Jarduera sanitarioak eta albatari-tzakoak; gizarte-zerbitzuak	0,0	0,0	0,0	0,0	0,8	0,0	0,0	0,0	1,0	1,8
Bestelako gizarte-jarduerak eta zerbitzu pertsonalak	0,0	0,0	0,3	0,0	0,0	1,3	1,5	0,0	0,9	3,9
Etxeko langileak dituzten etxeko en-unitateak	0,0	0,0	0,0	0,0	4,2	0,0	0,0	0,0	18,3	22,5
Lurraldez kanpoko erakundeak	0,0	0,0	0,0	0,4	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,4
Guztira	2,7	4,1	5,4	2,4	21,2	2,2	20,8	3,6	37,6	100,0

Iturria: Biztanleriaren Inkesta Jardueraren arabera (Eustat)

Emakume langileak masiboki sartu dira lan-merkatuan, eta hortik dator emakume etorkinak enplegatzeko premia. Emakumeen lan-jardueraren igoera itzel horrek merkataritza-eremua nabarmen handitzea dakar berekin, eta horrek, gizarte-denborari —hau da, pertsonen guztira eskura duten denborari— dagokionez, etxeko lanaren denbora murriztea eragiten du, baita soldatapeko lanera jo beharra ere, etxeko zereginen zati bat estaltzeko.

20. grafikoa

Jarduera-tasa eta emakume langileen kopurua EAEn (milakotan)



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala)

Laurogeiko hamarkadan, familiaren lan-eredutik lan-eredu pertsonalerako trantsizioa gertatu zen, eta laurogeita hamarreko hamarkadan eredu hori finkatu zen. Laurogeiko hamarkadara arte, hamar emakumetatik hiru bakarrik biltzen ziren euskal lanerako indarrera; laurogeita hamarreko hamarkadan, berriz, emakumeak poliki-poliki lan-merkatuan sartzen hasi ziren, eta gaur egun bi emakumetatik batek parte hartzen du lan-merkatu horretan. Horrek ordu-kargaren igoera dakar emakume langileentzat, lan-jardunaldia eta alde batera utzi ezinezko etxeko lanaren orduak bateraga-

rri egin behar dituztelako; nolanahi ere, esan beharra dago gainesfortzu horrek etxeko lanaren denboraren zati bat baino ez duela estaltzen. Etxeko lanari dagozkion milioika ordu ordeztu behar dira, emakumeen lan- eta merkataritza-jarduerak aldi berean familien gizarte-erreprodukzioa ahalbidetzen dezan.

Simulazio soil batek gaiaren dimentsiora hurbiltzeko aukera ematen du. Laurogeiko hamarkadaren hasierako jarduera-tasak (% 28) etxeko lan guztia egiteko aukera ematen zuela ontzat ematen badugu, horrek esan nahiko luke 2007an lan-merkatuko 263 emakume bateragarri zirela etxeko lana gauzatzearekin. Alabaina, lan-merkatuan benetan parte hartzen dutenak 427.000 dira, eta horrek lan-merkatuan sartu berriek etxeko zereginetara ordu gutxiago bideratzea dakar berekin, hain zuzen ere lau lanordu lanegun bakoitzeko. Horrenbestez, etxeko 144 milioi lanordu ordeztu behar dira. Lan horretan 15.280 atzeritar emakumetatik gora aritzen dira Espainian,¹⁵ asteen 43 lanordu inguru sartuz.

Emakume etorkinak Euskadiko eta oro har Espainiako lan-merkatuaren erregulazio berrian duen zeregina funtsezkoa da, Gizarte Segurantzaren aldetan pisu hori behar bezala nabarmentzen ez bada ere, ezkutuko ekonomiak indar handia duen lanetan —etxeko zerbitzuan eta zerbitzu pertsonaletan, esaterako— aritzen direlako.


Horren haritik, bereziki deigarria da emakume etorkinak oso lan-nitxo jakinetan jarduten duela ikustea, emakume etorkinek okupazio-sektore itxi batzuk (etxeko zerbitzuak, pertsonen zaintza eta ikastetxeen garbiketa-lanak) ia-ia osorik berenganatzen baitituzte. Emakume etorkinak prest azaldu dira enplegu horietan aritzeko eta lan-baldintza prekarioak onartzeko, eta, horri esker, enplegu horiek lanesku egokia aurkitu dute, baina horrek emakume horien sustapen pertsonala eta profesionala galarazten du aldi berean.

Lan horien ezaugarri pertsonalek erraztu egiten dute lan-baimenik gabeko emakumeak horietan aritzea, eta horrek immigrazio irregularra sustatzen du okupazio-sektore horiei dagokienez. Lan horiek gero eta garrantzi

¹⁵ 2006. urtean etxeko lanean aritu ziren atzeritar emakumeen proportzioa kalkulatu da, «Biztanleriaren Inkesta Jardueraren arabera» izeneko inkestaren arabera, eta ehuneko hori 2006. urteko EAEko atzeritar emakume langileen kopuru osora eraman da (azken kopuru hori Biztanleria Aktiboaren Inkestatik atera da).

21. grafikoa

EAEko atzeritar lanerako indarraren banaketa, sexuen
eta jarduera-adarren arabera, 2006 (%)



Oharra: Datu horiek inkesta batetik eratorri dira, eta ez errolda-erregistro batetik; horregatik, zenbait desbideratze bil ditzakete, nola kopuruari hala sexuen arabera esleipenari dagokienez

Iturria: Biztanleriaren Inkesta Jardueraren arabera (Eustat)

handiagoa hartzen ari dira, eta, horren eraginez, hainbat enpresa pribatu ahalegintzen ari dira merkatu hori berenganatzen, inolako lege-erregulaziorik ez badute ere.

Mendebaldeko herrialdeetan, gero eta gehiago dira etxeko zerbitzuan aritzen diren edo beste pertsona batzuk zaintzen edo laguntzen dituzten emakume etorkinak. Gainera, emakume horiek beren seme-alaba, guraso eta ahaideen ardura ere hartu behar dute, sarritan urruneko herrialdeetan badaude ere. Hala, ohikoa da emakume etorkinek erantzukizun hori familiararen beste emakume batzuen esku uztea, edo bestela, atzerrian lortutako

diru-sarrera handiagoei esker, diru-sarrera txikiko langileak kontratatzea beren etxeko unitateak zaintzeko. Horren ondorioz, emakume etorkinek «munduko zaintza-katea» sorrarazi dute, pertsonen arreta eskaintzeko nazioarteko sistema, gizarte-klasearen, eta askotan, talde etnikoaren, arabera estratifikatua. Kate horren bitartez, etxeko emakume langile ugariak bi etxeko unitateen ardura hartzen dute, enplegu-emailearena eta norberaren urrunekoa, eta hartara ekarpen handia egiten diote munduko ekonomiari, neurri handi batean hori oraindik onartu ez bada ere. Izan ere, Espainiako emakume etorkinen % 60k etxeko zerbitzuan jarduten du, Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak 2006an emandako datuen arabera. Emakume horiek nork bere familia abandonatu behar dute familia hori mantendu ahal izateko, eta argi dago horren truke prezio psikologiko eta emoziozko itzela ordaindu behar dutela. Edonola ere, maitasuna eta arreta eskaintzen diete beren enplegu-emaileen ondorengoei, beren seme-alaben bizi-kalitatea hobe dezaketen diru-sarreraren truke. Kontuan hartzekoa da urtetan egon ohi direla seme-alaba horiek ikusi gabe, baina aldiari-aldiari soldataren zati bat igortzen diete diru-bidalketen bitartez. Gaur egun Espainia munduko seigarren igorlea da etorkinen diru-bidalketei dagokienez, eta lehena etorkinek Latinoamerikara igorritako diru-bidalketei dagokienez.

2.6.4. *Giza kapital metatua biztanleria etorkinean*


Biztanleria etorkinaren inguruan estereotipo bat baino gehiago zabaltzen da. Horiatariko baten arabera, biztanleria etorkinak, herrialde periferikoei datorrenez, kualifikazio-maila txikiagoa du, eta horrek justifikatzen du soldata-desberdintasunak izatea edo etorkinak kualifikaziorik gabeko enplegu-nitxoetara biltzea.

Datu berriek, ordea, oso bestelako panorama erakusten dute. Atzerriar biztanleriaren artean gehiago dira ikasketarik ez dutenak biztanleria natiiboaren artean baino, baina askoz ere handiagoa da, halaber, bigarren mailako ikasketak dituztenen ehunekoa. Ondorioz, Espainian lanerako adinean dagoen biztanleria natiiboaren erdiak baino gehiagok ez du ikasketarik edo lehen mailako ikasketak baino ez ditu; atzerriar biztanleriaren artean, aldiz, ehuneko hori % 45,5era murrizten da.

EAEn, lanerako adinean dagoen biztanleria natiiboaren % 37,2k ikasketarik ez du edo lehen mailako ikasketak ditu. Atzerriar biztanleriaren

22. grafikoa

16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren prestakuntza,
Biztanleria Aktiboaren Inkestaren batez bestekoa, 2006 (% bertikala)*



* 2006ko bigarren hiruhilekotik 2007ko lehen hiruhilekora bitarte

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

artean, berriz, egoera horretan daudenak % 43 dira. Beste muturrean, lane-rako adinean dagoen biztanleria natibo espainolaren % 26,5ek LH2ko edo goragoko ikasketak ditu; biztanleria etorkinaren artean, berriz, % 19,8k egin dituzte maila horretako ikasketak. EAEn, ehuneko horiek % 40,1 eta % 25,6 dira, natiboen eta atzerritarren artean, hurrenez hurren.

EAEko lanerako indar natiboak kualifikazio-maila handia du, Espainian baino nabarmen handiagoa. Nolanahi ere, atzerritar biztanleria aktiboak kualifikazio-maila handiagoak ditu EAEn Espainian baino. Ondorioz, kualifikazio-egitura biztanleria natiboarenaren antzekoa da, eta goragoko kualifikazio-mailen pisu txixixeagoa ez da adierazgarria (% 3 gutxiago unibertsitate-ikasketekin, eta % 3 gutxiago bigarren mailako edo lanbide-heziketako ikasketekin).

19. taula

16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren prestakuntza-mailak,
jatorriaren arabera, 2006*

Hezkuntza-maila	Espainia		EAE	
	Natiboak	Atzerritarrak	Natiboak	Atzerritarrak
Ikasketarik gabe	4,79	8,31	1,42	3,67
Lehen Hezkuntza	46,50	37,21	35,97	39,60
Bigarren Hezkuntza	14,05	28,86	12,49	26,84
Erdi-mailako LH	7,76	5,62	9,57	4,25
Goi-mailako LH	8,26	5,05	17,38	8,48
Unibertsitate-ikasketak	18,27	14,74	22,77	17,16
Etengabeko prestakuntza	0,36	0,21	0,41	0,00

* 2006ko bigarren hiruhilekotik 2007ko lehen hiruhilekora bitarte


Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala)

Emaitza horiek bat datoz Europar Batasunak egindako azterlan orokorrek. Esaterako, De Palo, Faini eta Venturini autoreek adierazi dutenez (2006: 7), «etorkinek natiboek baino hezkuntza-maila handiagoa dute», eta «Danimarka, Belgika eta Espainia bereziki eraginkorrak dira hezkuntza-maila handia duten etorkinak erakartzerakoan. Gainera, faktoreak hornitzeko eredu tradizionalak kontrakoa eskatuko lukeen arren, hezkuntza-emaitzei dagokienez natiboen artean maila txikia lortu duten herrialdeek (Italiak, Portugalek eta Austriak) huts egiten dute kualifikazio handiko etorkinak erakartzerakoan. Nolanahi ere, Portugalen eta Austrian —ez Italian—, etorkinen hezkuntza-mailak natiboenak baino nabarmen handiagoak dira».

Edonola ere, lan egiteko asmotan iristen diren etorkin ekonomikoek ez dituzte bertako herritarrak ordeztzen, bertakoek egin nahi ez dituzten lanak egitera etortzen dira, eta horrela okupazio-segmentazioko prozesua sortzen da lan merkatuan, Espainiak izan duen hazkundeari zuzenean loturik (ekonomian, eta herritarren prestakuntzaren eta lanbide-itxaropenen hobekuntzan nabari da hazkunde hori). Eta hori hala da lanerako indar etorkin horrek ezin duelako nahi duen arloan jardun, ezta trebakuntza eta prestakuntza espezializatuaren arabera dagokion arloan ere, lan-arloko

23. grafikoa

EAEko 16 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleriaren banaketa ehunekotan, kualifikazio-mailen eta jatorriaren arabera, 2006 (%)



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkesta (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

agintariek enplegu-egoera nazionalaren printzipioaren bitartez ebatzitako sektore eta lan jakinetan baizik.¹⁶

Interesgarriena zera da, atzerritar biztanleriak kualifikazio handiagoa duela Euskadin Espainia osoan baino, lan-merkatuak prestakuntza-maila handiagoko lanerako indarra eskatzen baitu Euskadin. Natiboen eta atzerritarren prestakuntzaren arteko erlazioak berriz ere agerian uzten du metatze-dinamika dela lanerako indar etorkin jakin bat —produkzioaren premietara egokitutako ezaugarriekin— eskatzen duena. Eta hori aurrera eramaten ari da jatorrian lanskua hautatzeko politika aktiboek gure herrialdearen migrazio-dinamikan pisu txiki-txikia duten arren. Merkatuak hautatzen du betiere, laguntzako politika publikorik ez badago ere. Bilakae-

¹⁶ Egia da erregularizazioko ezohiko azken prozesua, abian jarri berri den eta estaltzen zaila den lan-katalogoarekin batera, printzipio horiek guztiak nabarmen desitxuratzen hasi dela, baina unibertsitate-titulazioak baliozkotzeko prozesua korapilatsua eta luzea da, eta horrek izugarri atzeratzen ditu unibertsitate-titulazioa eskura herrialde igoerleetatik datozen etorkin ugariak lan kualifikatu batean berehala aritzeko dituzten aukerak. Hala, ELGAren datuen arabera, etorkinen % 42,9k gainkualifikazioa du betetzen duen lanposturako; Espainiako biztanleriaren artean, aldiz, kopuru hori % 24,2ra jaisten da.

ra horren arabera, kualifikazioak nabarmenago egiten dituzten eta giza kapital etorkinaren balorizazioa hobetzen duten politikek eraginkortasun handiagoa eduki dezakete.

2.7. Enpleguarekin zerikusia duten gizarte-problematika garrantzitsuenak

Lan-osagaiak etorkinen ibilbide pertsonalak eta gizarte-ibilbideak baldintzatzen ditu neurri handi batean, eta horrela etorkinen etorkizunean eta gizarte-normalizazioko aukeretan eragiten du. Ezkutuko ekonomia dugu horren adibide argia. Gaur egun eskatzen diren dokumentu- eta lege-izapideak zailak dira, eta, horregatik, modu irregularrean jarduten duten etorkin guztiak ez daude egoera horretan paperik ez dutelako. Litekeena da, paper horiek eskura eduki arren, betetzen duten lanaren geografia- eta sektore-ezaugarrietara ez egokitzea, sor daitezkeen bestelako irregulartasun-egoerak ahaztu gabe.

Hain zuzen ere, emakume etorkina, kalteberatasunari, diskriminazioari eta gizarte-arriskuari dagokienez egoera txarrean dagoenez, lan marjinaletan —prostituzioan, bereziki— aritzera behartuta egon ogi da askotan. Horren haritik, banda kriminalek eta sare mafiosoek emakume etorkinei ezartzen dieten sexu-esplotazioa gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da, fenomeno horrek eragin handia duelako gizartean eta ekonomian. Emakume etorkin asko lege-irregulartasuneko egoeran daude, eta horrek biktima bihurtzen ditu hainbat esplotatzailerentzat; kalkuluen arabera, prostituzioan aritzen diren emakumeen % 70 etorkina da.

Etorkin askok lan-baldintza prekarioak dituzte, eta, horren ondorioz, lan-istripuen tasa oso handia da atzerritar langileen artean, hain zuzen ere langile horiek istripu-tasa handienak dituzten sektore eta lanetara biltzen baitira, eta, ondorioz, baldintza arriskugarriagoen eraginpean egoten direlako. Etorkinetako asko oso egoera ahulean daude lan-arloari dagokionez, eta irregulartasun-egoeran egon arren lanak ezinbestean onartzera behartuta daude lan-baldintzak gogorrak baino gogorragoak izanagatik ere. Hori dela-eta, heriotza eragiten duten istripuetako askotan ageri dira gaur egun, lan-istripuen tasa handienak dituzten probintzietan bereziki.

Badago beste zailtasun bat etorkinen gizarte-egoera erabat normalizatzeko bidean: alojamendua lortzea, eta bereziki langile etorkinek aloja-

mendu hori lortzeko berez prekariora, ezegonkorra, aldi baterakoa eta urte-sasoikoa den lanari aurre egin behar diotela aintzat hartuta. Toki askotan, atzerritar laneskua erabiltzen da urte-sasoiko eta denboraldiko kanpainetarako, baina ez da aurrera egiten langile horien eskura bizitoki-sare malguak jartzeari dagokionez, biltzen diren toki horiei loturik, eremu hortofrutikola jakin batzuetan gertatzen den bezala. Nolanahi ere, mugikortasuna garrantzi eta balio handikoa da etorkinentzat, urte-sasoiko hainbat enplegutuan aritzeko eta eskualde batetik bestera igarotzen diren denboraldiko kanpainetan lan egiteko aukera ematen baitie. Hala, atzerritar langileen sarrera eta irteera ahalbidetzeko mugimendu handiak izaten dira, eta langile horiek sare informalak —itxiak, eta abusu-egoerak sorrarazteko egokiak— bitartez lekualdatzen dira askotan.

Biztanleria etorkinaren okupazio-segregazioko prozesuak lanesku intentsiboa eskatzen den sektore eta lanetan eragiten ari dira; sektore horietan teknologia ezer gutxi sartu da edo ez da batere sartu, eta etorkinek lanaldi luzeak egin behar izaten dituzte, edo muturreko lan-baldintzetan. Hala, lan-arloko ezaugarri horiei eskualde horren berezko ezaugarri ekonomikoak erantsi behar zaizkio, hala nola aniztasun ekonomikoa, urte-sasoikotasuna eta aldibaterakotasuna, eta, horrekin batera, lan-merkatuak gero eta segmentatuagoak ageri dira etnien arabera, eta etorkinak nagusi dira haietan Espainiako hainbat eskualdetan.

Zalantzarik gabe, lan-altan dagoen atzerritar biztanleria gero eta handiagoa da, eta horrekin batera beste fenomeno kezagarri bat agertzen ari da: langabezian dagoen atzerritar biztanleria gero eta handiagoa da, eta horrek egoera duala —eta neurri batean paradoxikoa— dakar berekin. Biztanleria Aktiboaren Inkestaren azken datuen arabera (2007ko lehen hiruhilekoaren datuak dira), Espainian guztira 20.069.200 landun daude. Espainiako biztanleriaren jarduera-tasa % 58,58 da, eta atzerritarren, berriz, % 76,3. Langabezian dauden 1.856.100 pertsonen artean, langile espainolen langabezia-tasa % 7,8 da, eta atzerritarren, berriz, % 12,61 (382.900), eta aipatzekoa da azken urte hauetan goranzko joera nabari dela. Fenomeno anibalente horren arrazoiak konplexuak dira. Batetik, atzerritar langileen aldibaterakotasuneko eta prekarietateko tasa handien ondorio dira, baina beste hainbat fenomeno ere kontuan hartu behar dira, hala nola enplegu-zerbitzu publikoen funtzionamendua gero eta hobeto ezagutzen dutela; enplegu-eskatzaille gisa erregistratu behar direla, etorkizunean lan-baimenak berritzeko;

eta enplegu-eskatzaile gisa agertzeko premia, lanerako prestakuntzako ikastaroak egin ahal izateko. Gauzak horrela, erregistratutako langabeziari dagokionez 2007ko apirilean jasotako azken datuak aintzat hartuta, Espainian 154.139 atzerritar zeuden enplegu-eskatzaile gisa erregistratuta. Horietatik 43.571 Erkidegokoak ziren (% 28,2), eta 110.568, berriz, Erkidegotik kanpokoak (% 71,8). Guztizko horretatik 96.212k langabezia-prestazioren bat jasotzen zuen —25.242 Erkidegokoak (% 26,2) eta 70.970 Erkidegotik kanpokoak (% 73,8)—, eta kopuru hori % 30,8 igo da urtetik urtera.

Horren ondorioz, etorkinak beren lanpostuetan aritzea funtsezkoa da beren gizarte-egoera normalizatzeko eta mafia- eta estortsio-sareetatik urruntzeko. Beraz, zenbait erakunde pribatu eta espezializatu etorkinentzako enplegu-poltsen bitartez egiten ari diren lanari garrantzi berezia eman behar zaio. Izan ere, garrantzizko lehen mugarrria da gai horretan eskumenak dituzten erakunde publiko eta pribatuen ahaleginak bateratuko dituen langile etorkinen inguruan espezializatutako enplegu-sare zabala osatze aldera.

3

Etorkinek Euskadiko jarduera ekonomikoan duten inpaktua (produkzioa, kontsumoa eta fiskalitatea)

3.1. Etorkinak balio erantsiaren osaeran

Langile etorkinak Espainiako ekonomian sartu eta egokitu izana ez da faktore koiunturala, guztiz egiturazkoa baizik, eta gure ekonomiaren hazkuntzaren oinarria izan da. Gobernuako presidentearen Bulego Ekonomikoaren datuak (2006) eztaba daezinak dira: «azken hamarkadan BPGak izan duen hazkundearen % 30 immigrazio-prozesuari egotzi behar zaio, eta ehuneko hori % 50era iristen da hazkunde horren azterketan azken bost urteak soilik aintzat hartzen badira».

Dena den, immigrazioak hazkunde ekonomikoan duen zuzeneko inpaktuaren maila goren hainbat urte barru lortuko da, immigrazioak produktibitatean duen parte-hartzea hobetzen denean, kapitala-lana ratioa hobetzearen ondorioz. Hala ere, etorkinen ekarpen ekonomikoa eta lan-merkatuan duten parte-hartzea begi bistakoa izanik ere, hainbat eragin gehigarrik ere garrantzi berezia du, honako hauek, esate baterako: jarduera-tasaren hazkundeak, batez ere emakumeei dagokienez —etxeko sektoreari loturiko enpleguetan jardutearen ondorioz. Horri esker, emakume asko sartu dira lan-merkatuan—; lan-merkatuko desoreken murrizketak eta egiturazko langabezia gutxitzeak; edo etorkinek kontu publikoetan eta Giza Segurantzaren kontuetan egindako ekarpenak.

Bulego ekonomiko horrek kalkulatu duenez, 2005. urtean kontu publikoetan izan zen superabita guztia —5.000 milioi euro— kontuan hartuta, BPGaren % 0,5 immigrazioak egindako ekarpenek eragin dute zuzen-zuze-

nean. Hori gutxi balitz, etorkinek zifra magikoa —BPGaren % 0,7— igortzen dute Espainiatik beren jatorrizko herrialdeetara. Egiten dituzten diru-bidalketa horiek lehen mailako garapen-faktorea osatzen dute. Hori guztia kontsumoarekiko beste inplikazio batzuk aipatu gabe, hala nola ondasun iraunkorrek eskuratzeari loturiko errenta-hazkundera, eta etorkizunean ekipamendu-ondasunetan egin beharreko inbertsioak konpentsatzeko egingako kapital-eskuraketak.

Lanerako indar landunaren hazkundera, indar horren jatorria edozein izanik ere, produkzioaren eta kontsumoaren hazkundera adierazten du. Hazkunde hori bi kontzepturen bidez aztertzen du ekonomiak: «azeleragailuaren» eraginaren bidez —errentaren aldakuntzak inbertsioan duen eragina— eta «biderkatzailearen» eraginaren bidez —inbertsioaren aldakuntzak kontsumoan duen eragina—. Lanerako indar etorkinaren presentziaren ezaugarri espezifikoak honako hau da: langile horien kontsumo-eredua, funtsean, ez da bertako langileen kontsumo-edukiaren berdina, aldi baterako behintzat, eta horrek eragiten du etorkinek gehien eskatzen dituzten langile-kontsumorako ondasunen osagaiak azeleratzea.

Ildo horretan, esan daiteke higiezinaren goraldiaren zati bat iritsi berrien alojamendu-premiekin eragin dutela. Erabilitako ibilgailuen kontsumoa, Latinoamerikatik eta Afrikatik ekarritako elikagaien salerosketa, zerbitzu pertsonalak, telekomunikazioak eta nazioarteko bidaiak, eta finantza-produktu berriak sortu izana —diru-bidalketen kudeaketa, esaterako— dira etorkinen eskaeraren alderdi espezifikoaren ondorioz bultzada handia izan duten jardueretako batzuk, betiere enplegua eta balioa sortzeari dagokionez.

Baina, oro har, etorkinen kontsumo-eredua gure herrialdeko langileen kontsumo-ereduaren antzekoa da, eta etorkinen lan-ekarpenak dakarren eskaerak balio erantsia areagotzen du eta ekonomia dinamizatu, gainerako herritarren soldata-errenta guztiek bezalaxe.

3.2. Immigrazioa eta klase-arrazakeria

Arazakeria-adierazpen ohikoenetako bat honako hau da: demografian duen pisua kontuan izanik, *lan-arloko biztanleria etorkinak* gizarte-zerbitzuetan behar baino sarbide handiagoa duela pentsatzea, bereziki gizarte-laguntzei dagokienez. Zerbitzu unibertsalei gagozkiola, hala nola sanitatari

eta hezkuntzari gagozkiela, biztanleriaren zati handiek iritzi negatiboa dute, eta lan-arloko biztanleria etorkinak edo haren ahaideek zerbitzu horietan sarbidea izatea zerbitzuen degradazioarekin lotzen dute.

Horrelako iritziak «klase-arrazakeriatzat» har daitezke, bi zentzutan:

- Alde batetik, biztanleria natiboaren sektore babesgabeenak (gizarte-baztertuek, langile-klase ez-kualifikatuak) dute era horretako iritzia adierazteko joerarik handiena. Izan ere, gizarte-zerbitzuen lehentasunezko erabiltzaileak dira, eta, beraz, diru-sarrerarik urrienak dituzten etorkinekin «lehiatzen dira» urriak diren zerbitzuak lortzeko. Horrez gain, zerbitzu unibertsalak (hezkuntza, sanitatea) eskuratzeko lekua biztanleria etorkin gehienaren leku bera izan ohi da.
- Halaber, klase-arrazakeria da, iritzi horiek adierazten dituen gizarte-sektorea edozein izanik ere, langabetuta dauden langile etorkinei edo kualifikaziorik txikiena duten lanpostuetan diharduten etorkinei buruzko iritziak direlako. Esate baterako, Espainiako herri jakin batzuetan bizitzen hasi den Europako biztanleria erretirodunak osasun-sistemari eragiten dion presio izugarriak ez du arbuio-jarrerarik sortzen zona horietako osasun-zerbitzuen biztanleria erabiltzailearengan.

Iritzi horiek errealtate jakin batzuek eragiten dituzte: gizarte-zerbitzuak areagotzeko baliabiderik ez izateak lehiakortasuna areagotzen du hein batean urriagoak diren baliabideei dagokionez.

Baina era horretako iritziak zuzenean inplikaturik dauden kolektibo espezifikoetatik haratago zabaltzearen arrazoia ideologizazio jakin bat da, zerbitzu publikoek oro har okerrera egin izanaren errua kolektiborik ahulenari egozten diona. Egia esan, narriadura hori politika ekonomikoen orientazioak, Europar Batasunaren Egonkortasun Itunari loturiko aurrekontu-murrizketek eta zerbitzuen kudeaketan orientazio neoliberalak txertatzeak eragin dute.

Horri buruzko informazioak argitu eta zuzen zabaltzen ez diren bitartean, ideia faltsu horiek lan-arloko biztanleria etorkina arbuiazen duten aukera politikoak eta gizarte-jarrerak ekar ditzakete.

Izan ere, ustez bistakoenak diren kasuetan, errealtatea eta biztanleria oro har hartzen ari den pertzepzioa ez datoz bat. Esaterako, oso zabaldua dagoen ustearen arabera, lan-baimenik ez duten eta ezkutuko ekonomian

lanean diharduten etorkinek ez diete ordainketarik egiten Gizarte Segurantzari eta Ogasun Publikoari.

Azken kasu horri dagokionez, EAEko Ogasunen diru-bilketaren egitura labur aztertzea nahikoa da baieztapen hori ezeztatzeko; izan ere, egoera irregularrean dauden etorkinek, Gizarte Segurantzaren kotizatzen ez duten arren, Ogasunari ordainketak egiten dizkiote, herritar guztiek bezalaxe balio erantsiaren gaineko zerga ezartzen baitzaie. Halaber, lan-merkatuari buruzko atalean adierazi denez, Gizarte Segurantzaren sisteman sartu diren —eta beraz, Gizarte Segurantzaren kotizatzen duten— atzeritarren kopuruak gora egin du Euskadin eta Espainian, batez ere azken erregularizazio-prozesuen ondorioz.

Etorkinek zerbitzu publikoetan duten parte-hartzea zehazteko kontabilitate-metodorik azkarrena honako hau da: zerbitzu horiei loturiko «zerga-balantza». Honako honetan datza: lan-arloko etorkinek egiten duten zerga-ekarpena zehaztea, ondoren zerbitzu publikoak zenbat erabiltzen dituzten (gastua) aurreikusteko.

Gastuari dagokionez, arrazoitzea konplexua da, baina Euskal Autonomia Erkidegoko atzeritarren adinen araberrako egitura demografikora hurbilduz gero, etorkinei atxikitako gastu publikoen hasierako kalkulua egin daiteke. Ondoren, etorkinek eskuratzen dituzten zerbitzu publiko nagusien azterketa espezifiko egiten da, zerbitzu pertsonalizatuak soilik kontuan izanik.

Nolanahi ere, eta irizpide orokor gisa, adinari buruzko datuek Euskadiko atzeritar gehienak 20 urtetik 45 urtera bitarteko adin-tarteetakoak direla erakusten dutenez, Gizarte Ongizatearen prestazio nagusietan (hezkuntza, sanitatea, pentsioak) eragin ditzaketen gastuek biztanleria natiboarenak baino nabarmen txikiagoak izan behar dute. Izan ere, muturretako adin-tarteak dira (adinduak eta haurrak) zerbitzu publiko unibertsalen *kontsumitzaile* nagusiak.

3.3. Euskal gastu publikoa eta immigrazioa

Segidan, euskal gastu publikoaren partida nagusiak aztertuko dira, biztanleria etorkinari zuzenean mesede egiten dion ehunekoa zehazten saiatuta.

Gastuaren hartzaileen nazionalitatea zehazten duen erregistrorik ez dagoenez, gastu publikoa biztanleriaren sektore jakin bati egozteko aukera

mugatua da hein handi batean. Hainbat estatistika baliatuta eta bigarren mailako iturriak —hala nola adin-egitura— kontsultatuta, Euskadiko gastu publiko sozialaren partida nagusiak aurreikusi dira. Partida horiek EAEko gastu publikoaren % 47 ingururi dagozkio:¹⁷ hezkuntza-gastua, gastu sanitarioa, gizarteratze-gastua, etxebizitza-gastua, eta Eusko Jaurlaritzaren Inmigratio Zuzendaritzaren gastuak.

Egia esan, bestelako gastu jakin batzuen onura ere lortzen dute etorkinek, ondasun publiko garbi edo ondasun komunena, hain zuzen ere. Horien artean, honako hauek aipa genitzake: garapen iraunkorraren aldeko jardun publikoak, justizia-administrazioa eta errepideak egitea.¹⁸ Baina azterketa honetan ez dira bildu; izan ere, ondasun horien berezko izaeragatik, ondasun horien erabilera ezin da pertsona bakarrarentzat pribatiboa izan, baizik eta biztanleria oro har hartzen du eraginpean. Horren ondorioz, bertan bizi den biztanleria osoari gastu berbera atxikitzen zaio, zer nazionalitate duen kontuan izan gabe. Izan ere, biztanleria etorkinari bideratutako gastu publikoa gizarteraren hainbat sektoretan «gehiegizkotzat» hartzeko zabaltzen ari den joera lehen adierazitako gastu sozialera murriztu ohi da.

Hezkuntza, osasun, gizarteratze eta etxebizitzaren arloko gastu-hautaketak, hortaz, ongizatearen euskal sistemaren jardun nagusiak hartzen ditu eraginpean, eta gastu hori, hain zuzen ere, hartzen du aintzat oro har iritzi publikoak. Inmigratio Zuzendaritzaren gastua, berriz, EAEko atzeritar biztanleriari loturiko zuzeneko gastua atxikitzeari dagokio.

3.3.1. *Hezkuntza*

Hezkuntza-prestazio publikoetan sarbidea izateko baldintzak Hezkuntza Legean bildu dira, baita Atzeritarrei buruzko Legean ere. Egungo Hez-

¹⁷ Estatuko Administrazio zentralaren gastua ez da kontuan izan. Ehuneko hori kalkulatzeko aurreikusi da euskal Administrazio publikoen gastua 12,55 miliardo euro izan dela 2006an. Gastu sozialaren aurreikuspenaren kalkulua —5,85 miliardo euro— ondorengo ataletan aurkeztuko da.

¹⁸ Lan honen aztergaia ez den arren, etorkinei dagokien errepideen erabilera aurreikus daiteke, eta, beraz, errepideak mantentzeko eta egiteko gastua zehaz daiteke. Nolanahi ere, etorkinek batez beste bertako langileek baino errenta erabilgarri txikiagoa dutela kontuan hartuta (ordainsariei buruzko estatistikek agerian utzitako datua da), logikoa denez, batez beste gutxiago erabiliko dute garraio pribatua (autoa, esaterako), baita errepideak ere.

kuntzaren Legeak¹⁹ Atzerritarrei buruzko Legeari lotzen dio Espainian bizi diren atzerritarrek hezkuntza-sisteman sarbide izateari buruzko jardun publiko oro. Atzerritarrei buruzko Legeak,²⁰ berriz, hezkuntza-zerbitzuetan eta beken eta laguntzen sisteman doako sarbidea izateko eskubidea eta betebeharra zehazten du 18 urtetik beherako atzeritarrentzat, haien administrazio-egoera edozein izanik ere. 18 urtetik gorako atzeritarrek, berriz, hezkuntza-zerbitzu publikoetan nazionalitate espainola duten pertsonen baldintza berdinetan sartzeko eskubidea izango dute, baldin eta egoitzabaimena badute.

Euskal Autonomia Erkidegoan, azken urteotan etorkinak sartu direlako eta bereziki beraiekin ahaideak ekarri dituztelako edo ahaideak berriz elkartzeko aukera izan dutelako, hezkuntza-sisteman 14.991 atzeritar matrikulatu dira 2006-2007 ikasturtean. Kopuru hori 2006-2007 ikasturteko matrikulazio osoaren % 4,05 da, honako hezkuntza-maila hauei dagokienez:

¹⁹ Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organiakoaren (2006ko maiatzaren 4ko BOE) 19. Xedapen Gehigarriak honako hau ezartzen du: «Eskolatzeari, tituluak lortzeari eta beken eta ikasteko laguntzen sistema orokorrean sarbidea izateari dagokienez, Lege honetan ezarritakoa atzeritar ikasleei aplikatuko zaie abenduaren 22ko 8/2000 Lege Organikoak aldatu duen 4/2000 Lege Organikoan (urtarrilaren 11koa, atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei, eta haien gizarteratzeari buruzkoa) eta lege horiek garatzen dituzten araudian ezarritakoaren arabera».

²⁰ Atzeritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei, eta haien Gizarteratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoaren (2000ko urtarrilaren 12ko BOE) 9. artikulua —Lege hori abenduaren 22ko 8/2000 Legeak (2000ko abenduaren 23ko BOE) eta azaroaren 20ko 14/2003 Lege Organikoak (2003ko azaroaren 21eko BOE) aldatu zuten— honako hau ezartzen du:

«1. Hemezortzi urtetik beherako atzeritar guztiek dute hezkuntzarako eskubidea eta betebeharra, espainiarren baldintza berdinetan. Hezkuntzarako eskubideak honako hauek hartzen ditu eraginpean: oinarritzko, doako eta derrigorrezko irakaskuntzan sarbidea izatea, dagokion titulazio akademikoa lortzea eta beken eta laguntzen sistema publikoan sarbidea izatea.

2. Haur-hezkuntzari dagokionez, borondatezkoa da, eta bertan sartzeari eskatzen duen biztanleria eskolatzeko ziurtatzeko behar adina plaza egongo direla bermatuko dute Administrazio publikoek.

3. Atzeritar egoiliarrek derrigorrezkoa ez den hezkuntzarako eskubidea izango dute, espainolen baldintza berdinetan. Hain zuzen ere, aurreko idatz-zatian aurreikusi ez diren hezkuntza- eta irakaskuntza-mailetan sartzeko eskubidea izango dute, baita kasu bakoitzari dagokion titulazioak lortzeko eta beken eta laguntzen sistema publikoan sartzekoa ere.

4. Botere publikoek, berriz, hobeto gizarteratzeko ikaskuntza jaso behar duten atzeritar egoiliarrek ikaskuntza hori jasotzeko aukera sustatuko dute, betiere atzeritar horien kultura-nortasuna aintzat hartuz eta errespetatuz. [...]»

haur-hezkuntza, lehen hezkuntza, DBH, batxilergoa, erdi- eta goi-mailako lanbide-heziketa, eta unibertsitateko irakaskuntza. 20. taulan ikusten denez, hezkuntza-sare publikoan matrikulatuta dauden atzerritarren ehunekoa (% 66) nazionalena (% 53) baino askoz handiagoa da. Ehuneko horiek are desberdinagoak dira derrigorrezko eskola-mailetan (lehen hezkuntza eta DBH). Maila horietan, hiru ikasle atzerritarretik bi (% 65) sare publikoan dabilta. Nazionalei dagokienez, berriz, erdiak baino gutxiago dabilta sare publikoan (% 46). Alde horiek gehienbat eragiten dute herritarren artean biztanleria etorkinak zerbitzu publikoak izugarri (egiazko erabilera baino gehiago) erabiltzen dituelako pertzepzioa.

20. taula

Euskal hezkuntza-sistemaren hezkuntza-maila guztietan 2006-2007 ikasturtean izandako matrikulazioen kopurua, nazionalitatearen eta ikastetxearen titulartasunaren arabera

Hezkuntza-maila	Atzerritarrak		Natiboak	
	Publikoa	Pribatua*	Publikoa	Pribatua*
Haur-hezkuntza	2.045	824	41.195	40.787
Lehen hezkuntza	4.173	1.953	46.456	51.277
DBH	2.276	1.590	27.636	37.396
Batxilergoa	548	180	15.453	13.862
Erdi-mailako LH	239	173	5.816	4.295
Goi-mailako LH	301	236	7.286	7.603
Goi-mailako ikasketak	378	75	44.275	11.558

* Pribatua eta pribatu itundua

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Ikasle horiei zenbateko gastu publikoa dagokien kalkulatzeko honako datu-iturri hauek baliatu dira: hezkuntzaren kontua, Euskal Estatistika Erakundeak (Eustat) egina, eta Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontu orokorrak, 2003ko ekitalditik 2006ko ekitaldira, hain zuzen ere. Honako prozedura hau erabili da: hezkuntza-maila

bakoitzari atxikitako gastu publikoaren bolumena kalkulatzeko eta maila bakoitzean izandako matrikulazioen kopuruarekin hainbanatzea. Azkenik, atzeritar jatorriko ikasleen eta ikasle natiboen arteko bereizketa egin da gastua esleitzeari dagokionez.

Lehenik eta behin, hezkuntzaren kontutik honako datu hauek lortu ziren: hezkuntza-maila bakoitzari dagokion gastu publikoa matrikulatutako ikasle bakoitzeko. Hezkuntza pribatuari dagokionez, hezkuntza-erakundeen gastuari buruz 2005ean eskuragarri zeuden datuak aztertuta, honako datu hauek lortu behar izan ziren: hezkuntza-erakundeei emandako diru-laguntza arrunt eta kapitaleko diru-laguntza publikoei zegozkien datuak. Hezkuntza publikoari dagokionez, 2003ko ekitaldiko datuak zeuden eskuragarri.

Datu horiei 2006ko ekitaldian legozkiekeen datuak kalkulatzeko (ez baitago datu eguneratuagorik), honako hipotesi hau hartu da oinarritzat: irakaskuntzaren finantziazioari dagokionez, erakunde publikoen jarduna Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren aurrekontu orokorraren hein berean aldatu da. Hortaz, 2003. urteaz geroztik ekitaldi batetik bestera izandako aurrekontu-igoeraren indizeak baliatu dira: % 5,44, % 5,41 eta % 8,58. Horren arabera, 2006ko ekitaldian ikasle bakoitzari dagokion gastu publikoa 21. taulan bildutakoa dela aurreikusi da.

Adierazitako maila bakoitzean 2006-2007 ikasturtean guztira izandako matrikulazio kopurua kontuan izanik, EAEko hezkuntza-erakundek 2006ko ekitaldian guztira jaso duten gastu publikoaren kantitatea kalkulatu dugu. Horretarako, eta irakaskuntza publikoari buruzko datu xehatuagorik ez dagoenez, gastu kopuru berbera hartu behar izan dugu kontuan ikasle bakoitzeko haur-hezkuntzan eta lehen hezkuntzan, batetik, eta DBHn, batxilergoan eta lanbide-heziketan, bestetik. Kalkulu horretan lortu diren kopururak 22. taulan bildu dira.

Ikasle bakoitzari guztira dagokion hezkuntza-gastua aurreikusteko, hezkuntza-erakundeei dagokien gastuaz gain, familiek jasotako ikasketetarako laguntzak edo bekak ere hartu behar dira kontuan. Horri dagokionez, kontuan hartu da Euskal hezkuntza-sistemako ikasleek jasotzen dituzten laguntza edo beka publiko bakarrak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak ematen dituenak direla. Hortaz, Sailaren aurrekontuetan 2006-2007 ikasturterako familiei egindako transferentziak identifikatu dira. Hona hemen transferentzia horiek:

21. taula

EAEko ikastetxeetan matrikulaturiko ikasle bakoitzeko gastu publikoa (eurotan), titulartasunaren arabera, 2006

Hezkuntza pribatua		Hezkuntza publikoa	
Hezkuntza-maila	Gastua (€)	Hezkuntza-maila	Gastua (€)
Haur-hezkuntza	2.429,67	Haur-hezkuntza/ Lehen hezkuntza	5.460,40
Lehen hezkuntza	3.303,71	Bigarren hezkuntza	9.103,48
DBH	4.128,29	Goi-mailako ikasketak	4.896,86
Batxilergoa	3.842,02		
Erdi-mailako LH	4.633,29		
Goi-mailako LH	4.550,00		
Goi-mailako ikasketak	709,57		

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak eta geuk landutakoa

22. taula

EAEko ikastetxeen gastu publikoa (eurotan), titulartasunaren arabera, 2006

Hezkuntza pribatua		Hezkuntza publikoa	
Hezkuntza-maila	Gastua (€)	Hezkuntza-maila	Gastua (€)
Haur-hezkuntza	101.100.971,97	Haur-hezkuntza/ Lehen hezkuntza	512.562.218,85
Lehen hezkuntza	175.856.325,66	Bigarren hezkuntza	542.157.818,19
DBH	160.945.657,91	Goi-mailako ikasketak	218.659.575,71
Batxilergoa	53.949.619,04		
Erdi-mailako LH	20.701.534,94		
Goi-mailako LH	35.667.434,24		
Goi-mailako ikasketak	11.183.267,83		

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak eta geuk landutakoa

- Eskola-jangelarako laguntzak, ikastetxe publikoetan eskolatutako ikasleentzat.
- Eskola-garraiorako banakako esleipenak.
- Unibertsitatetik kanpoko bekak. 2006-2007 ikasturtea.

- Euskal Eskola Publikoaren baliabideak banatzeko konpentsazio-fondoa.
- Eskolako jangela eta garraiorako laguntzak, eskolatuta dauden eta hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzat.
- «Batxilergoko aparteko sariaren» 2006-2007 deialdirako finantzia-zioa.
- Atzerriko hizkuntzak ikasteko bekak, bigarren hezkuntzako ikasleentzat.
- Atzerriko hizkuntzei buruzko ikastaroetako bekak (Batxilergoko Aparteko Sariak), 2006-2007.
- Atzerriko hizkuntzak ikasteko bekak eta matematika-olinpidiaren gastuak.
- Unibertsitate-beka orokorrak. 2006-2007 ikasturtea.
- Unibertsitate-bekak. Garraioa.
- Unibertsitate-bekak. Lankidetza.
- Familia ugarietara tasa eta eskubide akademikoak finantzatzea.
- Unibertsitate-beka orokorrak. 2006-2007 ikasturtea.

Aurrekontu-partida horietako batzuk hainbat hezkuntza-maila eta titularitate guztiak (hezkuntza publikoa eta pribatua) hartzen dituzte eraginpenean. Azken kalkulua egiteko, beraz, maila edo titularitate mota bakoitzari berdin banatzen zaizkiola hartu da kontuan. Esate baterako, partida horiek maila guztiei eta dagokien titularitateari atxikita, eta ikastetxeetarako aurreikusitako gastu publikoaren kantitateei erantsita, hezkuntza-maila bakoitzari dagokion gastu publikoa lortu da, 23. taulan ageri denez.

Hurrengo urratsa honako hau izan da: hezkuntza-sistamarako aurreikusitako guztizko gastu publikoa hezkuntza-maila bakoitzean matrikulaturiko ikasleen kopuruarekin hainbanatzea; horren bidez, hezkuntza-maila bakoitzean ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa lortu da. Horretarako, 2006-2007 ikasturteko guztizko matrikulazio-zifrak hartu dira (lehen aurrekeztu dira), eta hezkuntza-maila bakoitzari dagokion gastua atxiki zaio. Hezkuntza publikoari dagokionez, gastu berbera esleitu zaie haur-hezkuntzari eta lehen hezkuntzari, eta gauza bera egin da DBH, batxilergo eta lanbide-heziketari dagokienez. Eragiketa hori 24. taulako informazioan bildu da.

Ikasle bakoitzeko aurreikusitako kostu publikoa jakinik, ikasleen nazionalitatearen arabera dagokion gastu publikoa atxiki dakioke maila bakoitzari, eta horixe ageri da 25. taulan.

23. taula

Euskal hezkuntza-sistemako hezkuntza-maila eta titulartasun bakoitzean egindako guztizko gastu publikoa (eurotan), 2006

Hezkuntza pribatua		Hezkuntza publikoa	
Hezkuntza-maila	Gastua (€)	Hezkuntza-maila	Gastua (€)
Haur-hezkuntza	105.300.573,30	Haur-hezkuntza/ Lehen hezkuntza Bigarren hezkuntza Goi-mailako ikasketak	523.880.323,97 548.877.221,14 232.074.198,93
Lehen hezkuntza	181.228.577,69		
DBH	165.503.108,33		
Batxilergoa	55.434.762,69		
Erdi-mailako LH	21.102.716,65		
Goi-mailako LH	36.371.298,03		
Goi-mailako ikasketak	14.678.045,61		

Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorrak eta geuk landutakoa

24. taula

Euskal hezkuntza-sistemako hezkuntza-maila eta titulartasun bakoitzean ikasle bakoitzeko egindako gastu publikoa (eurotan), 2006

Hezkuntza pribatua		Hezkuntza publikoa	
Hezkuntza-maila	Gastua (€)	Hezkuntza-maila	Gastua (€)
Haur-hezkuntza	2.530,59	Haur-hezkuntza/ Lehen hezkuntza Bigarren hezkuntza Goi-mailako ikasketak	5.580,97 9.216,31 5.197,28
Lehen hezkuntza	3.404,63		
DBH	4.245,19		
Batxilergoa	3.947,78		
Erdi-mailako LH	4.723,08		
Goi-mailako LH	4.639,79		
Goi-mailako ikasketak	1.261,76		

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta geuk landutakoa

Ikasleen nazionalitateei euskal hezkuntza-sistemari dagokion guztizko gastu publikoa atxikitzearren erantsi dira zifra horiek guztiak, eta ez da kon-tuan izan ikasleak matrikulatuta dauden ikastetxeak titulartasun publiko edo pribatukoak diren.

25. taula

Euskal hezkuntza-sistemako hezkuntza-maila eta titulartasun bakoitzean egindako guztizko gastu publikoa (eurotan), nazionalitatearen arabera, 2006

Hezkuntza pribatua		Hezkuntza publikoa	
Natiboak	Gastua (€)	Natiboak	Gastua (€)
Haur-hezkuntza/ Lehen hezkuntza	277.794.694,11	Haur-hezkuntza/ Lehen hezkuntza	489.177.835,88
Bigarren hezkuntza	283.622.758,43	Bigarren hezkuntza	517.873.561,13
Goi-mailako ikasketak	561.417.452,54	Goi-mailako ikasketak	230.109.626,62
Atzerritarrak	Gastua (€)	Atzerritarrak	Gastua (€)
Haur-hezkuntza/ Lehen hezkuntza	8.734.456,87	Haur-hezkuntza/ Lehen hezkuntza	34.702.488,09
Bigarren hezkuntza	9.467.172,87	Bigarren hezkuntza	31.003.660,01
Goi-mailako ikasketak	18.201.629,74	Goi-mailako ikasketak	1.964.572,31

Oharra: Haur-hezkuntzako eta lehen hezkuntzako mailak Haur-hezkuntza—Lehen hezkuntza epigrafean bildu dira, eta DBH, batxilergo eta lanbide-heziketako mailak Bigarren Hezkuntzako epigrafean

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta geuk landutakoa

26. taula

Euskal hezkuntza-sistemaren guztizko gastu publikoa (eurotan), nazionalitatearen arabera, 2006


Hezkuntza-maila	Natiboak	Atzerritarrak	Guztira
Haur-hezkuntza/ Lehen hezkuntza	766.972.529,99	43.436.944,96	810.409.474,95
Bigarren hezkuntza	801.496.319,56	40.470.832,88	841.967.152,44
Goi-mailako ikasketak	791.527.079,17	20.166.202,05	811.693.281,22
Guztira	2.359.995.928,72	104.073.979,89	2.464.069.908,61

Iturria: Geuk landutakoa

Atzerritar ikasleekin egindako hezkuntza-gastu publikoa (guztiaren % 4,1) atzerriko nazionalitatea duten ikasleen ehunekoaren (% 4,2) antzekoa da.

24. grafikoa

Hezkuntza-gastuaren eta ikasleen banaketa nazionalitatearen arabera (%)



Iturria: Geuk landutakoa

3.3.2. Gastu sanitarioa

Atzerritarrei buruzko Legeak egoitza-baimenik ez duten herritarrei mugatzen die Osasun Sistema Nazionalen asistentzia izateko eskubidea.²¹ Hala ere, Osasun txartel Indibiduala erroldaturik dauden guztiei —edozein administrazio-egoera dutela ere— zabalduta, osasun-sistema publikoak ematen dituen zerbitzuak unibertsal bihurtu dira. Bestalde, Asistentzia Sanitarioko Behin-behineko Agiria ematen zaie egoitza-baimenik edo lan-baimenik ez dutenei, baliabide ekonomikorik ez dutenei eta Euskal Autonomia Erkidegoan ohiko bizilekua ez duten eta erroldaturik ez daudenei. Agiri horrek hiru hilabeterako

²¹ Atzerritarrei buruzkoa deitu ohi zaion Legeak honako hau ezartzen du 12. artikuluan, atzerritarrentzako atentzio sanitarioari dagokionez:

«1. Espainian, bizi ohi diren udalerriko erroldan erregistraturik dauden atzerritarrek asistentzia sanitarioa izateko eskubidea dute, espainolen baldintza berdinetan.

2. Espainian dauden atzerritarrek urgentiako asistentzia sanitario publikorako eskubidea dute gaixotasun larria edo istripua izanez gero, horien arrazoia edozein izanik ere. Halaber, alta medikoaren egoerara arte atzentzio horri eusteko eskubidea izango dute.

3. Espainian dauden hemezortzi urtetik beherako atzerritarrek asistentzia sanitariorako eskubidea dute, espainolen baldintza berdinetan.

4. Espainian dauden atzerritar haurdunek asistentzia sanitariorako eskubide izango dute haurdunaldian, erditzean eta erdituondokoan.»

balio du, eta honako helburu hau du: pertsona horiek urgentziako asistentzia-zerbitzuetan atentzioa jasotzea, atentzio horri eustea eta prestazio farmazeutikoa jasotzea, baita haurdunaldi, erditze eta erditzeondokoan ere.

Atzeritarrek osasun-zerbitzuak erabiltzeari gero eta txosten gehiago agertzen diren arren,²² oraindik ez da biztanleria natiboa eta atzeritarra alderatzea ahalbidetzen duen azterlan globalik egin, betiere asistentzia anbulatorioari, ospitale-atentzioari eta farmaziako gastuari dagokienez. Horregatik, beste metodo bat erabili behar da etorkinei egotziko zaien gastu sanitario publikoa kuantifikatzeko: bigarren mailako beste iturri batzuen bitartez kuantifikatuko da.

Herce, Ahn eta Alonso egileek (2003) proposaturiko metodologiari jarraiki —metodologia horren arabera, gastu sanitarioa erabiltzaile bakoitzaren adinaren arabera da—, biztanleriaren batez besteko gastu sanitarioa biztanleriaren adin-egituraren arabera esleitu daiteke. Hortaz, EAEko biztanleria natiboaren eta atzeritar biztanleriaren adin-egitura jakinik, dagokien gastu sanitarioa esleitu zaie biei.

Adinaren arabera gastu publikoaren profilei buruz Espainian dagoen erreferentziarik eguneratuena gastu sanitarioa aztertzeke autonomia-erkidegoetako presidenteen konferentzia baterako egindako txostena da (Azterlan Fiskalen Institutua, 2005). Txosten horrek, 2001ean arlo jakin batzuetan —lehen mailako atentzioko gastua, atentzio espezializatuko gastua, atentzio anbulatorioko gastua, ospitale-atentzioko gastua, farmazia-gastua eta bestelako gastuak (osasun publikoa, lekualdatzea eta protesiak, administrazioa eta ikerketa)— izandako gastuari buruzko datuak baliatuz, 27. taulan bildutako koefizienteak eman dizkigu, adin-tarteen arabera. Koefiziente horiek adin-tarte bakoitzari esleitutako gastu sanitarioaren egitura azaltzen dute, Espainia osoko Osasun Sistema Nazionalean pertsona bakoitzeko batez besteko gastua erreferentziazat hartuta. Ikus daitekeenez, adin-tartearen arabera gastu sanitarioak «J» alderantzikatuaren portaera du. Horren arabera, pertsona baten bizitza-zikloan gasturik handienak lehen urteetan —jaio ondoko eta haurrentzako zerbitzuetan espezializatutako medikuntzako gastuak— eta hirugarren adina deituriko sasoiaren gitean dira. Sasoi

²² EAEari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitatean egindako honako azterlan hau nabarmendu behar dugu: Rodríguez, E. eta Lanborena, N.: *Encuesta de salud a los diferentes colectivos de inmigrantes asentados en la Comunidad Autónoma del País Vasco*, 2006.

horretako gastuak zaintza gerontologikoek eta gaixotasun kardiobaskular eta endekapenezko gehienek eragindako gastuak dira.

Gastu sanitarioaren indizeak adin-tarteen arabera aplikatuz, eta biztanleria natiboa eta atzerritarra tarte horien arabera banatuz, atzerritar biztanleriak gastu sanitarioan duen parte-hartze erlatiboa ezar daiteke.

27. taula

Batez besteko per capita gastuaren indizeak, adin-tarteen arabera

Adin-tartea	Gastu sanitarioaren indizea ²³
0-4	1,031
5-14	0,433
15-44	0,547
45-54	0,904
55-64	1,292
65-74	2,175
74 baino gehiago	2,759

Iturria: Azterlan Fiskalen Institutua (2005)

65 urte eta gehiago dituzten biztanleen gastua biztanleria osokoaren bikoitza baino gehiago da (2,427). Setik 64 urtera bitarteko biztanleriaren indizea, berriz, 0,684 da, eta lau urtetik beherako biztanleriarena 1,031.

Koefiziente horietan oinarrituta, eta Euskal Autonomia Erkidegoko biztanle bakoitzeko batez besteko gastu sanitario publikoa eta euskal biztanleriaren adin-egitura atxikita, adin-tarte bakoitzeko aurreikusitako gastu sanitarioa lor daiteke. Eragiketa hori egiteko, koefiziente horiek EAEko osasun-sistema publikoari aplikatzearen, honako hipotesi hau hartu behar dugu oinarritzat: euskal sarnitatearen baldintza teknikoak Osasun Sistema Nazional osoaren baldintzen

²³ Gastuari dagokionez, honako partaidetza-irizpide hau hartu da kontuan: Gobernu zentralarentzat Azterlan Fiskalen Institutuak egindako txosteneko —*Informe para el análisis del gasto sanitario* (2005: 187)— aurreikuspenean aintzat hartutako adin-tarteen banaketa. Koefizienteek Osasun Sistema Nazional osorako dira, eta, beraz, transformazio lineal-proportzionala egin da, azken faktoreak EAEren 2006ko sanitate-aurrekontuarekin bat etor daitezen. Halaber, kontuan hartu behar da EAEko sanitatearen baldintza teknikoak Osasun Sistema Nazionalaren baldintzen antzekoak direla —betiere 2001. urteari dagokionez, urte hari buruzkoak baitira koefiziente horiek— eta koefizienteak alda zezaketen baldintza tekniko orokorrak ez direla aldatu.

antzekoak dira, baldintza horiek ez dira aldatu 2001etik eta, osasun-zerbitzuak erabiltzeari dagokionez, euskal biztanleriaren maiztasunak Espainiako biztanleriaren maiztasunen antzekoak dira. Horretarako, 2006ko urtarrilaren 1ean udal-errolan erregistratuta zeuden biztanle natiboen eta atzerritarren adin-egitura hartu dugu aintzat. Adin-egitura hori 28. taulan ageri da.

28. taula


EAEko biztanleria natiboa eta bertako biztanleria, adin-tarteen arabera, 2006ko urtarrilaren 1a

Adin-tartea	Natiboak	Atzerritarrak
0-4	92.497	3.267
5-14	158.873	8.193
15-44	849.486	60.666
45-54	300.388	8.585
55-64	255.576	2.866
65-74	203.965	1.198
74 baino gehiago	187.357	767

Iturria: Biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

25. grafikoa

EAEko biztanleriaren banaketa, adin-tarteen arabera, 2006 (%)



Iturria: Biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

29. taula


EAEko gastu sanitario publikoa (eurotan), adin-tarteen eta nazionalitatearen arabera aurreikusia, 2006

Adin-tartea	Natiboak	Atzerritarrak	Guztira
0-4	106.448.233,42	3.759.758,46	110.207.991,89
5-14	76.787.431,10	3.959.888,86	80.747.319,96
15-44	518.675.456,75	37.041.181,68	555.716.638,43
45-54	303.112.017,84	8.662.851,62	311.774.869,46
55-64	368.582.514,31	4.133.242,11	372.715.756,42
65-74	495.184.516,78	2.908.494,35	498.093.011,14
74 baino gehiago	576.997.285,65	2.362.105,06	579.359.390,71
Guztira	2.445.787.455,85	62.827.522,15	2.508.614.978,00

Iturria: Geuk landutakoa

26. grafikoa

EAEko gastu sanitario publiko bideratuaren proportzio aurreikusiak, nazionalitatearen arabera, 2006 (%)




Iturria: Geuk landutakoa

Hortaz, hamar biztanle atzerritarretik bederatzi kostu sanitario per capita txikieneko adin-tartekoak dira. Biztanleria natiboari dagokionez, berriz, lau biztanletik hiru baino gutxiago dira kategoria horretakoak.

27. grafikoa

EAEko gastu sanitario aurreikusia (eurotan), 2006



Iturria: Geuk landutakoa

Horrela lortzen dira EAEko biztanleria natiboari eta atzerritarrari esleitu-riko gastu publiko sanitarioaren kantitateak, 29. taulan bildu direnak.

Datu horien arabera, honako hau ondorioztatzen da: atzerritar biztan-leriari dagokio EAEko gastu sanitario publikoaren % 2,50. Hain zuzen ere, gastuaren guztizkoa 2.508 milioi euro da eta atzerritarrei 62,8 milioi euro dagozkie.

Adinen araberako banaketa hori eginda, garbi dago etorkinek natiboek baino askoz ere gutxiago erabiltzen dituztela osasun-zerbitzuak. Izan ere, atzerritar biztanleriak —euskal biztanleriaren % 4,2 inguru da— gastu sani-tarioaren % 2,5 hartzen du soilik.

Biztanle eta urte bakoitzeko aurreikusitako 1.175 euroko gastua oso modu desberdinean banatzen da biztanleria natiboaren —aurreikusitako gastua: 1.195 euro— eta atzerritar biztanleriaren artean. Atzerritar bakoit-zeko gastua 735 euro da.

3.3.3. Gizarte-zerbitzuak

Gizarte Zerbitzuen euskal Legeak zehazten duenez, Euskal Autonomia Erki-degoan bizi diren (errolatuta dauden) pertsona guztiak izan daitezke gizarte-

zerbitzuen euskal sistema osoko prestazio eta transferentzia publiko guztien onuradun.²⁴ Horregatik, EAEn errolatuta dagoen atzerritar biztanleriak biztanleria natiboaren baldintza berdinetan jaso ditzake zerbitzu horiek.

Balizko erabiltzaileek gizarte-zerbitzuen sistema ez ezagutzearen ondorioz, balizko biztanleria erabiltzaile guztiek ez dituzte zerbitzu horiek erabiltzen. Mendetasunaren kasuan izan ezik, eskuragarri dauden estatistikek oro har zerbitzuen erabilera-maila biztanleria osoari dagokionez aurkeztu ohi dute, ez zerbitzuen xede diren kolektiboek dagokienez. Gizarte-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea dutenen erabilera-mailari buruzko daturik ez dagoenez, eta, beraz, atzerritarren erabilera-mailari buruzko daturik ez dagoenez, ezin dugu egiazko erabilerari buruzko balioespenik egin, ezta bi biztanlerien erabilera-mailari buruzko konparaziorik ere. Hortaz, etorkinek gizarte-zerbitzuak biztanleria natiboak baino gehiago erabiltzen dituztelako zurrumurruak iritzi subjektiboak besterik ez dira.

Gizarte-zerbitzuetako gastuak aurreikusteko, eta zehazki gastu-jardunak biztanleria natiboari eta atzerritarrari esleitzeko, biztanleria bakoitzarekiko estaldura bereizteko aukera ematen diguten iturriak baliatu dira. Dena den, erabiltzaileen kolektibo espezifikoaren arabera daturik eskuragarririk lortu ez denean, gizarte-zerbitzuen estaldura edo erabilera-maila berdintzat hartu da bi biztanleriei dagokienez, hots, biztanleria natiboari eta atzerritarrari dagokienez. Zenbait kasutan, zerbitzuen espezifiktasuna dela-eta —hirugarren adinekoentzako egoitzak, esaterako—, natiboen eta atzerritarren erabilera bereizi egin da bi biztanleria horien adin-egituraren arabera; hau da, aurreikuspena egiteko, biztanleria bakoitzaren 64 urtetik gorakoaren proportzioa hartu da kontuan. Beste kasu batzuetan, zerbitzuen erabiltzaileen nazionalitatea adierazten zuten erregistro espezifikoak baliatu ahal izan dira

²⁴ Gizarte-zerbitzuen urriaren 18ko 5/1996 Legeak (1996ko azaroaren 12ko EHAA) honako hau xedatzen du 4. artikuluan:

«1. Europako Batasuneko herritartasuna duten guztiek dute lege honetan araututako gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubidea, nahiz Euskal Autonomi Elkartearen bizi, nahiz igarobidean izan. Araudi bidez finkatuko dira horretarako baldintzak.

2. Zerbitzu horien onurak jaso ditzakete, halaber, Europako Batasuneko herritartar izan ez eta Euskal Autonomi Elkartearen aurkitzen direnek, horretaz nazioarteko itunetan xedatutakoarekin bat etorritik. Halakorik ez badago, elkarrekikotasun-printzipioa bete beharko da.

Dena dela, gizarte-zerbitzu horien onurak jaso ditzakete Euskal Autonomi Elkartearen aurkitzen diren erefuxiatuek eta aberriabeek.»

—Gizarte Larrialdietarako Laguntzen eta Oinarrizko Errenta edo Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarreraren kasuan, esate baterako—, baita inoren kargura ez dauden adingabeentzako egoitzen erabilera adierazten zutenak ere.

Bestalde, euskal administrazioek hornitutako gizarte-zerbitzu asko titulartasun pribatukoak dira; halaber, zenbait kasutan, erabiltzaileak zerbitzuen kostuaren zati bat bere gain hartu behar izaten du. Hortaz, zerbitzu jakin horiek hornitzeko emandako finantziazio publikoaren proportzioa hartu da kontuan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak urtero egiten duen txostena (2004) izan da EAEko gizarte-zerbitzuei buruzko datuak eskuratzeko baliatu ahal izan dugun iturri nagusia.

Txosten horretan, EAEn hornituriko gizarte-zerbitzu guztiak honako talde hauetan xehatuta ageri dira:

- Adinduentzako zerbitzuak: egoitzak, telealarma, eguneko zentroak, etxez etxeko asistentzia, zahar-etxeak.
- Gaixo, ezindu eta minusbaliatuentzako zerbitzuak: ezinduentzako egoitzak, eguneko zentro asistentziala, enpleguko zentro bereziak eta okupazio-zentro bereziak.
- Familia, haur eta gazteentzako zerbitzuak: adingabeentzako egoitzak, prestazio ekonomikoak, prebentzioko eta sustapeneko programak.
- Bazterkeriaren eta pobreziaren arloko laguntza ekonomiko nagusiak: Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, Oinarrizko Errenta, Gutxieneko Bermerako Laguntza Prestazioa, bestelako laguntza osagarriak.
- Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta laguntzako lantalde teknikoak.

Adinduentzako zerbitzuei dagokienez, biztanleria natiboko eta atzeritarreko 64 urtetik gorakoen proportzioa hartu da kontuan, hurrenez hurren, biztanleria bakoitzari bere adin-egituraren arabera gastu bereizia atxikitzearren.

Ikus daitekeenez, biztanleria natiboaren eta atzeritarren adin-egiturak eragin handia du gastuaren egozpenean. Atzerriko nazionalitatea zuten biztanleak 64 urtetik gorako biztanle guztien % 0,42 ziren 2004. urtean, eta, beraz, adin-tarte horretan, natiboak % 99,58 ziren. Hortaz, adinduei dagokienez aurreikusi den gastuaren % 0,50 atzeritarrei dagokie

30. taula

EAEko adinduei bideratutako gizarte-zerbitzuen taldeko
gastu publikoa (eurotan), 2004

Zerbitzua	Ez-nazionalen egotzitako gastu publikoa	Nazionalen egotzitako gastu publikoa	Guztira
Egoitzak	632.640,17	145.246.737,75	145.879.377,92
Eguneko zentroak	74.559,20	16.652.991,98	16.727.551,18
Etxez etxeko asistentzia	371.136,87	51.791.749,13	52.162.886,00
Telealarma	5.093,99	1.149.532,01	1.154.626,00
Zahar-etxeak	5.026,55	1.147.944,45	1.152.971,00
Guztira	1.088.456,78	215.988.955,32	217.077.412,10

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (2004), 2004ko urtarrilaren 1eko biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

31. taula

EAEko gaixo, ezinduei eta minusbaliatuei bideratutako gizarte-zerbitzuen
taldeko gastu publikoa (eurotan), 2004

Zerbitzua	Ez-nazionalen egotzitako gastu publikoa	Nazionalen egotzitako gastu publikoa	Guztira
Ezinduentzako egoitza-zerbitzuak	1.235.498,50	41.351.289,50	42.586.788,00
Eguneko zentro asistentzialak	482.371,92	16.701.631,08	17.184.003,00
Enpleguko zentro bereziak eta okupazio-zentro bereziak	1.072.883,51	34.209.257,49	35.282.141,00
Guztira	2.790.753,93	92.262.178,07	95.052.932,00

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (2004), 2004ko urtarrilaren 1eko biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

eta % 99,50 natiboei. Horrek dagokion emaitza du gastu publikoaren egozpenaren banaketan.

Gaixo, ezindu eta minusbaliatuentzako zerbitzuen kasuan, ez dago erabiltzaileen nazionalitatea bereizten duen datu edo erregistrorik. Hortaz, gure aurreikuspenetarako kontingentzia horren proportzioa natiboengan eta atzerritarrengan berdina dela erabaki da. Gastu publikoaren egozpena aurreikusteko honako hau hartu zen erreferentziazat: biztanleria natibo eta atzerritar guztiak 2004. urtean zuen banaketa.

Kasu horretan, zerbitzu horien erabilera natiboen eta atzerritarren artean bereizteko aukera ematen digun daturik ez dagoenez, gastu publikoaren egozpena 2004. urteko biztanleria natibo eta atzerritar osoaren proportzioaren antzekoa dela aurreikusi da: atzerritarrek % 2,80 dira eta natiboak % 97,8 dira EAEn.

Familiari, haurrei eta gazteei bideratutako gizarte-zerbitzuei dagokienez, adingabeentzako egoitza-zerbitzuei dagokien partidak baino ez ditu biltzen erabiltzaileen nazionalitatea bereizten duten datu edo erregistroak. Kasu horretan, Arartekoak Eusko Legebiltzarrari helarazitako txostenetik (2005) atera dira datu horiek. Bertan, bereizita dago Foru Aldundietako egoitza-zentroetan izan diren adingabe atzerritarren kopurua. Gainerako zerbitzuei dagokienez —familiarentzako prestazio ekonomikoak eta sustapeneko eta prebentzioko zerbitzuak—, jasotzaileen nazionalitateari buruzko daturik eskuratu ez dugunez, bi biztanleria motek —bertakoek eta atzerritarrek— antzeko maiztasun erlatiboa dutela erabaki dugu. Bi kasu horietarako, biztanleria osoari dagokionez atzerritarren proportzioa hartu dugu, dagokien gastu publikoa esleitzearen.

Adingabeentzako egoitza-zerbitzuetan atzerriko nazionalitatea duten adingabeen proportzioa handia denez, atzerritarrei esleitutako gastu publikoa biztanleria osoan duten proportzioa baino askoz ere handiagoa da. Hau da, familia, haur eta gazteentzako gizarte zerbitzuetan atzerritarrei egozitako gastu publikoa —6,31 milioi euro— gastu horien guztien % 9,24 izan zen, eta EAEko atzerritar biztanleria % 2,80 zen 2004. urtean.

Gizarte-zerbitzuetako dirutako gastuak **pobreziako eta gizarte-bazterkeriako egoerei** aurre egitearren familiei emandako laguntza eta prestazio ekonomiko nagusiei dagozkie. Honako hauek dira adierazitako laguntzak: Oinarrizko Errenta (edo Gizarteratzeko Gutxieneko Diru-sarrera), Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, Gutxieneko Bermerako Laguntza Prestazioa eta bestelako laguntza osagarriak. 2004. urtean bertako biztanleei eta atzerritar biztanleei emandako Oinarrizko Errentari eta Gizarte

32. taula

EAEko familia, haur eta gazteei bideratutako gizarte-zerbitzuen taldeko gastu publikoa (eurotan), 2004

Zerbitzua	Ez-nazionalei egotzitako gastu publikoa	Nazionalei egotzitako gastu publikoa	Guztira
Adingabeentzako egoitza-zerbitzuak	5.320.670,02	27.438.521,98	32.759.192,00
Prestazio ekonomikoak	628.518,21	21.842.011,79	22.470.530,00
Sustapeneko eta prebentzioko programak	366.388,27	12.732.577,73	13.098.966,00
Guztira	6.315.576,50	62.013.111,50	68.328.688,00

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (2004), 2004ko urtariraren 1eko biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

Larrialdietarako Laguntzei buruzko datuak eskuratu ditugu,²⁵ eta, horri esker, laguntza horietan egindako gastua nazionalitatearen arabera atxiki izan dugu.

Gainerako laguntzei buruzko daturik ez dagoenez, eta beste bi laguntzen antzeko izaera eta helburuak dituztenez, erabaki da egokia litzatekeela onuradun guztiei dagokienez atzerritarren antzeko proportzioa oinarritzat hartzea gastuaren egozpena aurreikusteko. Horretarako, Gizarte Larrialdietarako Laguntzak eta Oinarritzko Errenta jasotzen duten atzerritarren proportzioaren batez bestekoa egin da, eta, ondoren, dagokion gastua esleitu da batez besteko horretan oinarrituta.

Kasu horretan, ikusi denez, atzerritarrei gastu publiko handia esleitu zaie: 39,5 milioi euroko kopurua laguntza nagusietan egindako gastuaren % 23,87 da. Izan ere, Oinarritzko Errenta eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak jasotzen dituzten etorkinak % 23 eta % 26 inguru dira, eskuragarri dauden datuen arabera. Proportzio horiek ez datoz bat 2004. urtean atzerritar biz-

²⁵ Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua, «Euskal Sozialistak Taldeak 2006. urtean Oinarritzko Errenta jaso dutenei buruz egindako informazio dokumentatuaren eskaeraren erantzuna».

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua, «Euskal Talde Popularreko legebiltzarkide Arantza Quiroga Cía andreak Gizarte Larrialdietarako Laguntzei eta Oinarritzko Errentari buruz aurkeztutako galderaren erantzuna».

33. taula

Pobreziaren eta bazterkeriaren arloko laguntza eta prestazioen taldeko
gastu publikoa (eurotan) EAEn, 2004

Laguntza	Ez-nazionalen egotzitako gastu publikoa	Nazionalen egotzitako gastu publikoa	Guztira
Oinarrizko Errenta	26.271.099,73	87.616.325,27	113.887.425,00
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	7.732.610,42	21.591.751,58	29.324.362,00
Gutxieneko Bermerako Laguntza Prestazioa	2.791.017,38	8.500.227,62	11.291.245,00
Bestelako laguntza osagarriak	2.702.627,52	8.231.030,48	10.933.658,00
Guztira	39.497.355,06	125.939.334,94	165.436.690,00

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantz Saila (2004), 2004ko urtarilaren
leko biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa


tanleriari zegokion proportzioarekin; izan ere, EAEko biztanleria osoaren % 2,80 zen. Hortaz, atzerriar egoiliarren zati handi batek jasotzen ditu laguntza horiek. Hain zuzen ere, eskuratutako datuen arabera, EAEn 59.166 atzerriar bizi ziren urte hartan, eta, haietatik, 6.664 lagunek jasotzen zuten Oinarrizko Errenta eta 5.479 lagunek jasotzen zituzten Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.

Dena den, esan beharra dago laguntza horietako jasotzaile bakoitza ez dela pertsona indibiduala; izan ere, jasotzaileak Bizikidetza Unitate Ekonomiko Independentea deiturikoan biltzen dira, eta unitate horiek hainbat kide izan dezakete.

Prestazio eta laguntza nagusiei dagokien gastuaren zifrak aztertuta, pentsa daiteke atzerriarren zati bat gizarte-laguntzen sisteman «ainguratuta» dagoela. Hala ere, Oinarrizko Errentaren jasotzaileen kopuruari eta laguntza hori jasotzen duten atzerriarren kopuruari buruz eskuragarri dauden datuak EAEko atzerriarren kopuruarekin alderatuz gero, honako hau ondoriozta daiteke: gero eta txikiagoa da jasotzaileak diren atzerriarren proportzioa, atzerriar egoiliar guztiei dagokienez. Hau da, lan-merkatuari

28. grafikoa

Gizarte-laguntza nagusien jasotzaileen kopurua
eta atzerritar jasotzaileen kopurua, 2003-2005



Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (2004), Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburuak Legebiltzarrean emandako erantzunak eta geuk landutakoa.

buruzko atalean deskribaturiko jarduera- eta enplegu-mailak aztertuta, ikusten da etorkinak gero eta hein handiagoan sartzen direla lan-merkatuan, laguntzak jasotzeko diru-sarrerak lortzeko mekanismo «normalizatu» gisa eutsi beharrean.

Gizarte-zerbitzuei dagokienez, azken gastua zerbitzu horietarako **laguntzako zerbitzu eta azpiegiturei** dagokiena da, **oinarrizko gizarte-zerbitzuei** dagokiena, hain zuzen ere. Bigarren mailako bestelako iturrien bitartez ezin izan dugunez nazionalitatearen arabera bereizketarik egin, etorkinei bideratutako gastuaren proportzioa etorkinek biztanleria osoan duten proportzioari —% 2,80— esleitu diogu. Hortaz, gizarte-zerbitzuei dagokienez biztanleria etorkinari atxiki zaion gastua 34. taulan bildutakoa da.

EAEko gizarte-zerbitzuei dagokienez lehen deskribatu ditugun gastupartidak 35. taulan gehituta ageri dira.

34. taula

EAEko oinarrizko gizarte-zerbitzuetan egindako gastu publikoa (eurotan), 2004

Zerbitzua	Ez-nazionalen egotzitako gastu publikoa	Nazionalen egotzitako gastu publikoa	Guztira
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak	2.107.425,43	73.236.399,57	75.343.825,00

Iturria: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (2004), 2004ko urtariraren 1eko biztanleen udal-errola (Estatistikako Institutu Nazionala) eta geuk landutakoa

35. taula

EAEko gizarte-zerbitzuetan egindako gastu publikoa (eurotan), 2004

Zerbitzua	Ez-nazionalen egotzitako gastu publikoa	Nazionalen egotzitako gastu publikoa	Guztira
Egoitzak	632.640,17	145.246.737,75	145.879.377,92
Eguneko zentroak	74.559,20	16.652.991,98	16.727.551,18
Etkez etxeko asistentzia	371.136,87	51.791.749,13	52.162.886,00
Telealarma	5.093,99	1.149.532,01	1.154.626,00
Zahar-etxeak	5.026,55	1.147.944,45	1.152.971,00
Ezinduentzako egoitza-zerbitzuak	1.235.498,50	41.351.289,50	42.586.788,00
Eguneko zentro asistentzialak	482.371,92	16.701.631,08	17.184.003,00
Enplegu zentro bereziak eta okupazio-zentro bereziak	1.072.883,51	34.209.257,49	35.282.141,00
Adingabeentzako egoitza-zerbitzuak	5.320.670,02	27.438.521,98	32.759.192,00
Prestazio ekonomikoak	628.518,21	21.842.011,79	22.470.530,00
Sustapeneko eta prebentzioko programak	366.388,27	12.732.577,73	13.098.966,00
Oinarrizko Errenta	26.271.099,73	87.616.325,27	113.887.425,00
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	7.732.610,42	21.591.751,58	29.324.362,00
Gutxieneko Bermerako Laguntza Prestazioa	2.791.017,38	8.500.227,62	11.291.245,00
Bestelako laguntza osagarriak	2.702.627,52	8.231.030,48	10.933.658,00
Oinarrizko gizarte-zerbitzuak eta laguntzako lantalde teknikoak	2.107.425,43	73.236.399,57	75.343.825,00
Guztira	51.799.567,69	569.439.979,41	621.239.547,10

Iturria: Geuk landutakoa

29. grafikoa

Atzeritarrek euskal gizarte-zerbitzuetan
duten parte-hartzea (%)




Iturria: Geuk landutakoa

Biztanleria etorkinak gizarte-zerbitzuetan duen parte-hartzea handi samarra da gizarte-laguntzei eta larrialdiko laguntzei dagokienez, baita adingabeentzako egoitza-zerbitzuei dagokienez ere. Izan ere, lanaren eta diru-sarreraren arloan prekarietate-ezaugarri bereziak dituen biztanleria-segmentua da.

Hala ere, biztanleria etorkinaren presentzia handixeagoa duten gizarte-zerbitzuen kostua oso txikia da, Oinarrizko Errentaren kasuan izan ezik. Ezintasunaren eta zaharren arretarako zerbitzuak dira baliabide gehienak hartzen dituzten gizarte-zerbitzuak. Zerbitzu horietan biztanleria etorkinaren parte-hartzea biztanleria horrek biztanleria osoan duen proportzioa baino txikiagoa da oro har, immigrazio gehiena lanerako indarra delako. Beraz, biztanleria horren batez besteko adina biztanleria natiboarena baino txikiagoa da eta inoren laguntza behar duen biztanleriaren ehunekoak ere txikiagoak dira.

30. grafikoa


Euskal gizarte-zerbitzuetako gastuaren banaketa, nazionalitatearen arabera (eurotan)



Iturria: Geuk landutakoa

31. grafikoa

Gizarte-zerbitzuetan atzerritarrei eta natiboiei esleituriko
gastu publikoaren ehunekoa, 2004



Iturria: Geuk landutakoa

Gizarte-zerbitzu guztiei dagokienez, EAEn 2004. urtean zerbitzu horiei egotzitako gastu publikoaren % 8,3 —53,9 milioi euro, hain zuzen ere— atzerritar biztanleriari esleitu behar zaio. Urte hartan, atzerritar biztanleria EAEko biztanleria osoaren % 2,80 zen.

Aditzera eman behar da etorkinek hartzen dutela beren kargura beren familia-taldeari loturiko mendeko biztanleria gehienaren mantenua, beren jatorrizko herrialdeetan, jomugako herrialdean egindako lanaren bidez lorturiko diru-sarrerekin. Eta etorkinek gizarte-zerbitzuetan parte hartzea beren laneko diru-sarreraren baitan dago batik bat. Horri dagokionez, lan-merkatuan txertatzeko aukera hobetzea da biztanleria etorkinak gizarte-laguntzako zerbitzuen eta larrialdiko laguntzen eskaera azkar murrizteko modua, baita, horren ondorioz, gizarte-zerbitzuetan dagokien gastuan duten parte-hartzea murriztekoa ere.

3.3.4. *Etxebizitza*

Etxebizitza sozialen edo babes ofizialeko etxebizitzaren eskaerei dagokienez, gaur egun ez dago onuradunaren nazionalitatea zehazten duen erregistro espezifikorik.²⁶

Indarrean dagoen araudiaren arabera, honako eskakizun hauek betetzen dituzten EAEko biztanle guztiek dute etxebizitza-zozketetan eta etxebizitza-eskaeren erregistroan parte hartzeko eskubidea:

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea.
- Bizikidetza-unitateko kideek ez edukitzea inolako etxebizitzarik jabetzan, jabetza soilean, azalera-eskubidean edo usufruktuan.

²⁶ Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren arduradunei telefonoz egindako kontsultaren arabera. Babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eskaeretan, Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakiari, Pasaportearen zenbakiari edo Atzerritarren Identifikazio Zenbakiari dagokien laukitoxoa betetzen da. Lauki hori Atzerritarren Identifikazio Zenbakiarekin bete dutenei buruzko iragazketaren bidez datu hori ustiari balitz, etxebizitza eskatu duten atzerritarren kopurua jakingo genukeen gutxi gorabehera. Era berean, espainiar nazionalitateari ez dagozkion pasaportez-zenbakiei buruzko iragazketaren bidez etxebizitza eskatu duen atzerritar biztanleriaren beste multzo baten berri izango genuke. Hala ere, orain arte ez da horrelako prozedurarik gauzatu, ez ofizioz, ezta horri buruzko azterlanen bidez ere. Datu horiek ustiatzeko ahalegin handia eskatzen duen prozedura egin beharko litzateke, eta azterlan honen eskumenak gaingitu beharko lirateke.

- Etxebizitzaren titularra izango direnen arteko norbait Euskadiko udalerriren batean bizitzea, dagokion errolda-ziurtagiriaren bidez egiaztatuta.
- Dagokion bizikidetza-unitatearen diru-sarrera guztiak 3.000 eurotik 43.000 eurora bitartekoak izatea, salbu eta bizikidetza-unitatea ezintasun mota jakin batzuetarako aurreikusitako salbuespenetara bil daiteke.

Etxebizitza eskatzeko aurreko urteko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren likidazio-ordainagiria aurkeztu behar denez gero, Euskadin urtebete baino gutxiago daramatenak kanpo uzten dira. Bestalde, langile etorkin askok —batez ere emakumeek etxe-zerbitzuan— ezkutuko ekonomian lan egiten dutenez, ezinezkoa da lan-jarduera horren bidez lortzen dituzten diru-sarrerak zenbatu, eskatzailea izateko eskatzen diren gutxienekoetara iristeari dagokionez (3.000 euro alokairuko etxebizitzaren zozketarako eta 9.000 euro etxebizitza jabetzan eskatzeko). Baldintza horiek kontuan izanik, atzerritar biztanleriak mugatua du, hein batean, etxebizitza-zozketetan eta etxebizitza-programa publikoetan parte hartzeko aukera.

Muga metodologiko horiek kontuan izanik, bi aukera daude: atzerritarren proportzio txikiagoa aukeratzea (adibidez, atzerritar biztanleria osoaren % 30 baino gutxiago da eskatzailea) edo atzerritarrei etxebizitza publikoagatik gastu berdina atxikitzea. EAEko atzerritar biztanleria eskatzailearen erregistro espezifikorik edo biztanleria horren etxebizitza-premiari buruzko azterlanik ez dagoenez, egokitzen jo da atzerritar biztanleria eta bertakoa berdin zenbatzea etxebizitzaren arloko gastu publikoei dagokienez.

Hain zuzen ere, EAEren Aurrekontu Orokorretan, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren programaren partiden xehetasunean, 2006. urtean etxebizitza-arloan bildutako partidak jasotzen dira. Programa horretako gastuen partida guztien artean bideratutako zenbatekoa 177.500.000 euro da. Zenbateko horri EAEko biztanleria osoaren % 4,01 atxikitzen bazaio —2006ko urtarrilaren 1ean EAEko atzerritarrek biztanleria osoaren ehuneko hori osatzen baitzuten—, emaitza 7.116.188 euro inguru da. Natiboei, berriz, 170.383.812 euro dagozkie.

Azkenik, aditzera eman behar da Eusko Jaurlaritzaren Administrazioa ez dela EAEn etxebizitza-politikak egiten dituen administrazio bakarra. Esate baterako, Barakaldoko udalerrriak (Eretza sozietatea), Bilbokoak (Bilboko

Udal Etxebizitzak) eta Gasteizko Etxebizitzarako eta Hiri Berrikuntzarako Udal Eragintegiak ere egiten dituzte politika horiek. Hortaz, lehen lortutako kopuruak ez du jasotzen etxebizitza-arloan etorkinei bideratutako gastu publiko guztia. Izan ere, kopuru horietan ez dira jaso etxebizitza-arloko bestelako jardun publiko horiei dagokien gastua.

3.3.5. *Etorkinentzako arreta*

Gastu publikoaren azken epigrafe gisa, beharrezkoa da euskal administrazioek biztanleria etorkinaren arreta espezifikorako egiten dituzten ekarpenak biltzea. Zehazki, Eusko Jaurlaritzaren Inmigratio Zuzendaritzak egindako gastu guztia biltzen da. Izan ere, EAEn atzerritarrak bizitzeak ematen dio zentzua administrazio-unitate hori sortu eta eusteari. Hain zuzen ere, Zuzendaritza horri 5.974.924 euroko aurrekontua esleitu zitzaion 2006. urtean.

Hala ere, Inmigratio Zuzendaritzan gastu horiek guztiak atzerritarrei esleitzea erlatibizatu egin daiteke; izan ere, Zuzendaritza horren jardun guztiak ez dira atzerritarren arretara soilik bideratzen, atzerritarrek parte hartzen duten programek osaturiko multzo bat izango balitz bezala. Aldiz, gizarte-aniztasunaren kudeaketa euskal herritar guztien arduratzat hartu beharko litzateke, eta etorkinentzako zuzeneko arreta funtseko tresna da gure hiri eta herrietako gizarte-giroa hobetzeko, trantsizio demografiko eta ekonomikoa azkar gauzatzen ari den une honetan.

3.4. Langileen zerga-arloko diru-sarrerak

Herritarrek, jasotzen dituzten irudi desitxuratuen artean, jasotzaileekin zerikusirik ez duen instantzia batek —Estatuak, esaterako— egindako «dohaintzatatz» hartzen dute gastu publikoa, presiopean alda daitezkeen irizpide politikoen arabera biztanleriaren artean banatzen den dohaintzatatzat hartu ere. Egia esan, aditzera eman behar da herrialde garatu guztietan jasotzaileek finantzatzen dutela gastu publiko sozial guztia; bestela esanda, langileek, beren zerga eta lan-arloko kotizazioen bidez, sortzen dute gastu publiko sozialerako fondoa. Horixe erakutsiko dugu segidan, langile etorkinen zerga-arloko ekarpena aurreikusiz, ekarpen hori egiten duten gastu publikoaren «kontsumoari» kontrajartzeko.

Azterlan honen ondorioetarako, lan-arloko kotizazioak alde batera utzi dira. Izan ere, Administrazio zentralak biltzen ditu eta kotizazio horiekin Estatuaren maila horrek administratzen dituen prestazioak (pentsioak eta langabezia-gastuak, batez ere) finantzatzen dira, besteak beste. Tributu itunduak soilik aztertu dira; euskal administrazioen aurrekontuak zuzkitzeko erabiltzen dira tributu horiek.

Aurreikuspen hori egiteko, lehenik eta behin biztanleria natiboaren eta etorkinaren guztizko eta batez besteko diru-sarrerak kalkulatu dira, lanbide-kategoriaren arabera, Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuak (enplegua) eta Familien Aurrekontuei buruzko Inkesta Iraunkorreko datuak (diru-sarrerak) baliatuta.²⁷

Lanbide-kategoriaren araberrako batez besteko diru-sarrerak kalkulatu ondoren, BEZari, PFEZari eta beste zerga batzuei egindako ekarpenak aurreikusi dira:

- Balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez, biztanleria etorkin landunaren lanaren araberrako banaketa eta Familien Aurrekontuei buruzko Inkesta Iraunkorreko (FAII) taldeen araberrako gastuaren banaketa kontuan izan dira kolektibo etorkinaren guztizko gastuak kategoria bakoitzean ordaindutako zerga zehazteko, FAIIn aintzat hartutako gastu talde bakoitzari dagokion zergaren batez besteko balioaz biderkatua (zenbait kasutan, dagokion taldearen batez besteko BEZa gisa aurreikusi da).
- Zerga berezietan, biztanleria etorkinak soldata-errentetan duen pisuaren ehuneko berdina esleitu zaio biztanleria etorkinari (kasu ho-

²⁷ Familien Aurrekontuei buruzko Inkesta Iraunkorrek 2004. urtera arteko datuak soilik ematen dituenenez, datu horiek 2006. urtera eguneratu dira, 2004. urteko kontsumo-prezioen indizea gehituz. Irizpide hori egokia da; izan ere, 1997az geroztik soldatak, batez ere laneko diru-sarrerak, ez dira egiaz igo. Emakumeen eta gizonen diru-sarreraren arteko bereizketa egin da, sexuen artean diru-sarreraren aldeak handiak dira-eta. Nekazaritzako eta arrantzako langile kualifikatuen diru-sarrerak —horietarako Familien Aurrekontuei buruzko Inkesta Iraunkorrek ez du Euskadiko daturik ematen— Espainia osorako emandako balioan oinarrituta kalkulatu dira, oinarri horri Euskadiren eta Espainiaren arteko batez besteko soldata-aldea (+% 21) gehituta, eta, emakumeei dagokienez, zenbateko horri emakumeen eta gizonen diru-sarrerak EAEn duten batez besteko aldeari dagokion kopurua (–% 24,7) kendu zaio. Indar Armatuetan dihardutenei dagokienez —inkestak horiei buruz ere ez du daturik ematen—, administrariaren moduko enplegatuen batez besteko diru-sarrera hartu da kontuan.

rretan, ez da kontuan izan autonomo eta enpresaburu atzerritarren diru-sarrerren pisu erlatiboa, horien nazionalitatearen arabera (bana-
naketarik ez dagoelako).

- Azkenik, biztanleria etorkinak ordaintzen duen PFEZ zerga horren errenta-tarteen arabera batez besteko tasan oinarrituta aurreikusi da, betiere 2004. urteari dagokionez. Langile etorkinen (gizonak eta emakumeak) lanbideen arabera batez besteko soldatari dagokion tasa aplikatu da. Tasa hori kalkulatzeko, soldata-masa eta enplegua kalkulatu da, autonomia-erkidegoen, lanen, sexuaren eta nazionalitatearen arabera, Familien Aurrekontuei buruzko Hiruhileko Inkestako eta Biztanleria Aktiboaren Inkestako datuetan oinarrituta (ikus estatistika-eranskinaren ohar metodologikoa).

Aurreikuspen horiek kontuan hartuta, 2000-2005 denbora-tarteari dagokionez, aurreikusi da tributu itunduengatik zerga-arloko diru-sarrerren % 82 inguru lan-errentek sortutakoa dela. Ehuneko hori bat dator gutxi gorabehera errenta-iturri horren bidez egiaz bildutakoarekin.

3.5. EAEko gastu publiko sozialaren zerga-balantzea: 2006ko laburpena

Gastu publikoko partidei dagokienez orain arte aurreikusi dugun agregazioak gizarte-zerbitzuei dagokienez 2004rako eskuragarri zegoen gastua 2006an balioestea eskatzen du. Horretarako % 27ko hazkundera kalkulatu da termino nominaletan, eta Eusko Jaurlaritzak ere zifra hori adierazi du (Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetza, 2006). Hortaz, euskal erakundeek kudeatutako gastu soziala 6.041 milioi euro da. Aditzera eman behar da, metodologiari dagokionez izandako zailtasunak zailtasun, zifra hori Ekonomia, Aurrekontu eta Kontrol Ekonomikoko Sailburuordetzak aurreikusitakoaren arabera Eusko Jaurlaritzak eta Foru Aldundiek egiten duten gastuaren magnitude-ordena berekoa dela (% 2,8 handiagoa): 5.879,3 milioi euro 2006rako.

Euskal gastu sozial publikoa KPIaren % 9,5 inguru da 2006an.

Biztanleria etorkinaren arretari dagokionez 2005ean eta 2006an hazkundera izan ote den kontuan izan gabe, termino agregatuetan, biztanleria etorkinari atxikitako gastu publiko soziala 233,9 milioi euro da 2006ko

36. taula


EAEko gastu publiko soziala (eurotan), gastu hori biztanleriaren nazionalitateari atxikitzearen arabera, 2006

Partida	Ez-nazionaliei egotzitako gastua	Nazionaliei egotzitako gastua	Guztira
Hezkuntza	104.073.979,89	2.359.995.928,72	2.464.069.908,61
Sanitatea	62.827.522,15	2.445.787.455,85	2.508.614.978,00
Gizarte-zerbitzuak	68.498.588,84	816.636.627,18	885.135.216,02
Etxebizitza	7.116.188,00	170.383.812,00	177.500.000,00
Inmigrazio Zuzendaritza	5.974.924,00		5.974.924,00
Guztira	248.491.202,88	5.792.803.823,75	6.041.295.026,63

Iturria: Geuk landutakoa

32. grafikoa

EAEko gastu publikoa (milioi eurotan eta %-tan), biztanleriaren nazionalitatearen arabera, 2006



Oharra: Gizarte-zerbitzuetako gastuak 2004ko ekitaldiari buruzkoak dira

Iturria: Geuk landutakoa

ekitaldian EAEn, hots, euskal administrazioen gastu publiko sozialaren % 4,0. Etorkinek EAEko biztanleria osoan duten proportzioaren (betiere 2006ko urtarrilaren 1a kontuan izanik) antzekoa da ehuneko hori: % 4,01, hots, 85.542 atzerritar.

37. taula

EAEko atzeritarrei eta natiboei atxikitako gastu publiko soziala, 2006

Nazionalitatea	Gastu publikoaren zenbatekoa (milioi eurotan)	Biztanle kopurua	Batez besteko gastu pertsonala (eurotan)
Atzeritarrak	248,5	85.542	2.905,01
Atzeritarren %-a	4,1	4,01	
Natiboak	5.792,8	2.048.142	2.828,32
Natiboen %-a	95,9	95,99	

Oharra: Gastu publikoaren honako partida hauek bildu dira taulan: hezkuntza-gastua, gastu sanitarioa, gizarteratze-gastua, etxebizitza-gastua, Eusko Jaurlaritzaren Inmigrazio Zuzendaritzaren gastua

Iturria: Geuk landutakoa

Aurreikusi dugun gastu publikoaren konparazio-ikuspegia ageri da 32. grafikoan. Bertan, gastu publikoaren kopuru absolutuak eta erlatiboak bildu dira.


Beharrezko kalkuluak egindakoan, ikusi dugu EAEn 2006ko ekitaldian hautaturiko partiden gastu-aurreikuspenaren % 4,1 dagokiela atzeritarrei —248,5 milioi euro— eta 2006an EAEko 85.542 atzeritarrak EAEko biztanleriaren % 4,01 direla (betiere 2006ko urtarilaren 1eko biztanleen udal-eroldaren arabera). EAEko batez besteko gastu soziala 2.905 euro izan da etorkin bakoitzeko eta 2.828 euro natibo bakoitzeko.

Horren ondorioz, gastu sozialaren banaketa biztanleria etorkinaren pisu demografikoaren proportzio berberekoa izan zen, honako hauek gorabehera: gizarte-sektore horrek bertako biztanleriak baino prekarietate-egoera larriagoak ditu, eta, beraz, prekarietatearen arretarako gizarte-zerbitzuetara joateko premia handiagoa du eta bizitza- eta lan-baldintzei loturiko gaixotasunen intzidentzia-tasa handiagoak ditu, etab.

Hala ere, lan-errentetatik lortutako zerga-bilketa kontuan izanik, aurreikusi da biztanleria etorkinaren zerga-ekarpena biztanleria natiboarena baino % 23,5 handiagoa dela; edo, bestela esanda, etorkin bakoitzari natibo bakoitzari baino 76 euro gehiago bideratu zitzaizkion gutxi gorabehera 2006an euskal gastu sozialean, baina etorkin bakoitzak natibo bakoitzak baino 1.097 euro gehiagoko ekarpena egin zien gutxi gorabehera EAEko Ogasunei zerga-kargetan.

33. grafikoa

EAEko gastu publiko soziala eta zerga-ekarpena biztanle bakoitzeko,*
nazionalitatearen arabera, 2006 (eurotan)



* Lan-arloko kotizazioak eta Estatuko Administrazio zentralak kudeaturiko gastuak (pentsioak eta langabezia) ez dira kontuan hartu

Iturria: Geuk landutakoa

Eskuragarri dauden datuak, beraz, ez datoz bat biztanleria etorkinak gizarte-zerbitzuetan bere pisu demografikotik gorako parte-hartzea duelako pertzepzioarekin, eta, nolanahi ere, esan daiteke gaur egun etorkinek beren kopuruari dagokion proportzioan kontsumitzen dituztela euskal gizarte-zerbitzuak eta proportzio horretatik gorako ekarpena egiten dutela gizarte-zerbitzu horien finantziatorako.

Horrek ez du esan nahi adierazitako pertzepzio hori guztiz faltsua denik, ezta kuantitatiboki ezeztatzea nahikoa denik ere. Kontuan izan behar da gizarte-zerbitzuen banaketa espaziala jendearen lurralde-kokapenari loturik dagoela. Esate baterako, anbulatoriak, eskolak, eguneko zentroak, etab., biztanleria-kontzentrazio egokia dagoen lekuetan jartzen dira. Azpiegitura horri dagokionez, gehiena atzerriko lanerako indarra masiboki iritsi baino lehen egina zegoen. Biztanleria hori, gainera, lurraldearen zona jakin batzuetan biltzen da. Biztanleria azkar hazi denez eta Europako egonkortasun-politikaren testuinguruan gastua kontrolatzeko ezarri den politika dela-eta, egia esan, azpiegitura-arloko gastua ez da biztanle berrien kokapen-eritmoaren bat etorri. Hortaz, zona eta zerbitzu jakin batzuetan, biztanleria

etorkinaren presentzia masiboa izateaz gain, une jakin batzuetan hainbat zerbitzuek gainezka egin dezake.

Arazo horri aurre egiteko, beste neurri batzuetan artean, ezinbestekoa da gastua leku jakin batzuetara bideratzea, batez ere azpiegiturei dagokienez, eta gastu arrunta areagotzea, biztanleria eskatzailearen bilakaeraren araberrako proportzioan, zerbitzu publikoen kalitatea eta eraginkortasuna bermatzearen.

Dena den, alderdi makroekonomikoari eta plangintzari dagokienez, ezinezkoa da bilakaera demografikoa eta espaziala eta eskaeraren bilakaera epe luzean aurreikustea. Izan ere, agerian geratu denez, atzeritarrek errentei eusteko gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzte gehienbat, eta oso gutxi erabiltzen dituzte mendetasun-arloko zerbitzuak.

Biztanleria etorkinaren finkatze-mailak eta biztanleria horren adin-taldean eta errenta-mailen araberrako bilakaerak gastuaren esleipen erlatibo hori aldaraz dezakete epe ertainean: biztanleria ibiltariagoa bada, gastu sozialaren egungo banaketa-eredua indartuko da, eta immigrazioa euskal ingurune sozial eta ekonomikoan finkatzen bada, bertako gizarte-zerbitzuetako eskaera-eredura egokitzeko joera izango du. Politika publikoetan kontuan hartu beharko dira immigrazioaren eragin hori eta immigrazioak izan ditzakeen portaera sozioekonomikoak, gizarte-zerbitzuek eskaera zerbitzu moten eta biztanleria taldeen araberrak dituzten bilakaera-ibilbideei dagokienez.

4

Ondorioak eta proposamenak

4.1. Ondorioak

1. Lanerako indar atzerritarra Euskadiko eta Espainiako ekonomian masiboki txertatzea metatze-ziklo berri batek ekarritako fenomeno berria da. Metatze-ziklo hori Europako lan-banaketan izandako aldaketetan oinarritzen da, baita emakumeak lan-merkatuan masiboki sartzean eta euroa txertatzeak sortutako metatze-baldintza berrietan ere.
2. Langile etorkinak Espainiako ekonomian sartu eta egokitu izana ez da faktore koiunturala, guztiz egiturazkoa baizik, eta gure ekonomia-
ren hazkuntzaren oinarria izan da.
3. Laneskuaren inportazioa jarduera jakin batzuetan zeuden itoguneen-
tzako irtenbidea da. Izan ere, jarduera horietarako —batez ere eraikun-
tzarako, nekazaritzarako eta etxeko lanetarako— lanesku egokiturik
ez izateak jarduera horiek zabaltzea eragozten zuen. 1999tik 2006ra
169.860 enplegu ordaindu sortu dira Euskal Autonomia Erkidegoan;
langile natiboek 124.121 hartu dituzte, eta etorkinek, berriz, 45.379
(% 27). Beraz, lanpostu gehienak langile natiboekin bete dira, aldake-
ta azkarrena langile etorkinen artean gertatu den arren. Hain zuzen
ere, 1999an 3.661 ziren, eta 2006an 49.400, hots, kopuru hori 13,5ez
biderkatu da. Horregatik, atzerritar egoiliarren artean jarduera- eta
enplegu-tasa oso handia da, nazionalena baino handiagoa, baita
jarduera-tasa handiagoak dituzten Europar Batasuneko herrialdeena
baino askoz handiagoa ere. Adinen araberako osaerak garbi erakus-
ten du biztanleria hori —herrialde periferikoetatik datorrena berezi-
ki— lanerako indarra dela.

4. Epe laburrean izan den immigrazio masiboak ekonomiaren eta gizartearen epe luzeko joerak aldatu ditu eta EAEko biztanleriaren zahartze-joera eta biztanleria-atzerakada eten ditu; era berean, belaunaldi-berrikuntza erraztu du eta gizarte-portaera berriak ekarri ditu.
5. Espainian eta Euskadin atzerritarren jatorriaren banaketa-ereduak desberdintasun esanguratsuak ditu. 2001. urtetik aurrera, herrialde periferikoetatik etorritako egoiliarren kopurua nabarmen igo da Espainian eta Euskadin. Alabaina, ondorengo bilakaeran zenbait alde izan dira, herrialde nagusietatik etorritako egoiliarren kopurua (Estatu Batuak, Kanada, EB-15 eta Europako gainerako herrialdeak) txikiagoa baita Euskadin. Atzerriko egoiliar horietako asko biztanle ez-aktiboak dira, pentsiodunak eta ikasleak bereziki. Izan ere, biztanleria talde horrek (Europako eta Ipar Amerikako erretiratu eta errentadunak) Espainiako Mediterraneoko eskualdeetara jotzeko joera du. Horregatik, biztanleria hori gero eta handiagoa da Espainian; Euskadin, aldiz, gero eta txikiagoa da. Herrialde periferikoetatik datozen atzerritarrei dagokienez, ikusi da latinoamerikarrek presentzia handiagoa dutela (EAE % 48,3 dira; Espainian, berriz, % 36,2). Gainerako herrialde eta eskualdeei dagokienez, ehunekoak antzekoak dira.
6. Euskadin, langile etorkinen ehunekoa beste autonomia-erkidegoetan baino txikiagoa da. Izan ere, eraikuntza- eta nekazaritza-jardueren pisu erlatiboa txikiagoa da eta emakume gutxiago sartu dira lan-merkatuan. Euskal biztanleriak zahartze-maila eta erosteko ahalmen handiagoa duenez, etxeko lanetarako indarraren eskaeraren pisu erlatiboa handiagoa da, batez ere emakumeei, eta bereziki, latinoamerikarrei dagokienez; era berean, eraikuntza- eta nekazaritza-jardueretan batez ere diharduten beste nazionalitateetakoen pisu erlatiboa txikiagoa da.
7. Euskadiko atzerritar biztanleriak Espainiakoak baino kualifikazio handiagoa du; izan ere, Euskadiko lan-merkatuak prestakuntza-maila handiagoko lanerako indarra eskatzen du. Natiboen prestakuntzaren eta atzerritarren prestakuntzaren arteko korrelazioak honako ideia

hau indartzen du: metatzearen dinamikak eskatzen du produkzioaren premiei egokituriko ezaugarriak dituen lanerako indar etorkina. Eta hori gauzatzen ari da, nahiz eta laneskua jatorrian hautatzeko politika aktiboek migrazio-dinamikari dagokionez oso garrantzi txikia izan gurean. Laguntzako politika publikorik ez dagoen kasuetan ere hautatzen du merkatuak. Bilakaera hori aztertuta, pentsa daiteke kualifikazioen ikusgarritasuna eta giza kapital etorkinaren balioztatzea hobetzeko politikak eraginkorragoak izan litezkeela.

8. Biztanleria etorkinari bideratutako gastu publikoa gizartearen hainbat sektoretan «gehiegizkotzat» hartzeko zabaltzen ari den joera zentzu hertsian gastu sozialtzat hartzen den gastura murriztu ohi da. Gastu hori EAEko gastu publikoaren % 47 inguru da, Estatuko Administrazio zentralak kudeatzen duen gastua kenduta. Hezkuntza-gastua, gastu sanitarioa, gizarteratze-gastua, etxebizitzagastua eta Eusko Jaurlaritzaren Inmigratio Zuzendaritzaren gastuak hartzen dira aintzat.
9. Egindako aurreikuspenek honako hau erakutsi dute: biztanleria etorkinaren arretari dagokionez 2005ean eta 2006an hazkundera izan ote den kontuan izan gabe, termino agregatueta, biztanleria etorkinari atxikitako gastu publiko soziala 233,9 milioi euro da 2006ko ekitaldian EAEn, hots, euskal administrazioen gastu publiko sozialaren % 4,0. Ehuneko hori biztanleria etorkinaren pisuaren antzekoa da (% 4,01 2006ko urtarrilean).
10. 2006an, EAEko batez besteko gastu soziala 2.905 euro izan da etorkin bakoitzeko eta 2.828 euro natibo bakoitzeko.
11. Gastu sozialaren banaketa biztanleria etorkinaren pisu demografikoaren proportzio berberekoa izan zen, hoanko hauek gorabehera: gizarte-sektore horrek bertako biztanleriak baino prekarietate-egoera larriagoak ditu, eta, beraz, prekarietatearen arretarako gizarte-zerbitzuetara joateko premia handiagoa du eta bizitza- eta lan-baldintzei loturiko gaixotasunen intzidentzia-tasa handiagoak ditu, etab.
12. Lan-errentetatik lortutako zerga-bilketa kontuan izanik, aurreikusi da biztanleria etorkinaren zerga-ekarpena biztanleria natiboarena

baino % 23,5 handiagoa dela; edo, bestela esanda, etorkin bakoitzari, batez beste, natibo bakoitzari baino 76 euro gehiago bideratu zitzaizkion gutxi gorabehera 2006an euskal gastu sozialean, baina etorkin bakoitzak natibo bakoitzak baino 1.097 euro gehiagoko ekarpena egin zien gutxi gorabehera EAEko Ogasunei zerga-kargetan. Alde horren arrazoia honako hau da: jarduera-tasa askoz ere handiagoa da biztanleria etorkinarengan, eta, beraz, atzeritar biztanleriarengan zergadunen ehunekoa handiagoa da.

13. Alderdi makroekonomikoari eta plangintzari dagokienez, ezinezkoa da bilakaera demografikoa eta espaziala eta eskaeraren bilakaera epe luzean aurreikustea. Izan ere, agerian geratu denez, atzeritarrek errentei eusteko gizarte-zerbitzuak erabiltzen dituzte gehienbat, eta oso gutxi erabiltzen dituzte mendetasun-arloko zerbitzuak.
14. Biztanleria etorkinaren finkatze-mailak eta biztanleria horren adin-taldeen eta errenta-mailen arabera bilakaerak gastuaren esleipen erlatibo hori aldaraz dezakete epe ertainean: biztanleria ibiltaria-goa bada, gastu sozialaren egungo banaketa-eredua indartuko da, eta immigrazioa euskal ingurune sozial eta ekonomikoan finkatzen bada, bertako gizarte-zerbitzuetako eskaera-eredura egokitzeko joera izango du. Politika publikoetan kontuan hartu beharko dira immigrazioaren eragin hori eta immigrazioak izan ditzakeen portaera sozioekonomikoak, gizarte-zerbitzuek eskaera zerbitzu moten eta biztanleria taldeen arabera dituzten bilakaera-ibilbideei dagokienez.

4.2. Proposamenak

Atzerriko langileen egoera heterogeneoa da, eskualde eta probintzietako errealitate sozial eta ekonomikoa askotarikoa den bezainbeste. Jatorrizko aniztasuna, etorkinen profila, ahalmen eta gaitasunak, eta etorkinak kokatzen diren lan-merkatuaren eta lekuaren berezko faktore asko kontuan izanik, ezin dira sinplifikatu egiten diren azterketak eta proposamenak.

Baina, aldi berean, Espainiako lanerako indarra lanesku etorkinarekin zabaltzeko prozesu azkar eta trinkoak kolektibo horren ezaugarri espezi-

fikoak ditu, eta, horri esker, langile etorkinentzako lan- eta gizarte-arloko politika espezifikoa bidera daitezke; izan ere, politika horiek modu espezifikoan landu behar dira enpleguko eta lan-erregulazioko politika aktiboen testuinguru orokorrean. Segidan, langile etorkinen gizarteratzea eta integrazio soziolaborala hobetzeko proposamen sorta bat bildu da. Orientazio horietan oinarritutako politikaren aplikazioak atzerritarrak lanerako indarreko zirkuitu orokorretan duten integrazioa hobetzea ahalbidetu behar du, zirkuitu horietan behar bezain balioetsita ez dauden jardura jakin batzuekiko lotura murriztuz, baita lanerako indar etorkinaren balio kuantitatiboaren eta kualitatiboaren gizarte-aprobetxamendu hobea lortzeko aukera ere.

1. *Diru-sarrera txikiak dituen biztanleriarentzako gizarte-zerbitzuak hobetzea*

Ahalegin ekonomikoa egin behar da biztanleria behartsuarentzako eta batez ere diru-sarrerarik txikiak dituzten gizarte-mailentzako gizarte-zerbitzuak areagotzeko. Gastu sozialari eusteko joera —betiere zerbitzu publikoen biztanleria erabiltzailearen edo zerbitzu horiek erabil litzakeen biztanleriaren hazkundearen azpitik— iraunaraziz gero, batez ere diru-sarrera txikiei loturiko gizarte-zerbitzuei dagokienez, joera arrazistak gero eta nabarmenagoak izango dira eta arazo sozial bihur daitezke —hainbat ezauzgarriekin: *ghettizazioa*, indarkeria, etab.— Euskadiko hainbat inguruetan (etorkin kopuru handiagoa duten auzo eta herrietan).

2. *Etorkinen egoera soziolaboralari buruzko informazioa, dokumentazioa eta datuak biltzea eta aztertzea*

Gaur egun, etorkinen egoera soziolaboralari buruzko informazio guztia sakabanaturik eta bereizita dago, eta zaila da informazio hori homogeneizatzeko. Atzeritarren egoera soziolaboralaren bilakaerari buruzko datuak bildu, aztertu eta sistematikoki analizatu egin behar dira, hain zuzen ere joerak eta arazoak aurreikusteko ahalmena duten eraginpeko erakundeek emandako datuak.

Horregatik, azterlan- eta jarraipen-unitate bat sortu behar da, zeregin hori egin dezan eta eraginpeko alderdientzako aldizkako azterlanak egin ditzan, honako hauentzat hain zuzen ere: administrazioa, enpresaburuak, sindikatuak, unibertsitateak eta gizarte-eragileak. Bbateratu baino dauden

datuak interpretatu eta aztertu egin behar dira, sektore osorako eta sektoreko eragile inplikatuentzako jardun eta esku-hartzeak orientatzeko.

3. *Udala inplikatzea enpleguaren arloko erantzukizunak har ditzaten*

Udalek beren udalerrietan etorkinen integrazio soziolaboralaren aldeko jardun ugari abian jartzeko ahalmen handia dute. Hortaz, jardun horietan aitzindari izateaz gain, gainerako administrazio publikoekin batera garatu behar dituzte. Egia esan, beren inguruneko errealitate ekonomiko eta sozialari buruz duen jakintza eta herritarrekiko hurbiltasuna direla-eta, udalek gainerako administrazio publikoek baino eraginkortasun handiagoa dute. Hortaz, beharrezkoa da udalek udal-arloko lan-politikak abian jartzeko erantzukizuna beren gain hartzea, irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkar-teenkiko lankidetzak ahalbidetuz eta bultzatuz. Baina ez dute inola ere erantzukizun garrantzitsu hori ekimen pribatuaren esku utzi behar, leku askotan egin ohi den bezala. Beraz, Administrazio publikoak sortu eta gauzatu behar ditu biztanleriaren edozein kolektiborentzako arreta eta kolektibo horien premiekiko erantzuna, betiere zerbitzu publiko ororen unibertsaltasun-prinzipioan oinarrituta. Bestalde, lehen adierazi ditugun lan-arloko eskumen-esleipenarekiko (toki-arloko, autonomia-arloko eta estatu-arloko eskumenak) kontraesanik sortu gabe, positiboa litzateke Sustapen Zinegotzigoek eta Toki Garapenerako Agentziek biztanleria etorkinaren lan-normalizazioa bultzatzeko eta errazteko jardunak (lan-arloko autonomia-administrazioarekin batera) garatzeko aukera eta komenigarritasuna balioestea.

4. *Etorkinei enplegu-politikez arduratzen diren baliabide eta erakundeetara sartzeko aukera erraztea*

Beharrezkoa da atzerritar biztanleriari enplegu-erakunde, lanbide-heziketako eta gizarteratzearen nahiz laneratzearen arloko eskumenak dituzten erakunde guztietarako sarbidea erraztea, talde eta sare mafiosoek jardun-eremuetatik aldentzeko. Horretarako, atzerritar gehiago dauden zonetan, immigrazioan espezializatutako lan-bitartekarien lanpostuak sortu beharko dira. Bitartekari horiek atzerritartasunari buruzko jakintza izango dute, itzulpengintzako eta interpretazioko zerbitzuak emateko gai izango dira, baita atzerritarren egoerara egokitutako gizarteratze-ibilbide espezifikoak egiteko ere, baliabide

publiko eta pribatuetarako sarbidea erraztuz eta enpresaburuekin solaskide-lanetan jardunez. Sindikatuen sarea euskarri instituzional egokia izan daiteke.

5. *Lanbide-heziketako, lan-praktikako eta jakintzak hobetzeko ekintzak abian jartzea*

Biztanleria etorkinarentzat propio diseinaturiko prestakuntza-ekintzen programa diseinatu eta abian jarri behar da, batez ere langabezia daudenei edo lanbide-aukerak hobetu nahi dituztenei dagokienez, eta bereziki eskaera bereziko sektore eta lanetan. Horretarako, enpresa-erakundeen, merkataritza-ganberen, profesionalen elkargoen eta nekazaritzako sindikatuen nahiz kooperatiben eskaeren berri ere izan behar da, joerak eta prestakuntza-hutsunean hobeto balioestearren. Garrantzi berezia du prestakuntza-ekintza horiekin batera gaztelaniazko eskolak ematea lana lortu nahi duten etorkin guztiei, baita atzeritarrentzat propio diseinaturiko material teknikoak egitea ere. Material horietan, atzeritarren eskakizun dokumentalak hartuko dira kontuan, beren lan-jarduerak eskatuko dizkien legezko eskakizunez hobeto jabe daitezen, betiere libre dituzten orduetara eta bertaratzeko aukeretara egokituta.

6. *Autoenplegua sustatzeko neurriak ezartzea langile etorkin autonomoentzat*

Biztanleria etorkina oso dinamikoa eta ekintzailea da; ikusi besterik ez dago etorkinek zenbat negozio jartzen dituzten abian. Hortaz, garrantzitsua da etorkinen autoenplegua bultzatzako jardun sorta bat gauzatzea, enplegua sortzen duten ekonomia- eta enpresa-jarduerak abian jarritz, prestakuntza- eta aholkularitza-ekintzak garatuz, eta laguntza-ildo espezifikoak gauzatuz. Horren guztiaren osagarri, lagundutako garapenerako ekintzak ezar daitezke, beren jatorrizko herrialdeekin ekonomiaren, merkataritzaren eta harremanen arloan duten ahalmena aprobeztatzearren.

7. *Kulturarteko lan-bitartekaritzako zerbitzua sortzea*

Unibertsitateekin eta bestelako prestakuntza-zentroekin batera, kome-nigarria da biztanleria etorkinarentzako kulturarteko lan-bitartekariaren

figura abian jartzea. Enplegu-arloan erakunde publikoekin (enplegu-zerbitzuak, merkataritza-ganberak, enplegu-toki-agentziak) eta erakunde pribatuekin (enpresa-erakundeak, sindikatuak, GKEak, profesionalen elkargoak, nekazaritza-erakundeak, kooperatibak) lankidetzan aritzen diren atzerritarrei eman behar zaie lehentasuna, biztanleria etorkinaren enpleguarekin eta lan-aholkularitzarekin zerikusia duten zeregin guztietan laguntzeko. Bitartekari horiek lan-eremuko oinarrizko prestakuntza-ekintzak ere egin ditzakete, lan-egoerari eta lan-merkatuari buruzko informazioa bilduz zonen arabera. Horretarako, praktikak egiteko hitzarmenak sina daitezke unibertsitateekin eta GKEekin, Europako proiektuen bitartez kontratazio sozialeko formulak gauzatzuz, betiere atzerritarraren dimentsio soziala eta juridikoa kontuan izanik eta askotan gertatzen diren desberdintasun kultural eta sozialak ezabatzen saiatuz. Lan-istripuen mutuen eremuan, esate baterako, arazo ugari sortzen ari dira, eta arazo horien aurrean, istripua izanez gero edo lan-bajan egonez gero, etorkinek ez dute jakiten zer egin beren eskubideak baliatzeko.

8. *Betetzen ez diren lan-eskaintzei edo nekez betetzen diren lanpostuen katalogoari loturiko eskaintzei buruzko jarraipen espezifikoari eustea*

Lana egiaz eta ziur egoteari loturiko erregularizazio-aukeren artean, kontuan hartu behar dira enplegu-zerbitzu publikoek bideratu ezin izan dituzten eta nekez betetzen diren lanpostuen katalogoan bilduta dauden eskaintzak. Egiatzko lana, hartara, etorkin irregularren kopurua murrizteko eta aldi berean ezkutuko ekonomia gutxitzeko mekanismo bihur liteke. Horretarako, oso garrantzitsua litzateke betetzen ez diren lan-eskaeren eta nekez betetzen diren lanpostuen katalogoan bildutako lan-eskaeren jarraipen espezifiko egitea, eta iruzur eta abusuko egoerarik ez gertatzeko baliabideak ezartzea.

9. *Mendetasunari buruzko Legea kolektibo etorkina hobeto laneratzeari lotzea*

Mendetasunari buruzko Legea onartu izana gertaera berria dugu gure udalerrietan. Une honetan, gure herri eta hirietan inoren laguntza behar duen biztanleria zenbatekoa den balioesteko izapideei eta prozedurei ekin zaie, inoren laguntza behar dutenen eta haien zaintzaile nagusien eguneroko bizitza erraztearren. Laguntza behar dutenaren ahaideek zaindu ezin

dituztela-eta, zaintzaile horietako asko emakume etorkinak dira, eta, horien artean, askok barneko langileen erregimenean edo lan-baldintza prekarioan dihardute. Gaur egun, gure gizartearen funtsezko elementua dira, baita ongizatea sortzen duen tresna ere —nola inoren laguntza behar dutenentzat hala haien ahaideentzat; izan ere, familien bizi-kalitatea gehitu dute—. Inoren laguntza behar dutenei gaur egun oinarritzko zaintza eta laguntza ematen dieten etorkinen errolda egitea ekimen garrantzitsua litzateke, Mendetasunari buruzko Legean aurreikusitako neurriak eta baliabideak abian jartzen direnean bere lan-baldintzak hobe ditzaketen etorkinek hobe ditzaten eta horrek ekar lizkiekeen eskubideak baliatzeko aukera ere izan dezaten.

10. *Lanean jarrera arrazisten eta diskriminatzaileen aurka borrokatzea*

Atzerritarrak direlako edo beren nazionalitatea edo beste edozein ezaugarri aitzakiatzat hartuta lan-merkatuan atzerritarren aurka gertatzen diren diskriminazio-egoeren aurkako ekintzak garatzea, gainerako langileei aplikatzen zaizkien soldata- eta kontratu-neurri berdinak aplikatzen zaizkiela zainduz. Ekintza horietan, sindikatuen zeregina funtsezkoa da, Lan Ikuskaritzarekin batera eta legeek onartzen dutenari jarraiki, langile etorkinak eskubide eta betebeharrak berdinak dituzten pertsonatzat hartzeari dagokionez. Horretarako, garrantzitsua da atzeritarrek eskualdeko ekonomiari eta lan-merkatuari egiten dizkieten ekarpenak hedatzea eta azaltzea, atzeritarren eskubideen eta betebeharren arteko lotura adierazteko kanpaina positiboen bidez. Sindikatuak kanpaina horietan inplikatu behar dira.

11. *Lanean lanpostuz igotzeko aukera sustatzea*

Lanpostuz igotzeko eta prestakuntza jasotzeko aukerak ere gizarteratze-faktoreak dira eta marjinalizazio-prozesuak saihesten dituzte. Era berean, txertatu diren gizarteari eskaintzeko moduko prestakuntzak eta eskarmentuak dituzte etorkin askok eta interesgarria da prestakuntza eta eskarmentu horiek eskaintzeko aukera ematea. Horregatik, prestakuntzaren eta kualifikazioaren hobekuntzak atzerritarrak beren lanpostuetara hobeto egokitze mekanismoa izan behar du, baita haien lan-baldintzak hobetzeko eta arrisku-egoerak prebenitzeko faktorea ere.

12. *Kontratazio irregularren aurka borrokatzea*

Egoera irregularrean dauden etorkinen esplotazioan oinarrituriko jarduera ekonomikoak gizarte- eta enpresa-arloko distortsioa eragiten duten elementuak dira; horrez gain, ezkutuko ekonomia eta atzerriarren marjinalitatea sustatzen dute. Mekanismo guztiak ezarri behar dira —administrazio-mekanismoak, mekanismo dokumentalak eta integraziokoak— lan-nitxo garrantzitsuetan etorkin irregularren poltsak haz ez daitezen. Horretarako, garrantzitsua da esku hartzea dagoeneko lanean ari den eta errotuta dagoen immigrazioa azaleratu eta legeztatzeko, betiere atzeritar horien kontratazioari denbora-tarte jakin batzuetan eta nahitaez eusteko baldintzarekin.

13. *Immigrazioari buruzko komunikazio-bide iraunkorrak ezartzea beste autonomia-erkidego batzuekin, erkidego haietako probintzien eta gure erkidegoko probintzien artean etorkinen sarrera- eta irteera-mugimendu handia dagoen kasuetan*

Probintzien arteko mugigarritasun-prozesuen (etorkinak iristeko eta irte-teko prozesuak) nondik norakoak zehatzago jakiteko aurrera egin daitekeen heinean, immigrazioari eta enpleguari dagokienez autonomia-erkidegoetako agintariekin harremanetan jarri behar da, irteerako eta iritsierako fluxu horiek hobeto koordinatzeko, eta beharrezkoa den egoeretan esku hartzeko.

14. *Etorkinen herrialde igorle nagusietako kontsul-ordezkariekin harremanetan egotea*

Bide diplomatiko egokien bitartez, Euskadira etorkinak igortzen dituzten herrialde nagusietako ordezkaritza diplomatikoekin harremanak eduki beharko dira, iristen diren etorkinen ezaugarriak eta profilak, baita arazo nagusiak ere, hobeto ezagutzeko, eta integrazioko nahiz esku-hartze sozialeko mekanismo egokiak gauzatzeko. Harreman horiek edukitzea komenigarria izango da Erkidegoko nahiz Erkidegotik kanpoko atzerriarren kasuan. Dena den, bereziki garrantzitsua izango da atzerritarrak masiboki iristen direla atzematen denean. Izan ere, azken urteotan hainbat herrialdeetako etorkinak masiboki iritsi zaizkigu, hala nola Europako ekialdeko herrialdeetatik, Kolonbiatik, Ekuadorretik, Boliviatik, Marokotik eta Senegaletik.

15. *GKEek eta bestelako gizarte-erakundeek eta sindikatuek ematen dituzten enpleguko poltsa eta zerbitzu guztiak koordinatzea*

GKE jakin batzuek eta bestelako gizarte-erakunde eta sindikatuek biztanleria etorkinaren artean enplegua sustatzeko egiten ari diren jardunak oso garrantzitsuak dira toki-arloan biztanleria etorkina ahalik eta ondoen gizarteratzea eta laneratzea errazteko. Era berean, jardun horiek lan-eremuaren inguruan izan ohi diren zirkuitu mafiosoetatik aldentzen dituzte etorkinak, batez ere iritsi berriak. Hala ere, erakunde bakoitzak esku hartzeko eta jarduteko irizpide propioak ditu, eta, beraz, datuak biltzeko eta memoriak lantzeko hainbat modu dago, baita enpleguei eta biztanleria etorkinari buruzko jarraipenak egiteko ere. Horren ondorioz, batzuetan esku-hartzeak kontrajarriak izaten dira, eta, beraz, egiten diren ahaleginek ez dute behar bezalako emaitzarik izaten, helburu orokorrak ez dira bateratzen eta hainbat jardun bikoiztu egiten da. Hori gerta ez dadin, eremu soziolaboralean esku hartzeko irizpideak homologatu behar dira. Horretarako, Administrazio autonomikoak zentro homologatuaren bermea eman beharko lieke, eskakizun jakin batzuk bete eta egiten duten lana eta lortzen dituzten emaitzei buruzko aldizkako informazioa eman ondoren. Hori guztia bereziki garrantzitsua da baliabide publikoekin kudeatzen diren zerbitzuen kasuan.

16. *EAEko ekonomiaren eta produkzioaren bilakaeraren berri izatea aldizka*

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren eta produkzioaren bilakaerari buruzko aldizkako azterlanak egin beharko dira, dauden dokumentazio- eta ikerketa-baliabideak erabiliz, betiere garrantzi berezia emanez honako hauen berri izateari: lanesku-premiak, okupazio-sektoreen bilakaera eta sektore horietan biztanleria etorkinak duen eragina, baita sektore horien ezaugarri orokorrak ere. Horretarako, lankidetza-akordioak egingo dira merkataritzagangarekin, enpresa-erakundeekin, sindikatuarekin eta unibertsitateekin.

17. *Langabe gisa erregistratuta dagoen atzerritar biztanleriaren berri zehatzago izateko urratsak egitea, atzerritarrek ezkutuko ekonomian lan egin dezaten saihesteko*

Enpleguko zerbitzu publikoetan erregistratuta dauden atzeritarren egoera soziolaboralaren berri izatea da etorkinek kontraturik gabe lan egitea

eta aldi berean enplegu-eskatzaille gisa erregistra daitezen saihesteko modue-tako bat. Horren bidez, enpresaburuek eragindako abusu-egoerak eragotz litezke —alegia, dokumentazioa behar bezala duten atzerritarrei lan-kontra-turik egin nahi ez izatea—, eta, gainera, atzerritar horiek kotizatzaileak eta zergadunak izatea ahalbidetuko litzateke.

18. *Hainbat probintziatan aldi baterako eta sasoiko enpleguetan diharduten langile etorkinen mugigarritasuna erraztea*

Nekazaritza-ganberen, kooperatiben, sindikatuen eta enpresa-erakun-deen bitartez aldi baterako eta sasoiko langileen eskaeren berri izateko me-kanismoak ezarri behar dira, eta lan-baldintzak hobetzea sustatu behar da, baita ahal den neurrian nolabaiteko egonkortasuna ere. Aldi berean, aldi baterako langile etorkin ugari dagoen lekuetan, laguntza sozial eta juri-dikoko zereginak sustatu behar dira, GKE espezializatuekin, sindikatuekin eta probintzietako abokatuen elkargoekin batera. Ahaideekin bidaiatzen duten etorkinei dagokienez, garrantzitsua da ahaide horiek kokatzeko erraz-tasunak ematea, batez ere adingabeen kasuan, ikastetxeak, asistentzia sani-tarioa eta etxebizitza eskuratzeko aukera emanez, besteak beste.

19. *Bizitoki-sarea sortzea sasoiko langile etorkinentzat*

Kanpainetan edo sasoiko lanetan etorkin gehien biltzen diren zonetan bizitoki egoki eta duinak ezartzea eta etorkin horiek laguntza soziojuridikoa ematea, udalekin, nekazaritza-erakundeekin, gizarte-erakundeekin, eta sin-dikatuekin batera, komunitate guztia barnean hartuta. Horretarako, erabili gabe dauden, gutxiegi erabiltzen diren edo itxita dauden eraikin handiak —hala nola kuartelak, komentuak, monasterioak edo ikastetxeak— erabil-tzeko aukera aztertuko da, eta eraikin horiek birgaitzen parte hartuko da, etorkinek ere parte har dezaketen programen bidez.

20. *Prostituzioan aritutako emakumeak bestelako enplegu normalizatuetan hastera errazteko programa espezifikoak abian jartzea*

Beharrezkoa da prostituziotik lan-bizitzarako urratsa egiteko aukera erraztea, urrats hori egin nahi duten emakumeei, abusuen biktimak izan

direnei edo segurtasun-indarrei sare mafiosoak desegiteko laguntza ematen dietenei. Hainbat zerbitzu eta erakunderekin batera —gizarte-zerbitzuak, Estatuko segurtasun-indarrak, emakumeen kolektiboak eta bestelako gizarte-erakundeak—, kolektibo horretara egokituriko programa espezifikoak jarriko dira abian inguruabar sozialak eta pertsonalak horretarako egokiak direnean.

21. *Biztanleria etorkinaren lan-ezbeharren tasa prebenitzeko programa espezifikoa hastea*

Arrisku-espazioak atzemateko alde aurreko lana egin behar da, kolektibo horrengan istripu gehien eragiten dituzten arrazoen berri izanda, betiere estatistikako eta datu-bilketako sistema espezifikoak sortzeko aukera bereziki kontuan izanik. Aldi berean, lantoki kalteberetan atzeritar biztanleriarentzako kanpainak egingo dira, hainbat hizkuntzatan eta atzeritarrek erraz ulertzeko moduan.

22. *Emakume etorkinaren gizarteratze eta laneratzeari jardun integralekin batera heltzea*

Emakume etorkinari buruz esku-hartze integral eta orokorreko estrategia diseinatu behar da diskriminazio- eta abusu-egoerak saihesteko, segmentaturik ez dauden sektoretan gaitzeko aukera ematen duten prestakuntza-ekin-tzen bitartez emakumeen lanbide-hobekuntza erraztuz, eta autoenplegua eta okupazio-prestakuntzako programak sustatuz. Ekintza horiekin batera, gizarte-laguntza eman behar zaie emakume etorkinei, erabateko laneratzea eragozten eta mugatzen dieten familia-arloko traba eta oztopoak kentzeko.

23. *Lan-bitartekaritzako zereginak egitea etxe-zerbitzuen eta etxez etxeko laguntzaren eremuan*

Goranzko joera duen eta inolako erregulaziorik ez duen sektorea de-nez gero, eta, horrez gain, sektore horretan ezkutuko enplegu ugari biltzen direnez gero, Administrazio autonomikoak lan-bitartekaritzako zereginak egin beharko lituzke etxe-zerbitzuen eta etxez etxeko laguntzaren eremuan. Horretarako, sektorea antolatu eta arautu egin behar da, eta aldi berean gu-

txieneko irizpideak ezarri, jarduera horietan jarduteko behar den baimena izatearren. Horrez gain, aldizkako ikuskapenak egin behar dira, eskakizunak betetzen direla zaintzearren.

24. Gizarte-ongizateko arloak enplegu-gaietan egiaz inplika daitezen sustatzea

Kontuan izanik eskaera eta informazio asko udaletako gizarte-zerbitzuetatik iristen direla, departamentu horiek jasotzen baitute gizarteratzeko zailtasunik handienak dituen eta autonomia pertsonal eta sozialerako gaitasunik txikiena duen biztanleria, positiboa litzateke informazio espezializatua edukitzea eta informazio hori aztertzea eta egoki bideratzea, kolektibo horretan enplegua hobetzearren. Hori aberasgarria litzateke ongizateko azpisistema eta arlo guztientzat; era berean, neurriak ezartzeko arlo guztien arteko lankidetzako, koordinazioko eta erantzukidetasuneko sare bat garatuko litzateke, betiere udalaz eta/edo autonomiaz gaindiko maila ahal den neurrian inplikatu.

25. Etorkinen seme-alabek erdi- eta goi-mailako ikasketei euts diezaieten erraztea

Etorkinen bigarren eta hirugarren belaunaldiak kualifikaziorik ez izatea saihesteko eta okupazio-birbanaketako mekanismoak errazteko, bereziki garrantzitsua da etorkinen seme-alabek ikasketei eutsi eta erdi- eta goi-mailako ikasketak egiteko laguntza ematea, gaur egun biztanleria etorkinak egiten dituen enpleguetan jardun behar izan ez dezaten beti eta bestelako enpleguetan jarduteko aukera izan dezaten.

26. Biztanleria etorkinaren familia-dimentsioa kontuan hartuta esku hartzea

Gure hirietan bizi den biztanleria etorkinaren berezitasunak eta ezauzgarriak aintzat hartzerakoan ez da ahaztu behar biztanleria horren familia-dimentsioa, dimentsio hori biztanleria etorkina laneratzeko zailtasun gehigarria izan ez dadin. Etorkinen familia-profila kontuan izan behar da. Oro har, familia ugari asko daude, haur txiki-txikiak dituztenak, eta horrek zailago bihurtzen du bi gurasoak lan-merkatuan sartzeko aukera. Gizarte-babeseko azpisistemen arteko koordinazioa eta hainbat arlo inplikatzen dituzten neurri koordinatuak eta jardunak abian jartzea (adibidez, udaletako haur-

eskoletan sartzea, haurtzaindegiak edo gurasoek gaztelania ikasten duten bitartean, beren lan-prestakuntza hobetzen eta laneko arriskuen prebentziorako ohituretan trebatzen diren bitartean haurrak zaintzeko lekuak sortzea) langile etorkinen laneratzea hobetuko lukeen ekimena da.

* * *

Ziur asko, askoz ere jardun sozioraboral gehiago egin behar dira, baina hemen aipatu ditugunak atzerritar biztanleria gure hirietan hobeto txertatzeko lehen urratsa dira, betiere eskubideen eta betebeharren arteko loturan oinarrituta eta etorkinei buruzko ikuspegi errukarri eta karitatetsua bazter utzita, ikuspegi hori ez baita inola ere lagungarria etorkinen integraziorako. Hori guztia eraginpean hartutako eragile eta sektore guztiak inplikatuta eta nork bere ardura hartuta.

5

Erreferentziak

- AGUIRRE, Mark (2007): «¿Ha llegado la hora de la democracia en China?» in *El Viejo Topo*, 234-235.
